



KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOA

Hirugarren ziklorako berrikuspena: 2022-2027

ARAUDIA

Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duen urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuak onartua.

I. ERANSKINA

KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOAREN
ARAU-XEDAPENAK

KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOAREN ARAU-XEDAPENAK

Atariko kapitulua

1. artikulua. *Plan Hidrologikoaren lurralde-esparrua*

Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen Testu Bateginaren (ULTB) 40.3 artikulua xedatzen du Plan Hidrologikoaren lurralde-esparrua bat etorriko dela dagokion demarkazio hidrografikoarekin. Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren lurralde-esparrua 125/2007 Errege Dekretuaren (otsailaren 2koa, demarkazio hidrografikoaren lurralde-esparrua zehazten duena) 3.2 artikulua definitzen duena da.

2. artikulua. *Arau-zehaztapenen izaera eta izaera juridikoa*

1. Plan Hidrologikoaren araudi honetan jasotako xedapenak nahitaez bete beharreko arau lotesleak dira administrazio publiko eta partikular guztientzat.

2. Era berean, araudi honi atxikitako eranskinak ere lotesleak izango dira; hala ere, Administrazio Hidraulikoak 2.6, 2.7, 3.2, 7, 11, 12 eta 14 eranskinak aldatu ahal izango ditu, hamabost eguneko jendaurreko informazioaren izapidea egin ondoren.

3. Akronimoak edo inizialak adierazita xedapen desberdinetara egiten diren igortzeak eta erreferentziak honako hauen bertsio kontsolidatu edo eguneratuei dagozkie:

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen Testu Bategina (ULTB) onesten duena.
- 907/2007 Errege Dekretua, uztailaren 5koa, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua (PHE) onesten duena.
- 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (JPHE) onesten duena.

4. Arau-igortze guztiak aipatutako xedapenari dagokionez ulertuko dira, edo, hala badagokio, aldatzen edo ordeztzen duenari dagokionez.

5. Helbide elektronikoaren edo webgunearen bidez informazio-erreferentzia duten euskarrietara egindako igortzeak eta horien bidez eskaintzen den edukiak informazio-izaera eta -euskarria dute horien arabera egiten diren plan, ebazpen eta jarduketetarako, eta Administrazioak erregulartasunez eguneratuko ditu.

3. artikulua. *Baliabideen ustiapen-sistemen definizioa*

1. Uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren (PHE) 19.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa hartzen da ustiapen-sistema bakartzat.

2. PHEren 19. artikuluekin bat etorriz, baliabideak ustiatzeko sistema hauek onartzen dira:

- | | | |
|---------------------------------|-------------------------------|---------------------|
| a) Barbadun sistema. | b) Nerbioi-Ibaizabal sistema. | c) Butroe sistema. |
| d) Oka sistema. | e) Lea sistema. | f) Artibai sistema. |
| g) Deba sistema. | h) Urola sistema. | i) Oriá sistema. |
| j) Urumea sistema. | k) Oiartzun sistema. | l) Bidasoa sistema. |
| m) Pirinioetako ibaien sistema. | | |

Hamahiru sistema horien batez besteko ur-ekarpenak 1.1 eranskinean zehazten dira, eta haien lurralde-esparruak 1.2 eranskinean.

4. artikulua. *Klima-aldaketara egokitzea*

Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 19. artikuluekin bat etorriz, plangintza-ziklo honetan berariazko azterlan bat egin beharko da, klima-aldaketak demarkazioan dituen ondorioetara egokitzeko, etorkizunean plan hidrologiko hau berrikustean kontuan har dadin, eta, gutxienez, honako alderdi hauek aztertu beharko dira:

- a. Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak gomendatzen dituen egoera klimatiko eta hidrologikoak, espazio-aldakortasuna eta denbora-banaketa txertatuz.
- b. Demarkazioko lehorreko eta uretako ekosistemen eta jarduera sozioekonomikoen eraginak, esposizio-maila eta kalteberatasuna identifikatzea eta aztertzea.
- c. Arrisku-ebaluazioaren esparruan, esposizioa eta kalteberatasuna murrizteko egokitzapen-neurriak, baita egoera berrietara egokitzeko ahalmena ere.

5. artikulua. *Demarkazioa, ustiapen-sistemak eta ur-masak mugatzea*

1. Demarkazioaren lurralde-esparrua, baliabideen ustiapen-sistemen mugaketa eta deskribapena, eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko ur-masak mugatzen dituzten entitate geoespazialen datu geometrikoak honako informazio-sistema hauetan biltegitratutako informazio alfanumeriko eta geoespazial digitalaren arabera egiten dira:

a) Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak administratzen duen Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren informazio geografikoko sistema (KKHIGS). Beste xedapen batzuetan berariaz aurreikusitakoa izan ezean, arroko erakundeko Plangintza Hidrologikoko Bulegoak gauzatuko ditu KKHIGS informazio geografikoko sistemaren administrazio-eginkizunak. Publikoak helbide elektronikoa honetan du eskuragarri:

<https://www.chcantabrico.es/servicios/informacion-cartografica-documentacion/informacion-cartografica/visor>.

b) Uraren Euskal Agentziak administratzen duen Euskadiko uraren informazio-sistema (EUIS). Publikoak helbide elektronikoa honetan du eskuragarri:

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/informacion-del-agua/informacion-geografica-visor-gis/visor-gis/ur-81-0003711/es/>.

I. kapitulua. Ur-masen definizioa

I. atala. Azaleko ur-masak

6. artikulua. *Azaleko ur-masen identifikazioa*

1. PHEren 5. artikulua xedatzen duenaren arabera, Plan Hidrologiko honek 140 azaleko ur-masa identifikatzen ditu, eta honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Ibai-kategoriako 109 ur-masa (urtegien ondorioz oso eraldatuak izan ezik). Horietatik 21 oso eraldatuak dira.
- Aintzira- edo urtegi-kategoriako 13 ur-masa. Horietatik 10 urtegien ondorioz oso eraldatutako ibaiak dira eta 2 artifizialak dira.
- Tarteko uren kategoriako 14 ur-masa. Horietatik 4 oso eraldatuak dira.
- Kostaldeko 4 ur-masa.

Azaleko ur-masak (kodea, izena eta tipologia adierazita) 2. eranskinean azaltzen dira.

KKHIGSk eta EUISk ur-masen egoerari buruzko informazio osoa ematen dute, PHEren 87.2 artikuluekin bat etorritik.

2. Azaleko 5 ur-masa mugakideak dira Frantziarekin. Horiek 2.5 eranskinean jasotzen dira. 2000/60/EE Zuzentaraua aplikatzeari dagokionez, Frantziako Errepublikarekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko, Espainiak eta Frantziak uraren kudeaketari buruz 2006ko otsailaren 15ean, Tolosan (Frantzia), sinatutako administrazio-akordioan xedatutakoari jarraituko zaio.

7. artikulua. *Azaleko ur-masen egoera-moten adierazleak, erreferentziako baldintzak eta haien arteko mugak*

Azaleko ur-masen egoera edo potentziala baloratzeko, 817/2015 Errege Dekretuak (irailaren 11koa, azaleko ur-masen egoeraren jarraipen- eta ebaluazio irizpideak ezartzen dituen) eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzen dituzten adierazleak erabiliko dira. Horrez gain, 2.8 eranskinean arroko kutsatzaile espezifikoaren ingurumen-kalitateari buruzko arauak ezartzen dira, eta 2.6 eta 2.7 eranskinetan, demarkazio hidrografiko honetan aplikatu beharreko beste adierazle batzuen egoera-mota edo potentziala aldatzeko erreferentziako baldintzak eta mugak ezartzen dira. Adierazle horiek ez dira errege-dekretu horretan sartzen, eta osagarri gisa erabili beharko dira.

II. atala. Lurpeko ur-masak

8. artikulua. *Lurpeko ur-masen identifikazioa*

1. PHEren 9. artikulua betetzeko, Plan Hidrologiko honek lurpeko 20 ur-masa identifikatzen ditu bere demarkazioaren barruan, eta 3.1. eranskinean zerrendatu dira.

9. artikulua. *Lurpeko ur-masen atalase-balioak*

Lurpeko ur-masen egoera kimikoa baloratzeko erabili beharreko kutsatzaileei dagokienez, plan hidrologiko honetan jaso diren atalase-balioak kalkulatzeko, aintzat hartu da lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babesteko arauak finkatzen dituen urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretuan ezarritakoa.

Adierazitako dekretuaren arabera, hainbat substantziatarako atalase-balioak zehaztu dira. Substantzia horien artean daude: amonioa, merkurioa, beruna, kadmioa, artsenikoa, trikloroetilenoa, tetrakloroetilenoa, nitritoak eta fosfatoak. Adierazitako substantziatarako hartutako atalase-balioak, eta nitratoetarako eta plagizidetarako ingurumen-kalitateari buruzko arauak 3.2 eranskinean daude bilduta.

II. kapitulua. Erabileren lehentasun- eta bateragarritasun-irizpideak

10. artikulua. *Erabilera eta aprobetxamenduen arteko erabilera-lehentasunen hurrenkera*

1. PHEren 12. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, uraren erabilerak Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduari (JPHE) 49.bis artikuluan aipatzen direnak dira. Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Erregelamendu hori.

2. Uraren erabileren artean lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da, baliabidea eta bere ingurua babestu eta mantentzeko beharrezkoak diren eskakizunak aintzat hartuta:

1. Biztanleria hornitzea.
2. Industria erabilerak, aisialdi- eta turismo-industriaren erabilerak izan ezik.
3. Abeltzaintza eta akuikultura, azken hori, zirkuitu itxian.
4. Ureztatzea.
5. Zirkuitu irekiko akuikultura.
6. Aisialdirako erabilerak eta aisialdi- eta turismo-industriaren erabilerak.
7. Nabigazioa eta ur-garraioa.
8. Bestelako erabilerak.

3. Lehentasun-hurrenkerak ezin izango die eragin plan honek hurrengo kapituluan berariaz esleitutako baliabideei, ezta uholdeak mailakatzeko urtegi-tako babesei ere.

4. Lehentasun-hurrenkera bera duten erabileretarako eskaera bat baino gehiago izanez gero, Administrazio Hidraulikoak eskaera jasagarrienei emango die lehentasuna, ULTBren 60. artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

5. Biztanleriarentzako horniduretan, lehentasuna izango dute mankomunitateekin, partzuergoekin edo udalerrien sistema integratuekin edo, Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, kontzejuekin lotutako eskaerak, baita kalitate-arazoak dituzten urak kalitate egokiko beste batzuekin ordezkatzeko ekimenek ere.

6. "Bestelako erabilerak" dira 1. atalean aipatu diren aurreneko zazpi kategorietako bakar batean ere sartzen ez diren guztiak. Ez dute berekin ekarriko ura erabiltzea ingurumen-arloko helburuekin, baldin eta ur-masen egoeraren baldintzatzaileak badira, eta ez diete erreferentzia egingo ULTBren 59.7 artikuluan jasotako kasuei.

III. kapitulua. Emari ekologikoen eta bestelako ingurumen-eskaeren erregimena

11. artikulua. *Gutxieneko emari ekologikoak*

1. Emari ekologikoen erregimena Plan Hidrologikoaren Memoriaren V. eranskinean jasotako azterlanen eta Plangintza Hidrologikoaren Jarraibidea onesten duen irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduan ezarritako esparruaren arabera ezartzen da, Uren Legearen Testu Bateginaren 42. eta 59. artikuluetan araututakoaren arabera.

2. Ibai-kategoriako eta tarteko kategoriako ur-masetarako, 4. eranskinean agertzen diren gutxieneko emari ekologikoak finkatu dira, bai ohiko egoera hidrologikorako, bai lehortearen ondoriozko larrialdi-egoerarako, Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian xedatutakoari jarraikiz.

3. Ohiko egoera hidrologikorako ezarritako gutxieneko emari ekologikoei eragin gabe eskariei erantzuteko irtenbide tekniko bideragarriak daudenean, zehaztutako gutxieneko emari ekologikoen erregimena ez da aplikatuko deklaraturako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoerarako.

4. Bigarren puntuan adierazitako gutxieneko emari ekologikoak azaleko ur-masaren edo tartearen ibaian beherako muturrari dagozkie.

5. 4. eranskinekoekin bat ez datozen puntuetan, ibilguetako gutxieneko emari ekologikoak zehazteko, ondoko arauari jarraituko zaie:

a) Gutxieneko emari ekologikoak dituzten bi punturen artean kokaturako leku batean gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, jarraian adierazten den formula aplikatuko da:

$$Q_x = (Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n) + \frac{Q_b - (Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n)}{A_b - (A_1 + A_2 + \dots + A_n)} \times [A_x - ((A_1 + A_2 + \dots + A_n))]$$

non:

- $Q_1+Q_2+\dots+Q_n$: Gutxieneko emari ekologikoa ibaian gorako puntuan edo puntuetan, bai ibilgu nagusian, bai ibaiadarretan. 4.1 eranskinean zehaztutakoaren arabera ibilgu nagusi edo ibaiadar batean ibaian gora gutxieneko emari ekologikoa duen puntu bat baino gehiago egonez gero, kasu bakoitzean kalkulatu nahi direnen artean hurbilenekoa hartuko da $Q_1+Q_2+\dots+Q_n$ gisa.
- Q_b : Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beherako puntuan. 4.1 eranskinean zehaztutakoaren arabera ibaian behera gutxieneko emari ekologikoa duen puntu bat baino gehiago egonez gero, kasu bakoitzean ubide nagusitik hurbilen dagoena hartuko da kontuan.
- Q_x : kalkulatu nahi den puntuko gutxieneko emari ekologikoa.
- $A_1+A_2+\dots+A_n$: Arro isurleen azalera ibaian gorako puntuan, $Q_1+Q_2+\dots+Q_n$ -ri dagozkionak.
- A_b : Arro isurlearen azalera ibaian beherako puntuan.
- A_x : Kalkulatu nahi den puntuko arro isurlearen azalera.

b) Ur-masen goi-ibarrei dagokienez, estrapolazioaren bidez lortuko da gutxieneko emari ekologikoa, honako formula hau erabilita:

$$Q_x = \frac{Q_1}{A_1} \times A_x$$

non:

- Q_1 : Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beherako puntuan.
- Q_x : Kalkulatu nahi den puntuko gutxieneko emari ekologikoa.

- A_1 : Arro isurlearen azalera ibaian beheko puntuan.
- A_x : Kalkulatu nahi den puntuko arro isurlearen azalera.

c) Txikiak izateagatik ur-masatzat izendatu ez diren eta ibai-kategoriako inolako ur-masarekin lotuta ez dauden ibilgu-tarteetan (batez ere, itsasora edo tarteko uretara isurtzen duten ibilgu txikiak), gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, arro isurlearen km^2 bakoitzeko 2,0 l/s-ko balioa kontuan hartuko da; beste balio bat behar bezala justifikatzen bada izan ezik.

d) Iturburuetan edo ibilguetako azaleko urak zati batean edo guztiz lurrean sar daitezkeen lekuetan, eta natura-ingurunean izan litezkeen eraginaren ondorioz ULTBren 92. eta 92.bis artikuluetan zehaztutako helburuak betetzea ezinezkoa izan litekeen lekuetan, gutxieneko emari ekologikoa berariazko azterlanen bidez zehaztuko da eta ez da aplikatuko aurreko ataletan deskribatutako prozedura. Berariazko azterlan horiek gutxieneko emari ekologikoak zehaztu beharko dituzte azterlan horietan eraginpekotzat hartzen den ibilguaren tarte osoan.

6. Alerta eta Balizko Lehorre Egoeretan Jarduteko Plan Bereziek xedatutakoaren arabera, luzaroko lehorrea diagnostikatzen bada, herriak hornitzeko emakidek, ULTBren 59.7 artikulua arabera, lehentasuna izango dute gutxieneko emari ekologikoen erregimenaren gainetik, baldin eta, aurretiaz, Administrazio Hidraulikoak hari erantzuteko hornidura-aukera bideragarririk ez dagoela irizten badio eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Emari zirkulatuaren % 75a baino gehiago ez ateratzea hornidurarako.
- b) Erabilitako ur kantitatea murrizteko neurri egokiak hartzea emari zirkulatuak gutxieneko emari ekologikoak baino txikiagoak diren bitartean.
- c) Emakidaren erakunde onuradunak hartutako neurriei eta lortutako emaitzei buruzko txostena egin eta Administrazio Hidraulikoari bidaltzea, gehienez ere, hilabeteko epean, egoera hasten denetik.
- d) Nolanahi ere, gutxieneko emari ekologikoak eraginpean egon diren aldia amaitu eta luzeen jota 6 hilabetera, hornidura-emakidaren onuradun den erakundeak Administrazio Hidraulikoari jarduera-plan bat entregatuko dio, horrelakoak gertatzeko aukerak gutxiagotzera bideratutako jarduera-plan bat, hain zuzen. Plan horretan, bidezkoa denaren arabera, honako hauek identifikatuko dira: kontsumoa aurreztera bideratutako neurriak, hornidura-sarean eraginkortasuna hobetzeko neurriak eta bestelako baliabide-iturriak, dagokien kontrol- eta jarraipen-sistemeekin batera. Administrazio Hidraulikoak jarduera-plan horren aplikazioaren jarraipena egingo du eta, behar adinako edo egokia ez dela irizten badio, hartueneren lehentasuna eten ahal izango da, ULTBren 50.4 artikulua arabera.

7. *Gutxieneko emari ekologikoak eremu babestuetan.* Eremu Babestuen Erregistroan jasotako ibai-kategoriako eta tarteko ur-masetako ura ateratzeko emakidak eta baimenak izapidetzean, Administrazio Hidraulikoak pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatu ahal izango dio jarduerak eremu babestuaren gainean dituen ondorioen ebaluazio bat aurkezteko. Ebaluazio horretan, emari ekologikoen

erregimenaren proposamen bat jaso beharko da, 4. eranskinean ezarritakoa baino txikiagoa izango ez dena, azterlan espezifikoaren bidez zehaztua. Emarien erregimen horrek bermatu egin beharko du bete egiten direla 8. eranskinean definitutako ingurumen-helburuak, baita eremu babestuan aplikatzekoak diren babes-arauak ere.

8. *Gutxieneko emari ekologikoak ibai-erreserba naturaletan.* Natura-erreserbatzat hartzen diren ibai-tarteetan, 16.9 artikuluan aipatzen direnetan, emari ekologikoen erregimen bat ezartzen da 4.3 eranskinean, gutxienez habitat potentzial erabilgarriaren % 80a ematen duena, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartutako Plangintza Hidrologikoaren Jarraibidean deskribatutako prozeduraren arabera.

12. artikulua. *Gehieneko emari ekologikoak*

4.4 eranskinean, erregulazio-egitura handiak dituzten ibai-kategoriako ur-masa batzuetarako gehieneko emari ekologikoen erregimenak finkatu dira.

4.4 eranskinean adierazitakoak baino emari handiagoak presen huste-organoen bitartez husteak ez du esan nahiko gehieneko emarien erregimena hautsi denik uholdeak daudenean Ustiapen-arau onartuari jarraikiz jokatzeko bada.

Plangintza-ziklo honetan zehar, azterlan bat egingo da uraren egoerari eragin diezaiokeen aldaketa-tasak izan ditzaketen ur-masak identifikatu eta neurriak hartu ahal izateko.

IV. kapitulua. Baliabideen esleipena eta erreserba. Ur-zuzkidurak

I. atala. Baliabideen esleipena

13. artikulua. *Baliabideen ustiapen-sistemak. Lurralde-esparrua eta baliabideen esleipena*

1. Plan honek kudeatzen dituen batez besteko baliabide hidriko naturalak, Demarkazioaren lurralde-esparruan, urteko 4.685 hm³-koak direla ebaluatu da. Ustiapen-sistema bakoitzaren balioak 1.1 eranskinean agertzen dira. Balio horiek eta eguneratzeak Uraren Euskal Agentziaren webgunean (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren webgunean (www.chcantabrico.es) kontsulta daitezke. Demarkazioko ur-baliabideei buruzko azterlanetan, derrigorrezkoa izango da horiek aipatzea, homogeneotasuna bermatze aldera.

2. 5. eranskinean ezartzen da ustiapen-sistema bakoitzaren baliabideen esleipena.

II. atala. Ur-zuzkidurak

14. artikulua. Hiri-hornidurarako ur-zuzkidurak

1. Hiri-hornidurarako emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko, hurrengo ataletan zehaztutako bi metodoetako bat aplikatuta kalkulatu da ur bolumena. Nolanahi ere, hiri-garapen berrietarako hornidura planifikatzeko, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruari eta Hiri Berritzeari buruzko Legearen Testu Bateginaren 22.3.a) artikuluari eta ULTBren 25.4 artikuluari jarraitu beharko zaie. Horretarako, planaren sustatzaileak behar berrien kalkulua egin beharko du, II. atal honetan ezarritakoaren arabera.

2. Metodo orokorrean, udal-saretik hornitzen diren ur-erabilera guztiak hartzen dira kontuan. Horien artean daude etxe-erabilera, industria- eta merkataritza-erabilera, udal-erabilera (baldeatzeak, iturriak eta beste batzuk), ureztatzeko pribatua eta abeltzaintza-erabilera.

Kasu honetan, 6.1. eranskinean jasotako gehieneko ur-zuzkidura gordinak ezartzen dira. Zehazki, zuzkidura gordintzat hartzen dira goi-hornidura sarerako hartu behar den bolumenaren eta hornidura-eremuko biztanle errolatuen kopuruaren arteko zatidura.

3. Metodo bereizian, erabilera bakoitzerako gehieneko zuzkidura gordina zehaztuko da, honako ezaugarri hauen arabera:

- a) Osasun-erabilera. Industria, kirol-instalazio eta abarretako aldageletarako hornidura. Zuzkidura hau ezarri da: 150-200 litro langile edo erabiltzaile eta egun bakoitzeko.
- b) Etxe-erabilera. Etxetarako hornidura da bakarrik, hau da, udalen, denden, eta abarren beharrak alde batera utzita. Uraren gehieneko zuzkidura gordinak 6.3 eranskinean agertzen dira.
- c) Urtaroko biztanleria: turismoa eta bigarren bizilekua. 6.4 eranskinean ezarritako zuzkidurak erabiliko dira.
- d) Udal-erabilerak, baldeatzeak, iturriak eta bestelakoak. Baldeatze-beharrak kalkulatzeko, zuzkidura hau hartuko da: 1,2 l/m²/egun.
- e) Ospitale-erabilerak, geriatrikoak eta antzeko beste zerbitzu batzuk barne direla. Ur-beharrak kalkulatzeko, ohe-kopurua edo, hala badagokio, plaza-kopurua hartuko da oinarritzat. Zuzkidura honako hau izango da: 400 l/ohe-plaza/egun.
- f) Ostalaritza-erabilerak. Gehieneko zuzkidura gordin hau hartuko da: 10 m³ gehienez, establezimendu eta egun bakoitzeko.
- g) Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak (abeltzaintza eta ureztatzea), eta parkeak eta lorategiak ureztatze erabilera. 6.5 eta 6.6. eranskinetan zehaztutako zuzkidurak erabiliko dira.
- h) Hirigunearekin lotutako industria-erabilerak, hiri-sarean hartunea dutenak. 6.7 eranskinean jasotako zuzkidurak erabiliko dira.
- i) Bestelako olgeta-erabilerak. Erabilera horiei buruzko artikuluetan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.

4. Bi metodoak, orokorra eta bereizia, aplikatzean, emaitzak benetako kontsumoekin alderatuko dira, baldin eta informazioa badago. Benetako zuzkidura teorikoa baino txikiagoa bada, eskaera balioestean benetako zuzkidura hartuko da.

5. Herritarrak hornitzeko sistemetarako dauden ur-aprobetxamenduetan, emakida-eskubideak erregularizatzen direnean, 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoak baino ur-zuzkidura handiagoak ezarri ahal izango dira honako kasu hauetan:

- a) Herrigune sakabanatuetako hornidura-sistemetan, kudeaketa egokia dagoela justifikatzen denean, betiere oinarritzen dela kontrol, mantentze eta konponketekin erlazioatutako alderdi edo adierazleetan.
- b) Aurreko paragrafoko baldintzak betetzen ez dituzten beste hornidura-sistemetan, egokitzapen-plan bat ezarri beharko da 2. eta 3. paragrafoetan aipatutakoetarako ur-zuzkidura handiagoeekin, gehienez ere 5 urteko epean ur-zuzkidurak murriztu ahal izateko, paragrafo horietan ezarritakoetara egokitu arte.

15. artikulua. *Bestelako erabileretarako ur-zuzkidurak*

a) Industria-erabileretarako ur-zuzkidurak

Hiri-sareetara konektatu gabeko industriek edo industria-poligonoek eskatutako ur-bolumenak justifikatzeko, ahal bada, benetako datuak jasoko dituen berriazko informazioa aurkeztu beharko da.

Daturik ezean, 6.7 eranskinean (hainbat industria-sektoreri buruzkoa, produkzio elektrikoa salbuetsita) eta 6.8 eranskinean (produkzio elektrikoko zentralen zuzkiduretan oinarritzen dena) agertzen diren zuzkidurak hartuko dira kontuan.

Zein industria mota ezarriko den jakina ez den industria-poligonoetarako, honako zuzkidura esleitu da: 4.000 m³/ha/urte.

b) Abeltzaintza-erabileretarako ur-zuzkidurak

Abeltzaintza-erabileretarako ur-emakidak esleitu, berrikusi eta aldatzeko, 6.5 eranskinean jasotako zuzkidurak kontuan izango dira.

Ukuiluak garbitzeko ura eskatuz gero, beharrak zehazteko, abere ukuiluratuetarako eta ukuiluratu gabeetarako zuzkiduren arteko aldea kontuan izango da.

c) Ureztatzeko ur-zuzkidurak

Emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko espedienteetan, aurkako justifikaziorik ezean, 6.6 eranskinean ezarritako zuzkidura garbiak erabiliko dira.

Aurkezten diren proiektuetan, Administrazio Hidraulikoak drainatze-sareari eta uraren eta lurzoruen arteko erlazioari buruzko azterlan bat eskatu ahal izango du, interes publikoaren arabera beharrezkotzat jotzen duenean (interes hori justifikatu egin behar da), eta, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 106.2 b) artikuluaaren arabera, kutsadura lausoa eta gatzen esportazioa mugatzeko abian jarri beharreko jardunbide egokiei buruzko analisi bat eskatuko da; bereziki, kalteberatzat hartutako eremuetarako.

d) Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeko eta igerilekuak betetzeko ur-zuzkidurak

1. Golf-zelaiak ureztatzeko zuzkidurarako, oro har, zuzkidura hau ezarri da: 3.600 m³/ha/urte. Gainazal lorategidunak ureztatzeko, gehieneko zuzkidura hau aplikatuko da: 2.000 m³/ha/urte. Ureztatze-aldia

urtean 4 hilabetekoa da, eta, igerilekuak betetzeari dagokionez, horiek urtean soilik behin betetzea (eta galerak berritzea) baimenduko da.

2. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeari dagokionez, leheneratutako urak berrerabiltzea bultzatuko da. Horretarako, eskatzaileak ureztatu behar diren gainazalen ur-beharrei buruzko azterlan bat aurkeztu beharko du. Azterlanean, leheneratutako urak erabiliko direla jaso beharko da, Plan Hidrologiko Nazionalaren 30. artikulua eta araudi honen 63. artikulua araberaz.

3. Ureztatze-sistemak landaredira egokitu beharko dira, eta uraren kontsumoa minimizatzen dituztenak erabiliko dira; adibidez, mikro-ureztaketa, tanta-jario bidezko ureztaketa, ordu-programagailu baten bidez erregulatutako ihinztargailu-sare bat edota, batez ere euri-egunetan, ureztatze-maiztasuna kontrolatzeko hezetan-detektatutakoak.

e) Akuikulturarako eta beste batzuetarako ur-zuzkidurak

1. Arrain-haztegiak. Adierazitako beharrak aztertuko dira, beharrezkoak diren baltsetarako egun bakoitzeko behar diren ur-berritzeen kopurua kontuan izanda. Aurkako justifikaziorik ezean, salmonidoen arrain-haztegiarako, ur-beharra honela zehaztuko da:

- a) Inkubatzea: 30 berritze/egun
- b) Arrainkumeak haztea: 20 berritze/egun
- c) Gizentzea: 15 berritze/egun

2. Suteen aurkako borroka. Kontuan izango da baltsa edo andela bete eta erabiltzeko, eta galerak berritzeko bolumena.

V. kapitulua. Eremu babestuak. Babes-erregimena

16. artikulua. *Eremu Babestuen Erregistroa eta babes-erregimena*

Eremu Babestuen Erregistroan sartzen dira araudiari jarraikiz bereziki babestu beharrekoak diren ingurune urtarrarekin lotutako eremuak. Honako hauek dira Eremu Babestuen Erregistroko kategoriak, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 24. artikulua araberaz:

1) *Gizakien kontsumorako ura ekoizteko ur-hartune gisa erabiltzen diren eremuak edo masak*

- a) Egunero gutxienez 10 m³-ko batez besteko bolumena ematen duten edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen dituzten ur-masak sartzen dira, eta kasua bada, babes-perimetro mugatuak. Administrazio Hidraulikoak Erregistroan ura ateratzeko erabiltzen diren eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten beste eremu batzuk ere sartu ahalko ditu, modu arrazoituan, beren ezaugarrien arabera. 7.1 eta 7.2 eranskinetan biltzen dira, hurrenez hurren, *gizakien kontsumorako azaleko* (iturburuak zein ibilguak) eta *lurpeko ur-hartunea duten* eremuak, Eremu Babestuen Erregistroan jasotakoak. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan,

autonomia-erkidego horretako Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 32. artikuluan xedatutakoa betetzeko, 10 biztanle baino gehiago hornitzen dituzten hartuneak sartuko dira.

- b) Giza kontsumorako hartune guztiek, 7.1 eta 7.2 eranskinetan adierazitako Eremu Babestuen Erregistroko masetan sartuta badaude, dagokien babes-perimetroa izango dute. Bertan, babestu beharreko eremuak eta kontrol-neurriak zehaztuko dira, eta lurzorua erabilerak eta horietan garatu beharreko jarduerak arautuko dira, hartuneetako uraren kantitatearen eta kalitatearen gaineko eraginak saihesteko.

Administrazio Hidraulikoak hartuneak duen arriskua eta hornitutako biztanleria kontuan hartuko ditu hartuneen lehentasuna zehazteko.

Babes-perimetroa mugatzean, oro har, irizpide hidrologikoak edo hidrogeologikoak erabiliko dira.

Hornidurarako urtegien kasuan, babes-perimetroak berariaz mugatzean, kontuan hartu beharko da azaleko eta lurpeko jariatzeko-erria, baita urtegi isurdatutako ibaiadar posibleen erria ere.

- c) Hiri-hornidurarako ur-hartuneetarako emakida-eskaeretan, babes-perimetroarako proposamena exijitu ahal izango zaio eskatzaileari eta azterlan tekniko egokiarekin egongo da justifikatuta. Azterlan horrek, gutxienez, JPHEren 173.8 artikuluan aurreikusitako alderdiak jasoko ditu.
- d) Babes-perimetroen barruan, azaleko ur-masetarako, hartutako emariak eta uren kalitatea babestea helburu duten zaintza-eremuetarako JPHEn ezarritako arauak aplikatuko dira; eta, lurpeko ur-masetarako, berriz, aipatutako araudiaren 173. artikuluan ezarritakoak aplikatuko dira. Era berean, bereziki kontrolatu eta zainduko dira uraren kalitatea edateko uraren kalitateari buruzko irizpide tekniko-sanitarioak, kontrola eta hornidura ezartzen dituen urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretuan ezarritakoaren azpitik murriztea ekar lezaketen erabilera eta jardura guztiak (aprobetxamendu berriak, lur-mugimenduak, obrak, etab.).
- e) Giza kontsumorako ur-hartuneetarako babes-perimetroen barruko edozein baimen edo emakida izapidetzean, hornidura horren emakidadunaren txostena eskatuko da.
- f) b) atalean eremu babestuetarako aipatzen den babes-perimetroa mugatzen ez bada, babeste-eremu bat ezartzen da, eta, bertan, Administrazio Hidraulikoak jarduerak hartune babestuaren gainean (eta bereziki bere uren kalitatean eta emarian) dituen eraginaren ebaluazio bat aurkezteko exijitu ahal izango du.

Babeste-eremua lurpeko hartuneen inguruko erradio finkoko azalera zirkular bat izango da; eta, azaleko hartuneen kasuan (iturburuak zein ibilguak), arro isurlearen gaineko erradio finkoko arku bat izango da. Erradio horiek honakoak izango dira:

- 500 m, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- 200 m, 2.000 eta 15.000 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- 100 m, 50 eta 2.000 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- Administrazio Hidraulikoak zehaztuko duen longitude bat, 10 eta 50 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.

Ibaietako ur-hartuneen kasuan, eremu babestua hartuneak edo hartune-multzoak, hartunearen ur-masak eta babeste-eremuak osatzen dute.

Laku edo urtegiatiko ur-hartuneen kasuan, eremu babestua aintzirak edo urtegiak berak eta babeste-eremuari dagokion lur-zerrendak osatzen dute.

Lurpeko uren aprobetxamenduen kasuan, eremu babestua hartuneak eta bere babeste-eremuak osatzen dute. Hurbileko hartune bat baino gehiago badaude, eremu babestu berean multzokatu ahal izango dira, eta eremu horrek lurpeko masa osoa barne har dezake.

Administrazio Hidraulikoak aurreko paragrafoekin bat ez datorren babeste-eremu bat zehaztu ahalko du, erabakia arrazoituta.

- g) 7.1 eta 7.2 eranskinetan zehaztu diren hornidurarako ur-hartuneen eremu babestuetan, emakidak eta baimenak izapidetzean, Administrazio Hidraulikoak eskatzaileari exijitu ahalko dio jarduerak hartune babestuan duen eraginaren ebaluazio bat aurkez dezala, zehazki, uraren kalitatean eta emarian duen eraginaren ingurukoa. Horrela, urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua (edateko uraren kalitateari buruzko irizpide tekniko-sanitarioak, kontrola eta hornidura ezartzen dituen) betetzea bermatuko da, eta kasuan kasuko emakidadun ukituari horren berri emango zaio.

2) *Etorkizunean hiri-hornidurarako ur-hartune gisa erabiliko diren eremuak eta masak*

1) apartatuan adierazten diren gutxieneko bolumenari edo hornitutako gutxieneko pertsona kopuruari buruzko baldintza betetzen duten kategoria honetako eremuak 7.3 eranskinean jasotzen dira. Era berean, aurreko atalean adierazitako babeste-eremuak aplikatuko dira.

3) *Ikuspegi ekonomikotik garrantzitsuak diren espezie urtarrak babesteko deklaraturako eremuak*

- a) 7.4 eranskinean jasota daude arrainak bizitzeko babes berezikiotzat deklaraturako eremuak, irailaren 11ko 817/2017 Errege Dekretuaren arabera.
- b) 7.5 eranskinean jasota daude moluskuak eta beste ornogabe batzuk babesteko eremuak, martxoaren 5ko 345/1993 Errege Dekretuaren arabera.

4) *Olgeta-erabilerarako deklaraturako ur-masak, bainu-eremuak barne*

7.6 eranskinean, ur kontinentaletan deklaraturako bainu-eremuak zerrendatzen dira, eta 7.7 eranskinean, tarteko eta kostaldeko uretan deklaraturakoak. 9. eranskinean biltzen dira olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak.

5) *Kalteberatzat deklaraturako eremuak, nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sorrarazitako kutsaduraren aurka urak babesteari buruzko arauari jarraikiz*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan ez dago kategoria horretako eremurik.

6) *Sentikortzat deklaraturako eremuak, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko arauari jarraikiz*

Kategoria honetako eremuak 7.8 eranskinean jaso dira.

7) *Habitaten edo espezieen babesgunetzat deklaraturako eremuak, ura mantentzea edo uraren egoera hobetzea babesaren faktore garrantzitsu gisa dutenak*

Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) eta Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), Natura 2000 Sareko naturgune babestuetan sartutakoak. Horiek Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen esparruan izendatu dira. Atal honi dagozkion espazioak 7.9 eranskinean daude jasota.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorik behar ez duten habitatak edo espezieak babesteko eremu babestuetan dauden emakidak eta baimenak izapidetzean, gai horretan eskumena duen organoari eskatu beharko zaio erabaki dezala lekuari eragin dakiokkeen ala ez eta eskatutako jardueraren ondorioen ebaluazio egokia egin behar den ala ez, honako hauekin bat etorritz: Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikuluan xedatutakoa eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.b) artikuluan xedatutakoa.

8) *Ur mineral eta termalen babes-perimetroak, beren legeria zehatzaren arabera onartuak*

Onartutako perimetroak 7.10 eranskinean zerrendatu dira.

Indarrean dagoen legeria zehatzaren arabera onartutako ur mineralen eta termalen babes-perimetroen eremuan ur-aprobetxamendurako emakiden kasuan, beren antolamendu-dokumentuak bete beharko dira, eta agintaritza eskudunaren txostena eskatu.

9) *Erreserba hidrologikoak.*

Jabari Publiko Hidraulikoko Araudiaren 244.bis artikulua xedatzen duenaren arabera, 7.11.a) eranskinean jasotzen diren erreserba hidrologikoak deklaratu dira.

Zehaztutako erreserbak horietako bakoitzaren ibai-tarteei dagozkien jabari publiko hidraulikoko ondasunetara mugatzen dira. Tarte horietan, ez da baimenduko bertako baldintza naturalatan eragina izan lezakeen jarduerarik, eta, emari ekologikoak zehaztean, 11.8 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

10) *Hezeguneak*

Hezeguneen zerrenda 7.12 eranskinean jaso da.

Hezeguneetan edo horien eremu babestuetan eragina izan lezaketan emakidak edo baimenak ematea ingurumenaren gaineko ondorio posibleen analisiaren emaitzek baldintzatuko dute. Hala, xehetasunez aztertu beharko dira jabari publiko hidraulikoaren eta itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoaren babesean eragina duten alderdiak, baita horri lotutako ingurune biotikoaren edo abiotikoaren gainean eta erregimen naturalarekiko erasoaren prebentzioan eragina duten alderdiak ere.

11) *Babes Bereziko Eremuak*

1. Kategoria honetan tipologia hauek bereizten dira:

- a) *Interes naturala edo ingurumen-interesa duten ibai-tarteak:*

Halakotzat hartzen dira babes berezia behar duten tarte bereziki bereziak. Tarte horiek 7.13 eranskinean zerrendatu dira.

b) *Beste babes-figura batzuk:*

7.14 eta 7.15 eranskinetan, dagoeneko adierazitako inolako ataletan jasota ez dauden, baina egoki babesteko hautatu diren bestelako figurak jaso dira.

2. Babes bereziko eremuetan, oro har, dagozkien antolamendu-arloko dokumentuak edo arauak bete beharko dira, eta ingurune fisiko naturala, fauna edo flora alda dezaketen esku-hartzeak saihestuko dira jabari publiko hidraulikoan, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan eta horien eremu babestuetan.
3. Babes bereziko eremuetan edo horien eremu babestuetan eragina izan lezaketen emakidak edo baimenak ematea ingurumenaren gaineko ondorio posibleen analisiaren emaitzek baldintzatuko dute.
4. Ingurumen-intereseko tarteetan, uren kalitate naturalari eusteko beharrezko kontrol- eta jarraipen-neurriak hartuko dira ibai-ibilguzi dagokienez, baita horiei lotutako lurpeko sistemei dagokienez ere. Oro har, tartearen berezko fauna eta flora naturalak alda litzaketen esku-hartze guztiak saihestuko dira ibilguan.
5. Interes naturaleko tarteetan, bertako fauna eta flora naturalak ez ezik, ingurune fisiko naturala ere alda lezaketen jarduerak mugatu egingo dira.

VI. kapitulua. Ingurumen-helburuak eta ur-masen aldaketa

17 artikulua. Ingurumen-helburuak

1. ULTBren 92.bis artikuluan xedatutakoa betetzeko, 8. eranskinean jaso dira Planaren esparruan identifikatutako ur-masa bakoitzerako ingurumen-helburuak eta horiek lortzeko epeak, baita aurreikusitako aldaketak ere.
2. Ur-masatzat hartu ez diren jabari publiko hidraulikoko eremuak babestu egingo dira honako hauek betetzeko: 92.bis artikuluan ezarritako ingurumen-helburuak; irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako balioak; 2.6, 2.7 eta 3.2 eranskinetako kategoria eta tipologia parekagarrien arabeko egoera-moten arteko mugak; eta 12. eranskinean adierazitako erreferentziako balioak.
3. Eremu Babestuen Erregistroko eremuetarako ingurumen-helburuak ur-masen helburu orokorren osagarri dira. Izan ere, horiekin lotuta daude eta adierazitako eremuak deklaratzeko baliatutako legerian jasotako helburuak aipatzen dituzte, baita horiek babestu, antolatu eta kudeatzeko tresnek ezartzen dituzten helburuekin ere.
4. Ingurumen-helburuak betetzeko epeak eta helburu horiek erdiesteko luzapenak 8. eranskinean aurreikusi dira; nolahi ere, ingurumen-arloko kalitate-arauak eta inguru hartzaileko erreferentziako balioak —12. eranskinean daude jasota— indarrean sartzen direnetik bete behar dira.

5. PHEren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren kasuak, ingurumen-helburuekin lotutako egoerei buruzkoak, esplizituki jaso dira Memoriaren IX, eta XIV. eranskinetan, fitxa sistematikoetan.

18. artikulua. *Ur-masen egoeraren aldi baterako narriadura onartzeko baldintzak*

1. Ur-masa baten edo gehiagoren egoera aldi baterako narriatuz gero, honako hauek dira PHEren 38. artikuluaaren arabera arrazionalki ezustekotzat edo apartekotzat har daitezkeen egoerak:

- a) *Uholde larriak.* Uholde larritzat hartuko dira probabilitate ertainekoak, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluko 1. ataleko b) kategoriarekin bat etorritik. Probabilitate handieneko uholdeak uholde larritzat hartu ahal izango dira, baldin eta uholde horien eraginak ere ezohikoak badira.
- b) *Lehorte luzeak.* Lehorte luzetzat joko dira aplikatzekoa den Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian xedatutakoaren arabera deklaraturako larrialdi-egoerari dagozkionak. *Aurreikusitako gabeko istripuak.* Arrazoiz aurreikusi ezin izan diren istripuztat hartuko dira, besteak beste: ustekabekoak diren noizbehinkako isurketa; hondakin eta produktu industrialak biltegitratzeko sistemetan izandako akatsak; azpiegitura hidraulikoen eta saneamenduko ustekabeko hausturak; industrietako suteak; eta garraioan izandako istripuak; baita baso-suteek eragindako egoeraren ondoriozkoak ere.
- d) *Muturreko fenomeno naturalak.* Muturreko bestelako fenomeno naturaltzat hartuko dira, besteak beste, lurrikarak, itsasikarak, tornadoak, elur-jausiak, eta antzekoak.

2. Administrazio eskudunak erregistro bat izango du Plan Hidrologikoa indarrean dagoen bitartean gertatzen diren aldi baterako narriadurak biltzeko. Aldi baterako narriaduren kasuak eta eragindako ondorioak deskribatu eta justifikatuko dira, eta narriadura hori konpontzeko eta etorkizunean berriro gerta ez dadin hartutako neurriak adieraziko dira.

19. artikulua. *Aldaketa berrietarako baldintzak*

1. Plan Hidrologiko honek ez du aurreikusten ingurumen-helburuak ULTBren 92.bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera erdiestea galarazten duten arren justifika daitezkeen aldaketa berriak egitea, Memoriaren IX. eranskinean dokumentatuta dagoen bezala.

2. PHEren 39.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, aurreko atalean adierazitako kasuetarako erabilitako fitxa-eredua betetzearen bidez, planean aurreikusi ez diren gainerako ekintzetarako, baldin eta alterazio edo aldaketa berriak eragiten badituzte azaleko ur-masa baten ezaugarri fisikoetan edo haren adar-ibilguetako baten ezaugarri fisikoetan, lurpeko ur-masa baten maila aldatuz, nahiz eta egoera ekologiko ona lortzea eragozten duen, lurpeko ur-masen egoera ona edo, hala badagokio, potentzial ekologiko ona lortzea eragozten duen; edo zuzenean edo zeharka ur-masa baten edo batzuen egoeraren edo potentzialaren narriadura gehigarria eragiten duen. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak alterazio edo aldaketa berrien erregistro bat egingo dute.

VII. kapitulua. Ur-masak babesteko neurriak

I. atala. Jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko neurriak

20. artikulua. *Kontrol-gailuen instalazioa*

1. ULTBren 55.4 artikulua arabera, aprobetxamenduen titularrek beren kontura instalatu eta mantendu beharko dituzte benetan erabili edo kontsumitutako emariak, itzultakoak eta jabari publiko hidraulikora isuritakoak erregistratu eta egiaztatzea ziurtatuko duten eta emariak emandako gehienekoetara desbideratzea mugatuko duten neurketa-sistemak. Halaber, JPHEren 49. quinquies artikulua 3. eta 4. atalen arabera, ur-aprobetxamenduen titularrek neurketa-sistemak izan beharko dituzte, beren hustuketa puntuetan edo hartuneetan, emari ekologikoak mantentzeko buruzko informazioa bermatzeko.

2. Demarkazio Hidrografikoko erkidego-arte esparruan, emakidadunak erregistratu dituen emarien datuak kudeatu eta gordeko dira, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari igorriko zaizkio, maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 Aginduaren (jabari publiko hidraulikoaren ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur bolumenen, jabari publiko hidrauliko horretarako itzuleren eta bertarako isurketen kontrol eraginkorra egiteko sistemak arautzen dituen) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa EAren 2019ko otsailaren 27ko Ebazpenaren arabera, ur-aprobetxamenduen titularrek errespetatu beharreko desbideratutako emari eta emari ekologikoen erregimenari buruzko datuak jakinarazteari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen kasuan, datu horiek kudeatu, gorde eta Uraren Euskal Agentziara igorriko dira, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko Aginduan jasotakoaren arabera. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dira, eta, araudi horiek betetzeko, kontagailuak egiaztagarriak, zigilagarriak eta manipulaezinak izango dira.

3. Titularra behartuta egongo da erregistratutako emarien datuak, Administrazioak zehazten dituen ur-aprobetxamenduetako emari ekologikoei buruzko datuak barne, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari edo Uraren Euskal Agentziari ematera, hartunea dagoen eremuaren arabera, hark ARM/1312/2009 Agindua edo 2017ko apirilaren 24ko Agindua garatzean zehazten duen moduan eta ezarritako aldizkakotasunarekin, emakidak ikuskatu eta kontrolatzeko dituen funtzioak hobekien bete ditzan, Plan Hidrologikoaren jarraipenaren barruan.

4. Lurpeko urak hartzeko putzuen kasuan, gutxienez 25 mm-ko barne-diametroko tutu bat instalatzea eskatuko da (justifikatutako arrazoirik bada salbu), maila piezometrikoa irakurri ahal izateko, gutxienez ponparen xurgatze-eremuraino iritsi beharko den zunda edo hidronibel elektriko baten bidez. Bulkadako tutuaren irteeran, emariak kontrolatu eta neurtzeko gailu bat ipini beharko da, ezartzen diren xedapenen arabera. Era berean, putzuaren buruan, ur-laginak hartzeko irteera bat instalatu beharko da.

*II. atala. Emakidei eta baimenei buruzko neurriak***21. artikulua.** *Emakidei buruzko arau orokorrak*

ULTBren 59. artikuluan eta JPHEren 93. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, emakida berrietarako (azalekoak ezin lurpekoak) eskaerarekin batera aurkezten den proiektuan edo aurreproiektuan behar bezala justifikatuko da behar hidrikoen ebaluazioa, plan honetan eskaeren kalkulari eta zuzkidurei buruz ezarritako balioetara egokituta. Aipatutako araudiaren 102. artikuluan adierazitakoaz gainera, honako hau zehaztuko da: eskatutako urteko eta hileko gehieneko bolumena eta bat-bateko gehieneko emaria, eta horretaz gainera, hala badagokio, desbideratze-erregimena, hau da, desbideratzea egun murriztuetan egiten deneko erabileraldia.

22. artikulua. *Emakida-emarien aldaketa eta berrikuspena*

1. Une bakoitzean desbideratutako emaria benetan erabilitako emarira egokituko da, emandakoa handiagoa izan arren.
2. JPHEren 156.2 artikuluan jasotako kasuetan, emakidak ofizioz berrikustea eragiten duten inguruabar objektibotzat joko dira honakoak, besteak beste:
 - a) Emakida esleitzeko garaian beharrak eta bilakaera ebaluatzeko oinarri gisa hartzen den erabileraren baldintzak edo ezaugarriak aldatzea.
 - b) Hirugarrenentzat eraginak izatea edo ibilguaren baldintza morfologikoetan aldaketa nabarmenak egitea. Horien artean daude hezeguneak nabarmen aldatzea eta habitatak edo espezieak galtzea.

Horrela egindako berrikuspenak ez du kalte-ordainik ekarriko, ULTBren 65. artikuluen arabera.

3. Emakida-emarietako beharretara egokitu beharko dute; bada, aprobetxamendu baten benetako beharrak ebaluatzeko, eta ULTBren 65.2 artikuluan adierazten den egiaztapenerako, JPHEren 156.bis artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuko dira.
4. Egoera txarrekotzat deklaraturako ur-masei dagokienez, ingurumen-helburuak gauzatzeko beharrezkoa denean, aprobetxamenduaren titularrari errekerimendua egin ahal izango zaio beharrezkoak diren optimizazio-neurriak, aurrezte-neurriak eta inpaktua minimizatzeko neurriak har ditzan. Proposatu beharreko neurrien artean, besteak beste, honako aukera hauek izango dira: uraren erabileraren eraginkortasuna optimizatzeko eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea, hartuneak berriz kokatzea, ustiapen-erregimenean aldaketak egitea eta leheneratutako urak erabiltzea. Aurreko egoeran, Administrazioak emakida-emarien osotasuna edo zati bat beste jatorri bateko emariekin ordezkatzeko ezarri ahal izango du.

23. artikulua. *Emakida-epeetarako mugak*

1. ULTBren 59. artikuluan eta JPHEren 97. artikuluan xedatutakoaren arabera, oro har, emakidak 20 urteko eperako esleituko dira. Beste iraupen batzuk finkatu ahal izango dira, luzeagoak edo laburragoak, behar bezala arrazoituta badaude; bereziki, obrak amortizatzeko beharrezko denbora kontuan izanda.
2. Plan Hidrologikoan aurreikusitako azpiegituren eraginpeko ur-masetarako, azpiegituren funtzionamenduaren araberrako epemuga izango duten emakidak esleitu ahal izango dira.
3. ULTBren 59.6 artikuluan araututako 10 urtera arteko luzapenak ez du gaitutuko 75 urteko gehieneko iraupena, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 97. artikuluan arabera.

24. artikulua. *Presen edo presa txikien bidezko aprobetxamendu-emakidetarako gutxieneko baldintzak*

1. ULTBren 98. artikuluan jasotako ondorioetarako, presen edo presa txikien bidez ura hartzeko xedea duten emakida-eskaera berrietan, azterlan bat jaso beharko da. Azterlan horien bidez Administrazio Hidraulikoak, dagokion ustiapen-sistemako kudeaketa-simulazioaren bidez, baldintza jakin batzuk betez zein ur kantitate izan daitezkeen aprobetxamenduaren xede baloratzeko gai izan beharko du. Baldintza horiek honako hauek dira: ingurumenari kalterik ez eragitea, Plan Hidrologikoan adierazitako emari ekologikoen erregimenak errespetatzea eta lehendik zeuden beste emakida batzuei erantzuteko eskuragarritasuna ez murriztea.
2. Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 126.bis artikuluan jasotako ondorioetarako, emakida berriaren aprobetxamendu-proiektuan, edo lehendik dauden emakiden aldaketan, berrikusketan edo luzapenean argiro bereizitako epigrafe batean, ingurumen-eragina minimizatzea zuzendutako neurriak jaso beharko dira. Neurri horien artean, hartunaren tartean emari ekologikoen erregimena errespetatzekoak eta, hala badagokio, leheneratzekoak ez ezik, honako hauek ere egongo dira:
 - a) Emaria eta horren aldaketak neurtu eta erregistratzeko gailuak instalatzea, egiaztapen azkarra egin ahal izateko, bai eta emari ekologikoak mantentzekoak ere, araudi honen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - b) Hala badagokio, azpiegiturretan pasabideko gailuak instalatzea. Horiek, tartean eraginpean dagoen edo egon beharko lukeen iktiofaunaren arabera, ez diote zirkulatzea eta gora egitea galarazi behar.
 - c) Arrainak turbinetan sartzea eragotziko duten gailuak instalatzea.
 - d) Bidezkoa bada, azpiegiturak hustuz gero, iktiofauna erreskatatzeko aukera emango duten elementuak gehitzea.
 - e) Kanalak, zama-ganberak eta bestelako azpiegiturak ixtea, pertsonentzako eta lurreko faunarentzako (bereziki, ugaztun handiak) arriskuak saihesteko moduan.
 - f) 500 m-tik gorako luzera duten kanaletan pasabideak gaitu beharko dira, abereak eta lurreko fauna (bereziki, ornodun handiak) gai izan daitezen kanal horiek zeharkatzeko eta ibaiaren bazter naturalera heltzeko.
 - g) Erriberako landarediaren eta eremu babestuen gaineko eragin posibleen analisisa egitea eta prebentzio-, zuzenketa- eta, bere kasuan, konpentsazio-neurriak proposatzea.
 - h) Eraginpeko ibai-geomorfologiaren gaineko eragin posibleen analisisa egitea eta prebentzio-, zuzenketa- eta, bere kasuan, konpentsazio-neurriak proposatzea.

3. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berriei dagokienez, ez da baimengarria izango enbolodun edo hidropunta izeneko ustiapen-jarraibidea. Enbolodunek honela funtzionatzen dute: ordu gutxi batzuetan turbinatze-aldiak eta geldialdiak txandakatzen ditu, presa txikian edo zama-ganberan ur-maila leheneratu arte. Horrek, ibaian, ur-masen egoera ekologiko ona narriatzen edo arriskuan jartzen duen emari zirkulatzailaren aldaketak sorrarazten ditu.

Lehendik dauden emakidetan, eta ingurumen-ondorioak mugatze aldera, Administrazio Hidraulikoak emakiden baldintzak berrikusi ahal izango ditu, eta itzulitako ur-emaria ibilguaren emarira egokitzeko gailuak instalatzeko betebeharra ezarriko du.

4. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berrietan eta, oro har, lehendik daudenetan, hala dela, ekipamendu-emariak emari zirkulatzaila egokituko dira erregimen naturaleko urte hidrologikoan zehar. Emari horiek sailkatutako emarien kurbako Q80 eta Q100 arteko tartean egongo dira, aurretiaz emari ekologikoak deskontatu ondoren.

5. Administrazio Hidraulikoak xede hidroelektrikoekin baliatu ahal izango ditu, zuzenean edo zeharka, bere baliabideen edo sektore publikoko beste erakunde batzuen bidez, Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren 165.bis artikulua bete ondoren, beren tresna diren emakidak iraungitzean Estatura itzultzen diren azpiegitura hidroelektrikoak.

Aprobetxamendu hidroelektrikoak Administrazio Hidraulikoak edo sektore publikoko beste erakunde batzuek zuzenean egiten ez badituzte, deialdi publiko bidez esleituko dira, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 132. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera. Kasu horretan, deialdiaren oinarriek bermatuko dute emandako aprobetxamendu hidroelektrikoak obra hidraulikoen ustiapen nagusiaren beharren, ibaien emarien erregimenaren eta Plan honetan edo organo eskudunek finkatzen dituzten ingurumen-helburuen mende egongo direla. Deialdian ezartzen den kanona independentea izango da aprobetxamendu horiek bete behar dituzten gainerako kanon eta tasekiko.

Administrazio Hidraulikoak, emakidak iraungitzean, Estatura itzultzen diren azpiegituren aprobetxamenduari edo eraispinari buruz hartzen duen erabakia, ekonomiari eta karbono-aztarnari buruzko kontsiderazioez gain, gutxieneko alderdi hauetan oinarrituko da: aztarna espaziala, biodibertsitatea, habitataren aldaketa eta ekosistemen kalitatea.

25. artikulua. *Jabari publiko hidraulikoa eta haren zaintza-eremua kontserbatzeko jarduketa txikiak egitea*

1. Honako hauek dira jabari publiko hidraulikoa mantentzeko eta kontserbatzeko jarduketa txikiak, betiere espazio babestuetatik kanpo egiten badira eta JPHeren 53. artikuluan aurreikusitako moduan baimena behar ez badute, edo kasu zehatz horretarako debekatuta badaude:

- a) Ibilgua oztopatzen duten zuhaitz hilak eta korrontek herrestan eramandako elementuak kentzea, bereziki ibilguaren gaineko pasabideetan, edo jabari publiko hidraulikoa degradatzen edo kutsatzen duten elementuak badira. Egin beharreko lanek ez dute ibilgua okupatuko, eta ezingo diote kalterik eragin ibaiertzeko landarediari.

- b) Linea elektrikoen azpiko landaredia garbitzea, ibilguen zaintza-eremuan, eta urei buruzko legeria ez den beste bat aplikatzearen ondorioz egin beharreko beste edozein jarduketa, baldin eta jabari publiko hidraulikoko ondasunak aprobetxatzea, okupatzea edo erabiltzea ez badakar.
- c) Ibai-ekosistemakoak ez diren plantazioak edo mozketak, zaintza-eremuan, baldin eta jabari publiko hidraulikoari eragiten ez badiote.
- d) Ibilguen zaintza-eremuetan dauden ondasun higiezin kontserbazio normalak eskatzen dituen konponketa txikiko lanak, betiere lehendik dauden eraikuntzen bolumena, altuera edo azalera handitzea edo haien erabilera aldatzea ez badakarte.
- e) Udalek hiri-parkeetan eta hiri-inguruetako parkeetan egin beharreko mantentze-lanak, baldin eta lurzorua erliebe naturalean funtsezko aldaketarik eragiten ez badute.
- f) Ibilguaren gaineko zubiak eta azpiegiturak mantentzeko jarduketak, baldin eta horiek gauzatzeko ez bada jabari publiko hidraulikoaren okupazioa handitu behar, husteko ahalmenari eragiten ez bazaio eta jarduketek ibai-ekosistemari, ibaiertzei eta uren kalitateari eragiten ez badiete.
- g) Bideen eta errepedeen zoruaren konponketak, sestra aldatzen ez dutenak eta oinplanoan lehendik dagoena baino okupazio handiagoa eragiten ez dutenak, betiere ibilguarekiko paraleloan igarotzen ez badira zortasun-eremuaren barruan.
- h) Lehentasunezko fluxu-eremutik kanpoko hesi iragazkorak jartzea.
- i) Baranda iragazkorak jartzea, pasabidearen plataformaren gainean kokatutako errepedeetako edo bideetako pasabideetan, okupazioa handitu gabe.
- j) Ur-emia neurtzeko estazioak mantentzea.
- k) Lagin-zuloak eta zundaketak (aprobetxamenduetarako zundaketak izan ezik)
- l) Landare-espezie aloktono inbaditzaileak kentzea.

2. Jarduketa horiek gauzatu baino hamabost egun lehenago, sustatzaileak ezarritako baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Administrazio Hidraulikoari. Administrazioak onetsi eta argitaratuko du erantzukizunpeko adierazpenaren eredu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua araber. Administrazioak ahalmena izango du adierazpenean jasotako datuak egiazkoak eta zehatzak direla egiaztatzeko, eta, horretarako, hierarkian mendeko diren langileak ikuskatzeko lanak egingo ditu.

3. Toki-erakundeekiko lankidetzaren sustatuko da jarduketa horiek gauzatzeko.

26. artikulua. *Jabari publiko hidraulikoari eragindako kalteak baloratzea*

Ura legez kontra ateratzeak eragindako kalteak baloratzeko, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 326.bis artikuluan ezarritakoaren araber, 15. gehigarrian ezartzen da uraren kostu unitarioa. Kostu hori erabileraren araber zehaztuko da, kostu finantzarioak eta ez-finantzarioak hartuko ditu barne, eta Uren Legearen testu bateginaren 41.5 artikulua bigarren paragrafoan eskatutako eta Plan honen memoriaren X. eranskinean jasotako ur-erabileraren analisi ekonomikoen ondoriozkoa izango da.

III. atala. Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko arauak

27. artikulua. *Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuko jardueren inguruko xehetasun orokorra*

1. Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 23. artikuluan aipatzen diren itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremurako baimenak emateko, kontuan izango dira, Plan honetan ezarritakoaz gainera, aipatutako Legea eta Kostaldeen Erregelamendu Orokorra, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak onetsitakoa, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

2. Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoaren eta estuarioetako eta kostaldeko ekosistemen narriadura prebenitzeko, irizpide orokor gisa, babes-zortasuneko eremuan ezin izango dira eraiki urbanizazioaren elementuak; hala nola, espaloiak, bideak, sotoak, aparkalekua, garajeak edo beste elementu batzuk. Era berean, babes-zortasuneko eremuaren barruan ezin izango da jarri lurpeko edo aireko azpiegitura linealik (hornidura edo saneamendua, telekomunikazioak, elektrizitatea, gasa, etab.), eta erabilgarritasun publikoko arrazoi justifikatuen ondorioz ezinbestean bertatik igaro behar badute, ahal dela, dauden bideen azpitik kokatu beharko dira.

3. Itsasertza babesteko, eta pertsonentzat ikuspegiak eragotzi ez ditzaten, kirol-instalazioak lur naturalaren gainetik metro bateko altuerara mugatuko dira. Oro har, itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoarekin erlazionatutako estuarioetako eta itsasertzeko ekosistemen narriadura saiheste aldera, instalazio horiek egiteko, ezin izango da 3 metrotik gorako lur-erazketarik eta lubetarik egin.

28. artikulua. *Babes-zortasuneko eremuan pasealekuak eta bideak egitearen inguruko xehetasunak*

1. Babes-zortasuneko eremuan gauzatu nahi diren oinezkoen pasealekuek, egun urbanizatu gabe dauden eremuetan, irisgarritasunaren baldintzatzaileen ondorioz ezarritako gutxieneko zabalera izango dute: ahal dela, gehienez 2 metro, 3 metroraino zabaltzeko aukerarekin erabilera mistoa dutenean (oinezkoak eta bizikletak). Horiek gauzatzeko, tratamendu bigunak erabiliko dira, hiri-altzariak instalatu gabe, eta, ahal den neurrian, ez dute argiztapenik izango. Dena den, argiztapena instalatzea beharrezkoa bada, baliza motakoa izango da, ahal dela.

2. Itsasadarren eta estuarioen balio naturalak babesteko, eta baldin eta irisgarritasunarekin erlazionatutako arrazoien ondorioz posible bada, babes-zortasunaren eremuko lehenengo 6 metroetan baimenak emateko eskumena duen agintaritza bide eta bidezidor berriak eraikitzea ekiditen saiatuko da inguru horietan oinezkoek erabiltzeko modukoak diren eta zaintza- eta salbamendu-ibilgailuak igarotzeko balio duten bide publikoak badaude.

29. artikulua. *Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak. Itsas-lehorreko jabari publikoa*

1. Estatuko Administrazio Orokorrek, Kostaldeein buruzko Legea garatzen duen Araudiaren 222. artikulua aplikatuz, hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko txostena egingo du, berez dagozkion eskumenetan oinarrituta, itsasoaren eta lehorrearen arteko jabari publikoa kudeatu eta babestearekin lotutako alderdiei dagokienez. Bestalde, Uraren Euskal Agentziak, ekainaren 23ko Urei buruzko 1/2006 Legearen 7.k (itsasoaren eta lehorrearen arteko jabari publikora zabaldua) eta 7.l artikuluko atalak aplikatuz, txosten bat egingo du hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko dokumentuak izapidetzean. Uraren Euskal Agentziak plangintzari buruz egin behar duen txostena egiteko, sustatzaileak hornikuntza, saneamendu eta arazketarako proposatutako konponbidea txertatuko du; sare orokorrean egiten denean, egiturazko antolamenduaren plangintzan, eta tokiko sisteman egiten denean, antolamendu xehatuan.

2. Aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera egindako txostenek ez diete kalterik egingo Estatuko Administrazioak itsasoaren eta lehorrearen arteko jabari publikoari buruzko emakidak emateko dituen eskumenei, ez eta Uraren Euskal Agentziak jabari publiko hartako babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko eta lehorretik itsasora isurketak baimentzeko dituen ere, administrazio bakoitzak ebatzi beharreko baldintzetan, zuzenbidearekin bat etorritz.

*IV. atala. Lurpeko urak babesteko neurriak***30. artikulua.** *Lurpeko uren erabilera. Aurreko aprobetxamenduetan eragina eta emari ekologikoen erregimenaren babesa*

1. JPHEren 184.4 artikuluan ezarritakoarekin lotuta, lurpeko uren aprobetxamendu berriek dauden hartuneetan izan dezaketen eragina zehazteko, Administrazio Hidraulikoak eskatzaileari eskatu ahal izango dio litezkeen eraginak justifikatzeko txosten hidrogeologiko bat aurkez dezala, hartune berrietan egindako ponpaketako edo ur-emaria neurtzeko saiakuntzetatik lortutako datuetan oinarrituta.

2. Emari ekologikoen erregimenari eusteko, ibai edo iturburuetatik gertu dauden edota emari ekologikoen erregimenean ustez eragina izan dezaketen lurpeko uren aprobetxamenduei, haietan izan litezkeen eraginak justifikatzeko txosten bat eskatu ahal izango zaie. Txosten horrek aurreko atalean ezarritako eskakizun tekniko berberak bete beharko ditu. Emakidaren ustiapen-erregimena egokitu egin beharko da, emari ekologikoen erregimenean eraginik ez duela bermatzeko.

31. artikulua. *Lurpeko uraren hartuneak zigilatzea*

1. Lurpeko ur-hartune orok dagozkion segurtasun-instalazioak izan beharko ditu, meatzaritzaren segurtasunari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera. Helburu berarekin, putzuek eta zundaketek beren ezaugarrietara egokitutako itxitura izan beharko dute, pertsonak, animaliak, harriak edo hondakinak erortzea ekidingo dutenak, maila piezometrikoa neurtzeko aukera alde batera utzi gabe.
2. Lurpeko ur-masak narriatzea saihesteko, Administrazio Hidraulikoak beharrezko neurriak hartuko ditu erauzpen-jarduera etetea dakarten lurpeko uren eskubideak iraungi, berrikusi edo aldatzeko espedienteetan beharrezko neurriak har daitezen, titularrak material geldoaz putzuak, zundaketak edo antzeko obrak zigilatzen dituela ziurtatzeko, JPHEren 188.bis artikuluaaren arabera.
3. Bere kokapenagatik Administrazio Hidraulikoak putzua kontrolgune bihurtu nahi badu, alde aurretik jakinarazi ondoren, titularrak ez du zigilatuko eta Administrazio Hidraulikoak behar bezala ustiatzeko beharrezkoak diren zortasunak ezarri ahalko ditu.

32. artikulua. *Urak babestea nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sortutako kutsaduraren aurka*

Plan Hidrologiko hau indarrean dagoen bitartean ur-masa jakin baten ingurumen-helburuak betetzea arriskuan jartzen duten nitrato-mailak detektatuz gero, Administrazio Hidraulikoak nitrogeno-soberakinen gehieneko atalase-balioak ezarri ahal izango ditu, hektareako eta urteko, eragindako ur-masa edo masa-sektore bakoitzerako. Gehieneko balio horiek urak nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sortutako kutsaduratik babesteko araudiaren arabera zehaztuko dira, eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek kontuan hartu beharko dituzte, beren jarduketa-programak berrikusteko.

33. artikulua. *Kostaldeko akuiferoak gazitzearen aurkako babes eta babes-erregimen orokorra*

1. PHEren 244. artikuluaaren arabera, kostaldeko akuiferoetan, horiek ez gazitzea ziurtatzeko, jarraian adierazten diren irizpideei jarraituko zaie.
Putzuaren maila itsasoaren batez besteko mailatik behera baldin badago, beharrezko azterlanak egingo dira akuiferoa gazituko ez dela ziurtatuko duten kontrol-elementuak zehaztu eta aplikatu ahal izateko. Horrelakoetan, kontuan hartuko dira itsasoarekiko litekeen komunikazioa, itsasorainoko distantzia, sakonune-konoa eta, azkenik, putzuaren eta itsasoaren artean kontrol-zundaketa egiteko aukera.
2. Lurpeko gainerako ur-masetan, JPHEn oro har ezartzen diren arauak izango dira aplikatzekoak, akuiferoen babesari dagokionez.

34. artikulua. *Lurpeko ur-masak babesteko beste printzipio batzuk*

1. Emakida duen hartune baten errendimendua hobetzeko asmoz, aukera izango da, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimenaz, JPHEren 188. artikuluaen arabera, ur-hartunea konpontzeko, aldatzeko edo haren inguruko 10 m-ko erradioan beste hartune bat gauzatzeko, baldin eta horrek hirugarrenengan eraginik ez badu eta lehendik zeuden beste hartune batzuetarako baimendutakoa baino distantzia txikiagoan kokatzen ez bada. Hartune berria ezin izango da izan aurrekoa baino handiagoa eta sakonagoa. Hala badagokio, jatorrizko hartunea itxi eta zigilatu beharko da, baldin eta Administrazio Hidraulikoak aurkakoa adierazten ez badu.
2. Putzuak garbitu, garatu eta estimulatzeko lanak Administrazio Hidraulikoari jakinarazi beharko zaizkio hilabete lehenago, gutxienez.
3. Lurpeko ur-masa baten egoera kuantitatiboa txarra edo egoera kimikoa txarra dela justifikatzea nahikoa izan daiteke aprobetxamendu-eskaerak ukatzeko eta lehendik zeuden hartuneak itxi edo zigilatzeke errekerimendua egiteko. Tokiko kutsaduraren eraginpeko lurpeko ur-masei dagokienez, oro har eta hartuneko uren helburua edozein dela ere, dagozkion maila kutsatzaileen zigilatze sanitarioa eskatu ahal izango da, lurpeko uraren kalitatea babestearren.
4. Arro endorreikoetako ur-ibilguetara isurtzeko baimenen kasuan, aplikatuko da Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduen 257. eta 258. artikuluetan ezarritakoa, III. eranskineko I. zerrendan agertzen diren substantziak lurpeko uretan sartzea eragozteko, bai eta eranskin bereko II. zerrendako substantzien sarrera mugatzeko ere, betiere artikulua horietan ezarritako alde aurreko azterketa hidrogeologikoa eskatuz.

35. artikulua. *Klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduetarako zundaketak*

1. Zirkuitu itxiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduetarako zundaketak egiteko, alde aurretik Administrazio Hidraulikoari horien berri eman behar zaio, ondorengo informazioa helarazita, gutxienez: kokapena, lanei ekiteko aurreikusitako data, zundaketen sakonera eta kopurua, aurreikusitako zigilatze mota, sustatzailea, zulaketa-enpresaren eta lanen ardura duen instalatzailearen sozietate-izen osoa eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia bat. Adierazitako jakinarazpena ikusirik, Administrazio Hidraulikoak errekerimendua egin ahal izango du jabari publiko hidraulikoan obra-baimenen beharrezko izapideak egiteko. Prozedura JPHEren 53. artikuluan jasotakoa izango da.
2. Sistema irekiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduen kasuan, espediente bakarrean izapidetuko dira emakida edo izen-ematea eta isurketaren baimena (printzipioz, akuifero berera itzultzea). Mota horretako aprobetxamenduetan, ondoko gomendioak kontuan hartuko dira:
 - a) Oro har, erabilitako ura berori atera deneko akuifero berean injektatu beharko da. Ibai-akuifero sistemaren balantzean eraginik ez badago eta behar bezala justifikatutako ezohiko kasuetan bakar-bakarrik, ibilgura isurtzea baimendu ahal izango da.
 - b) Berariazko baimenaz izan ezik, urak jauzi termikoen bidez injektatuko dira. Horiak gehienez 6 °C-koak izango dira eta, ahal dela, urte osoan zehar egon beharko dute jardunean (berokuntza eta hoztea). Hortik gorako jauzi termikoek behar bezala justifikatuta egon beharko dute.

3. Ingurunean kutsatzaileak inola ere sar ez daitezten diseinatu eta burutu beharko dira zulaketak aipatutako aprobetxamenduetarako, bai sistema irekian, bai itxian.

4. Aurreko atalean adierazitako zulaketetarako lanek kontrol eta jarraipen hidrogeologikoa izan beharko dute, zeharkatutako akuiferoen mailek duten garrantzia eta izaera zehazteko. Lan horiek teknikari eskudun baten zuzendaritzapean egongo dira. Hura, gainera, zigilatze-sistema egokiak diseinatu eta ezartzeaz arduratuko da. Arrazoi justifikatu baten ondorioz jarraipen hidrogeologikorik egiten ez bada, zulaketa egiten duen enpresak eta lanen zuzendaritza teknikoak trukagailu bertikalen eraztuna osorik zigilatzea ziurtatuko dute. Zigilatze-lana injekzio bidez egingo da, eraztun-eremu osoan zehar. Injekziorako, iragazkortasun txikiko produktu prestatu geldoa erabiliko dira: bentonita-zementuzko kare-esnea, bentonitazko pelletak eta antzekoak.

5. Hirugarrenen batzuen gaineko eraginak eta akuiferoaren aldaketak saihesteko (besteak beste, akuiferoaren balantzearen, eta lurpeko fluxuaren ezaugarri fisiko-kimikoen eta hidrodinamikaren gainekoak), Administrazio Hidraulikoak, ULTBren 98. artikulua arabera, ingurunearen gaineko inpaktua ebaluatuko duen berriazko azterlan bat aurkeztea eskatu ahal izango du.

V. atala. Uholde eta lehorteen aurkako babesari buruzko neurriak

36. artikulua. *Erakundeen arteko hitzarmenak; Administrazio Hidraulikoaren eta gainerako erakunde publikoen arteko lankidetzak-hitzarmenak eta hirigintza-hitzarmenak*

1. Plan honen oinarrian dagoen elkarrekiko hitzarmen- eta lankidetzak-espirituari dagokionez, Administrazio Hidraulikoak lankidetzak-**hitzarmenak** sustatuko ditu, oro har, administrazio publikoekin eta, bereziki, toki-erakundeekin, honako helburu hauetarako: uholde-arriskua duen eremuan erabilerak antolatzea ahalbidetuko duten neurrien programak ezartzeko; pertsonak eta ondasunak ibai baten edo haren zati baten uholdeetatik babesteko; jabari publiko hidraulikoaren eta itsas-lehortarraren egoera zaintzeko helburuak betetzeko; ur-ekosistemen narriadura prebenitzeko eta horiek hobetzen laguntzeko; eta uraldietako korronteen erregimena babesteko, ibilguekin mugakide diren lursailek emariak eta zama solidoa ijazteko duten funtzioa ahalbidetuta.

2. Halaber, aipatutako hitzarmenek hirigintza-izaera izan ahalko dute neurri hidraulikoak udalerriko urbanizazio-prozesuekin koordinatzeko badira, eta, horrela, hirigintza- eta hidraulika-politika koherenteak egin ahal izango dira.

3. Hitzarmen horiek, ahal dela, hirigintza-plangintza orokorra egiteko eta onesteko hasierako faseetan egingo dira. Fase horietan egiterik ez badago, plangintza xehatua garatzean eta egikaritzean ere egin ahal izango dira, hirigintzako legerian aurreikusitako urbanizazio-proiektuen eta beste tresna batzuen bidez.

4. Jarduketa hidraulikoak, area, sektore eta dagokion egikaritze-unitatearen hirigintza-garapenerako saihestezinak direnean, hirigintza-zamatzat hartuko dira hirigintza-legerian aurreikusitako ondorioetarako.

37. artikulua. *Uholde-eremuak kudeatzeko irizpideak*

1. Uholdeak kudeatzeko, indarrean egon daitezkeen arau-xedapen orokorrak eta eta araudi autonomiko osagarriak alde batera utzi gabe, kontuan hartuko dira Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean ezarritako irizpideak eta Uraren zuzendari nagusiaren 2017ko irailaren 13ko Jarraibidean kontuan hartutakoak, ibai-jatorriko uholde-eremuetan lurzorua erabilera-mugei dagokienez jabari publiko hidraulikoaren erregelamenduaren aldaketa aplikatzeko. Jarraibide hori araudi honekin batera doa, 16. eranskin gisa, informazio gisa.

2. JPHEren 14.1 artikulua arabera, honako hauek dira uholde-eremuak: 500 urteko errepikatze-denbora estatistikoko uholdeetan urek hartuko lituzketen maila teorikoen ondorioz urpean gera daitezkeen lurrak, azterketa geomorfologiko, hidrologiko eta hidraulikoen arabera, baita uraldi historikoen serieen arabera eta aintzira, urmael, urtegi edo ibaietan uholde historikoei buruzko dokumentu edo ebidentzia historikoen arabera ere. Lur horiek ur-goraldi horietan ur-fluxuak eta garraiatutako zama solidoa atxikitze edo arintze lanak egiten dituzte, edo higaduraren aurkako babesak ere ematen dute.

3. Uholde-arriskuaren kartografia Administrazio Hidraulikoak garatu, zehaztu eta definitu behar du. Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako berariazko azterlanik ezean, uholdeak gertatzeko probabilitatea dagoen egoerarako erreferentziarako kartografia Uholde-eremuen Kartografia Sistema Nazionalean jasotakoa izango da, Kartografia Erregistro Nagusian inskribatutakoa, Sistema Kartografiko Nazionalean arautzen duen azaroaren 23ko 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera.

4. Lurralde-esparru jakin batean Administrazio Hidraulikoak uholde-arriskuaren kartografia zehazten ez badu, interesdunek azterketa hidraulikoak egin ahalko dituzte "Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak" jarraikiz (10. eranskinean agertzen dira). Azterketa horiek egiteko, kontuan hartutako uraldi-emariak zenbatetsiko dira. Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako bestelakorik ezean, 10. eranskinean jasotakoak hartuko dira gehieneko uraldi-emaritzat.

Ondorengo artikuluetan zehazten diren uholde-eremuak (lehentasunezko fluxua dutenak barne) erabili eta bertan jarduteko baimenetan, interesdunak eremuaren uholde-arriskua hartu beharko du kontuan uneko egoeran.

5. ULTBren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko helburuarekin, eta horrek ULTBren 6.1.b) artikuluan xedatutako polizia-eremua zabaltzea ekarri gabe, zeina, hala badagokio, Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Errege-Dekretuak (JPHE) xedatutako 9.3 artikulua bigarren paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera egin beharko baita, muga berberak ezartzen dira 37. artikulutik 40.era eta 42.etik 45.era bitartekoetan jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremutik kanpo urpean gera daitezkeen eremurako. Lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioei dagokie aipatutako mugak betetzen direla zaintzea, izan ere jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremutik eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zorgunetik kanpo urpean gera daitezkeen eremuan erabilerak eta jarduerak baimendu behar badituzte.

6. Uholde-arriskuko eremuan, bai landa-lurzoruetan, bai lurzoru urbanizatuetan, ez da onartuko mota guztietako hondakinak metatzea.

Era berean, ez dira onartuko uholde-arriskua nabarmen handitzen duten betelanak. Kasu hori ez zaie aplikatuko 57. artikuluan aurreikusitako jarduketei lotutako betelanei, horiek artikulua horretan ezarritakoaren arabera arautuko baitira.

7. Uholde-eremuan, bai landa-lurzoruaren bai lurzoru urbanizatuaren, ez da onartuko mota guztietako hondakinak pilatzea, ez eta uholde-arriskua nabarmen handitzen duten betelanak egitea ere. Uholde-eremuan (lehentasunezko fluxu-eremua barne) egiten den jarduketa orok erantzukizunpeko adierazpen bat izan beharko du, zeina administrazio eskudunaren aurrean aurkeztu behar den eta, hala badagokio, baimen-espeditorearen dokumentazioan egon beharko duen. Adierazpen horretan, higiezinaren jabeak edo titularrak argi eta garbi adierazi beharko du arriskua eta kasuan aplikatu beharreko babes zibileko neurriak ezagutzen eta bere gain hartzen dituela, eta informazio hori balizko kaltetuei helarazteko konpromisoa hartuko du, hura babesteko egokitzat jotzen dituen neurri osagarriak gorabehera. Adierazpen horrek ez du zerikusirik izango administrazio publikoetako organoek alde aurretik eman beharreko edozein baimen edo esku-hartze administratiborekin, eta, gutxienez, atal honetan ezartzen diren erabilera-mugei lotuta egongo da. Zehazki, jarduketa horiek egin aurretik, dagokionaren arabera, baimena izan beharko dute zaintza-eremuan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 78. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, edo Administrazioaren txostena, ULTBren 25.4 artikuluekin bat etorritik (salbu eta dagokion Hiri Antolamenduko Planak, hirigintza-antolamenduko beste figura batzuk edo Administrazioaren obra-planek horretarako egindako aurreikuspenen berri eman eta jaso badituzte). Erantzukizunpeko adierazpena jarduera hasi baino gutxienez *hilabete* lehenago aurkeztu beharko zaio Administrazioari, baimen-espeditore batean jasota ez badago.

8. Obrak hasi aurretik, jarduketa sustatzen duenak Jabetza Erregistroaren ziurtagiria eduki beharko du, eta bertan egiaztatuta beharko da eraikina uholde-eremuan dagoela dioen erregistro-oharra dagoela.

38. artikulua. *Lurzoruaren hirigintza-sailkapena, Plan Hidrologiko hau aplikatzeko*

Plan Hidrologiko honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako baliokidetzak hauek ezartzen dira, alde batetik, landa-lurzoruaren eta lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeren eta, bestetik, hirigintza arloko legerian definitutako hirigintza-sailkapenen artean:

a) Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 21. artikuluko "landa-lurzoru oinarritzko egoeratzat" hartuko dira udaleko hirigintza-plangintzak "urbanizaezin" gisa sailkatutako lurzoruak, "landagune" gisa sailkatutakoa izan ezik, baita "urbanizagarri" eta "hiri-lurzoru finkatugabe" gisa sailkatutakoak ere, hiri-erlaldaketarik ez dutela ikusten bada.

Aurrerantzean, araudi horri dagokionez, "landa-lurzoru" deituko zaie.

b) 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 21. artikuluko "lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeratzat" hartuko dira udalaren hirigintza-plangintzak "hiri-lurzoru finkatua" eta "hiri-lurzoru finkatugabea" kategorietan sailkatzen dituen lurzoruak, azken kasu horretan benetan urbanizatuta eta/edo eraikita badaude. "Lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran" sartuko da, halaber, "landagune" gisa sailkatutakoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aurrerantzean, araudi horri dagokionez, "lurzoru urbanizatu" deituko zaie.

39. artikulua. *Administrazioak kalteberatasuna handitzeari buruz egin beharreko baimentze- edo txosten-prozeduretan kontuan hartu beharreko irizpideak*

1. Pertsonen eta ondasun ekonomikoen segurtasuna (ganadua eta animaliak barne) zaintzearen azken eta funtsezko helburua kontuan hartuta, araudi hau aplikatzeak zaindu egingo du haien babesean egiten diren jarduerak ez dutela pertsonen edo ondasunen segurtasunaren kalteberatasuna areagotzen uraldien aurrean edo horien kausaren ondorioz, eta ez dutela inguruaren uholde-arriskua nabarmen handitzen.

2. Horretarako, sustatu nahi diren jarduketek ezin izango dute, inola ere, uholde-arriskua nabarmen handitu, eta, hori gorabehera ere, baimen-eskaerak ukatuko dira, eta kalteberatasuna areagotzea dakartenak modu negatiboan informatuko dira, salbu eta aurrez aurreikusten eta bermatzen bada aipatutako arriskua murrizteko neurriak aldeztu aurretik, edo hala badagokio, aldi berean ezarriko direla. Halaber, Administrazio Hidraulikoak ikusi beharko du jarduketa horiek sustatzen dituztenek behar bezala arrazoitu eta justifikatu dituztela.

Nolanahi ere, ez da onargarria izango bideratze berriak egitea, soil-soilik landa-lurzoruko eremuetan uholde-arriskua murrizteko helburuarekin; ordea, baimendu ahal izango dira lehendik dauden etxebizitzak, eraikinak edo azpiegiturak babesteko obra txikiak, haien funtzionaltasuna zaintzeko edo arriskua murrizteko, Plan honetan ezarritako baldintzetan.

40. artikulua. *Ondare eraikiaren erabilera eta jarduera aldatzea*

1. Araudi honi dagokionez, lehendik dauden eraikinen edo instalazioen "erabilera aldatzeko" honako jarduketa hauek bereizten dira: Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean definitutako eraikuntza berriko jarduketak, berreraikuntzakoak, handitzekoak, eraikinak ordeztzekoak, eraberritzekoak eta birgaitzekoak.

2. Ez dira aurretik dauden eraikin edo instalazioen erabilera-aldaketatzat hartuko, eta, beraz, ez dute baimenik beharko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritako erabilera bakoitzaren barruko "jarduera-aldaketak", zehazki honako erabilera hauek:

- a) Administratiboa
- b) Sanataria
- c) Erlijiosoa
- d) Bizitegi-erabilera
- e) Hezkuntza-erabilera
- f) Kulturala
- g) Aeronautikoa
- h) Nekazaritza eta abeltzaintzakoa
- i) Energia-erabilera
- j) Erabilera hidraulikoa
- k) Meatzaritza-erabilera
- l) Telekomunikazio-ingeniaritzakoa

- m) Lurreko, itsasoko, ibaiko eta aireko garraioa
- n) Baso-erabilera
- o) Industrialak
- p) Ontzigintza-erabilera
- q) Saneamendu- eta higiene-ingeniaritzakoa
- r) Ingeniaritza-obren eta horien ustiapenaren osagarria
- s) Aurrekoetan berariaz aipatu ez diren gainerako erabilera guztiak

3. Era berean, eta kalteberatasun-maila haztatzeko erabil daitezkeen beste irizpide askoren artean, erabileren beheranzko eskala bat proposatzen da: a. letratik hasi (kalteberatasun-maila handiena adierazten duena) eta h. letrara arte (arriku-maila txikiena adierazten duena). Zehazki honako hauek:

- a) Ospitaleak (ospitaleak, klinikak, egoitza geriatrikoak eta antzeko instalazioak).
- b) Irakaslea, ahultasun handiagoko adin txikiaren arabera.
- c) Babes Zibileko Zerbitzuak edo antzekoak.
- d) Bizitegi publikoa eta bizitegi-etxebizitza.
- e) Jende asko biltzea (ostalaritza-diskotekak, ikuskizun-aretoak, ikusleak dituzten kirol-zentroak edo kultura-zentroak), biztanle-pilaketa handiak gerta daitezkeen lekuetan.
- f) Etxebizitzarekin bateragarria ez den industria.
- g) Administrazioa, komertziala (gimnasioak, akademiak, ospitaleratzerik gabeko kontsulta medikoak eta ostalaritzako kirurgia – dastatzeak, tabernak eta abar – barne), industrialak, etxebizitzarekin bateragarria.
- h) Aparkalekua, sestra gaineko eraikinetan.

Erabilera horiek definitzeko, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoa beteko da.

Egin nahi den erabilera-aldaketak berekin badakar erabilera berria eskala horretan lehendik dagoenaren gainetik egotea, kalteberatasuna murrizteko neurri egokiak eta nahikoak hartu direla proiektatzen eta egiaztatzen denean baino ez dira baimenduko, plan honetan jasotako gainerako xedapenak betetzeari kalterik egin gabe. Erabilera berria eskala horretan dagoen erabilerekin azpitik badago, ez da baimenik behar.

41. artikulua. *Uren legeria eta plan hidrologikoa indarrean sartu aurretik eraikitako edo jasotako eraikin eta instalazioen erregimen juridikoa*

1. Abuztuaren 2ko Uren 29/1985 Legea 1986ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu baino lehen zeuden eraikin eta instalazioak, jabari publiko hidraulikotik eta erabilera publikoko zortasun-eremutik kanpo badaude, eraberritu eta birgaitu ahal izango dira, baina pertsonen eta ondasunen kalteberatasuna areagotzen duten erabilera-aldaketak hurrengo artikuluetan jasotako aurreikuspenetara egokituko dira, uholde-eremuei eta lehentasunezko fluxuei egiten baitiete erreferentzia.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren barruan dauden lehendik dauden eraikin eta instalazioei dagokienez, horiek eraisteko eta desagertzeko epean esku hartzea aurreikusten ez bada, ezin izango da inola ere haien

sendotzea edo balioa handitzea ekar dezakeen jarduketarik egin. Planeamenduak antolamenduz kanpokotzat joko ditu eraikin eta instalazio horiek.

3. Plan Hidrologiko hau indarrean sartzean dauden eraikinen eta instalazioen kasuan, Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legea indarrean jarri ondoren eraiki diren eta Administrazio Hidraulikoaren nahitaezko baimenik ez duten eraikin eta instalazioen kasuan, edo dagokion Hiri Antolamenduko Planean edo aipatutako administrazioaren txostena jasotzen duen hirigintza-antolamenduko beste figura batzuetan sartuta ez daudenen kasuan, konponketa- edo birgaitze-obretarako edo erabilera-aldaketetarako baimena eskatzen denean, eraikuntza osoa aztertuko da, egungo araudiaz gain, lehendik zegoen eraikuntza egikaritu zenean indarrean zegoen legeria ere kontuan hartuta.

42. artikulua. *Erabilera-mugak lehentasunezko fluxu-eremuko landa-lurzoruan*

1. Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, lehentasunezko fluxu-eremuko landa-lurzoruetan, 2016ko abenduaren 30ean, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duen abenduaren 9ko 638/2016 Errege Dekretua indarrean sartu zenean, eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9.bis) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez da onartuko eraikin edo instalazio berririk instalatzea, zehazki, honako hauek:

a) Herrestatzearen, diluzioaren edo iragazketaren ondorioz gizakien osasunarentzat eta ingurunearentzat (lurzorua, ura, landaredia edo fauna) kaltegarriak izan daitezkeen produktuak biltegitatu, eraldatu, manipulatu, sortu edo isurtzen dituzten instalazioak, bereziki, erregaia hornitzeko estazioak, araztegi industrialak, hondakin-biltegiak, eta tentsio ertaineko eta altuko instalazio elektrikoak.

b) Ikastetxeak edo osasun-etxeak, adinekoren edo desgaitasuna duten pertsonen egoitzak, biztanle-pilaketa handiak gerta daitezkeen kirol-zentroak edo merkataritza-gune handiak; edo suhiltzaile-etxeak, espetxeak, Babes Zibileko zerbitzuen instalazioak.

c) Lehendik dauden eraikinen oinplano-okupazioa edo eraikuntzaren ingurutzailerearen bolumena handitzea dakarten konponketa- edo birgaitze-obrak. Murrizketa hori ez zaie aplikatuko irisgarritasuna edo energia-eraginkortasuna hobetzeko beharrezkoak diren handitzeei.

d) Uholdeen aurrean pertsonen edo ondasunen segurtasunaren urrakortasuna areagotzen duten erabilera-aldaketak.

e) Lurpeko garajeak, sotoak eta sestra azpiko edozein eraikin, eta ibilgailuentzako lur gaineko aparkalekuen instalazio iraunkorrak.

f) Kanpaldiak, kanpinetan eta lotutako erabilerako eraikinetan ostatu hartzeko guneak.

g) Ibilguarekiko paralelismora zuzendutako azpiegitura linealak, saneamendukoak, hornidurakoak eta lurpeko beste kanalizazio batzuetakoak izan ezik.

h) Hiriko hondakin-uren araztegiak, ordezeko kokapen bideragarriak ez dagoela egiaztatzen den kasuetan izan ezik, eta, nolahi ere, jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremutik kanpo kokatu beharko dira. Debeku horretatik salbuetsita daude lehendik daudenak kontserbatzeko, hobetzeko eta babesteko obrak.

i) Ibilguarekiko paralelismora zuzendutako azpiegitura linealak, saneamendukoak, hornidurakoak eta lurpeko beste kanalizazio batzuetakoak izan ezik, horiek jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremutik kanpo kokatu beharko baitira.

j) Berotegiak, itxiturak eta iragazkorak ez diren hesiak, hala nola edozein motatako fabrikako horma-itxitura estankoak.

k) Nekazaritzako Ustiatgien Erregistro Orokorrean sartuta egon behar duten abeltegiak eta haztegiak.

l) Lursailaren sestra aldatzen duten eta husteko ahalmena nabarmen murrizten duten betelanak.

m) Herrestan eraman daitezkeen edo jabari publiko hidraulikoa narriatu dezaketen materialak pilatzea edo mota guztietako hondakinak biltegiatzea.

2. Nolanahi ere, uraren erabilera tradizionalari lotutako eraikuntza bereziak (besteak beste, ikuztegiak eta errota) kontserbatu eta zaharberitu ahal izango dira, bai eta ondare kulturalaren edo historiko-artistikoaren legeriaren arabera babestutakoak ere, baldin eta kalteberatasuna areagotzen ez badute edo uholde-arriskua nabarmen handitzen ez badute, *betiere erabilera tradizionalari eusten bazaio eta, inola ere, erabilera aldatzeko aukerarik ematen ez bada, museo izateko egokitzea izan ezik.*

43. artikulua. *Erabilera-mugak lehenetsuzko fluxu-eremuko lurzoru urbanizatuan*

Lurzoru urbanizatuan, 2016ko abenduaren 30ean, abenduaren 9ko 638/2016 Errege Dekretua (JPHEren 9.ter artikulua arabera aldatzen zuena) indarrean sartu zenean, edo aipatutako dataren ondoren, baldin eta Administrazio Hidraulikoak behar bezala informatutako plangintzaren arabera eraldatu bada, honako hauek egin ahalko dira: eraikin berriak, konponketa- edo birgaitze-obrak (baldin eta oinplanoan okupazioa edo lehendik dauden eraikinen bolumena handitzea badakarte), erabilera-aldaketak, lurpeko garajeak, sotoak eta sestrapeko edozein eraikin eta lur gaineko ibilgailuak aparkatzeko instalazio iraunkorrak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Pertsonak edo ondasunak uholdeen aurrean duten segurtasunaren kalteberatasuna ez areagotzea, arrisku hori kontuan hartuta diseinatu baitira.

b) Inguruaren uholde-arriskua nabarmen ez handitzea, eta lurzoru urbanizatuak uholdeen aurka babesteko jarduketak posibleak ez baldintzatzea. Uholde-arriskua nabarmen handitzen dela ulertuko da, baldin eta azterketa hidrologiko eta hidraulikoetatik lortutako informaziotik abiatuta (beharrezkoa izanez gero, baimentzeko eskatzen badira eta aurreikusitako jarduketaren aurretiko eta ondorengo egoera definitzen badute), ondorioztatzen bada uholde-eremua handitu egiten dela pertsonen eta ondasunen segurtasunerako oso kalteberak diren lekuetan.

c) Ez izatea herrestatzearen, diluzioaren edo iragazketaren ondorioz gizakien osasunarentzat eta ingurunearentzat (lurzorua, ura, landaredia edo fauna) kaltegarriak izan daitezkeen produktuak biltegitatu, eraldatu, manipulatu, sortu edo isurtzen dituzten instalazioak, bereziki, erregaia hornitzeko estazioak, araztegi industrialak, hondakin-biltegiak, eta tentsio ertaineko eta altuko instalazio elektrikoak.

d) Ez izatea ikastetxe edo osasun-zentro berriak, adinekoren edo desgaitasuna duten pertsonen egoitzak, jende-pilaketa handiak gerta daitezkeen kirol-zentroak edo merkataritza-gune handiak.

e) Kanpin-eremu berriak, kanpinetan ostatu hartzeko guneak eta horiei lotutako erabilerako eraikinak ez izatea.

f) Ez izatea suhiltzaile-etxe, espetxe edo Babes Zibileko zerbitzuen instalazio berriak.

g) Bizitegi-izaerako eraikin berriak diseinatzeko, aintzat hartuko dira dagoen uholde-arriskua eta -mota, eta *bizitegi-erabilera berriak* 500 urteko errepikatze-denborako uholdeak eragiten ez dien kotan jarriko dira. Lurpeko garajeak eta sotoak eduki ahal izango dituzte, baldin eta esparruaren estankotasuna bermatzen bada 500 urteko errepikatze-denborako uholdeetarako, eta eraikinak ez kolapsatzeko azterketa espezifikoa egiten badira. Hori guztia egiteko, aintzat hartuko dira garraiatutako zama solidoa eta, gainera, uholde horren kotaren gainetik arnasbideak eta ebakuazio-bideak dituztela. Aintzat hartu beharko da, ahal den neurrian, uholdeen ondoriozko larrialdi-egoeretan duten irisgarritasuna.

44. artikulua. *Uholde-arriskua duten udalerrriak, beren lurraldearen morfologiak hirigintza-eskakizunak konpontzea eragozten edo zailtzen badu*

1. Udalerrietako lurzoru urbanizatueta, udalaren hirigintza-plangintza orokorrak edo bereziak *ad hoc* erregimen bat proposatu eta ezarri ahal izango du, berariaz baimenduta eta alde aurretik Administrazio Hidraulikoarekin adostuta, arrazoizko irtenbide bat definitzeko, baldin eta haien lurraldearen morfologiak eta lehentasunezko fluxu-eremuen kokapenak lurzoru horien hirigintza-garapena eragozten edo zailtzen badute. Irtenbide horrek erantzun egin beharko die, ahal den neurrian, interes orokorraren eta JPHEren xedapenen arabera, hirigintza-errekerimenduei, eta uholde-arriskuen aurrean pertsonen eta ondasunen segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeari.

2. Alde horretatik, lehentasunezkoztat jotzen da uholde-eremuek erabat edo partzialki kaltetutako hirigune historikoetan eta monumentu-multzoetan muga eta baldintzapean hidraulikoak egokitzeko ekintza berezi hau.

45. artikulua. *Erabilera-mugak gainerako uholde-eremuetan*

1. Eraikinak diseinatzeko, aintzat hartuko dira dagoen uholde-arriskua eta -mota, eta bizitegi-erabilera berriak 500 urteko errepikatze-denborako uholdeak eragiten ez dien kotan jarriko dira. Lurpeko garajeak eta sotoak eduki ahal izango dituzte, betiere esparruaren estankotasuna bermatzen bada 500 urteko errepikatze-denborako uholdeetarako, eta eraikinak ez kolapsatzeko azterketa espezifikoa egiten badira.

Hori guztia egiteko, aintzat hartuko dira garraiatutako zama solidoa eta, gainera, uholde horren kotaren gainetik arnasbideak eta ebakuazio-bideak dituztela. Aintzat hartu beharko da uholdeen ondoriozko larrialdi-egoeretan duten irisgarritasuna.

2. Uholde-eremuan dauden landa-lurzoru horietan, 100 urteko errepikatze-denborako uholdeak sortzen duen mugararte, ezin izango dira baimendu lehentasunezko fluxu-eremuan landa-lurzoruan baimendu gabeko eraikin, instalazio eta erabilerak, araudi honen arabera, berotegiak, itxiturak eta hesiak izan ezik, azken bi horiek iragazkorrak badira.

3. Uholde-eremuan kokatutako lurzoru urbanizatueta, onargarriak izango dira eraikuntza-ingurutzaileren, zerbitzu edo ekipamendu sentikorren edo funtsezko azpiegitura publikoen, suhiltzaile-parkeen eta Babes Zibileko zerbitzuen instalazioen azalera edo bolumena handitzen duten konponketa- edo birgaitze-obrak, edo antzekoak, baldin eta uholdeen aurrean pertsonen edo ondasunen segurtasunaren kalteberatasuna murrizten dela bermatzen bada edo gehikuntza horren helburua haien irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, bizigarritasuna, funtzionaltasuna edo segurtasuna bermatzea bada.

4. Era berean, 100 urteko errepikatze-denborako uholde-eremuko lurzoru urbanizatueta, ez da onartuko zerbitzu edo ekipamendu sentikorren establezimendu berririk edo funtsezko azpiegitura publikorik, kanpaldirik, ostatu-eremurik, kanpinik eta haiei lotutako erabilerarako eraikinik, suhiltzaile-parkerik eta Babes Zibileko zerbitzuen instalaziorik edo antzekorik.

46. artikulua. *Uholdeen aurreko babes-neurriak*

1. Lurzoru urbanizatueta, pertsonak eta ondasunak babesteko egiturazko babes-ekintzak gauzatu behar direnean, Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak herri horretarako ezarritakoa izango da babes-maila. Alderdi hori aurreikusita ez badago, eta, oro har, hirigunea gutxienez 100 urteko errepikatze-denborako uholde-eremutik kanpo uzteko moduko ubideratzea diseinatuko da.

2. Landa-lurzoruetan, Administrazio Hidraulikoak diseinatutako edo baliozkotutako konponbide teknikoak lurzoru urbanizatueta babesteko hala eskatzen duenean, jarduketa horiek 100 urteko errepikatze-denborako uholde-eremuan kokatzea baimendu ahal izango da, betiere hartuko diren neurriek uholdeen aurreko babesa bermatzen badute eta, hala badagokie, berariaz jaso badute Administrazio Hidraulikoaren aldeko iritzia. Horrek ez du halabeharrez eragingo lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren instrumentuek aurreikustea lur horiek landa-lurzoruko oinarritzko egoeratik lurzoru urbanizatu egoerara aldatzea.

3. *Presen eta urtegien inguruko araudiak ezarritako epeetan, A eta B kategorietako presen titularrek ustiapen-arauak berrikusi beharko dituzte (eta presen eta urtegien segurtasunaren arloko agintari eskudunek onetsita izan beharko dituzte), aintzat hartuta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan indarrean dagoen Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.*

47. artikulua. Zubiak, estaldurak eta defentsarako egiturazko neurriak diseinatzeko eta ibilguen ibilbidea aldatzeko arau espezifikoak

1. Hiri-eremu batean zubi berri bat eraikitzeko, oro har, lehentasunezko fluxu-eremua libre utzi behar da. 30 m-ko argiraino, bao bakarra izango du. Argi handiagoetarako, 25 m-tik gorako argia izango duen bao bat izango du, eta 6 m-tik gorako argia izango duen beste bat edo bi. Tarte zuzenetan, 25 m-tik gorako baoa erdian kokatuko da, eta, tarte kurbatuetan, kurbaren kanpoaldean. Uraren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 500 urteko errepikatze-denborako uholderako, edo, gutxienez, isurbidearen galiboaren eraginetarako gunerik kaltegarrienean, haren argiaren % 2,5ekoa.

Zubi bat ordezkatzeko eskatzen duten ekintzetan edo aipatutako azpiegituretan handitzeak egiten direnean zein horien egitura aldatu behar denean, inguruko urbanizazio-baldintzen ondorioz ezinezkoa bada babesei buruz aipatu diren baldintzak betetzea, jarduera horiek dagoen uholde-arriskua nabarmenki murrizten dutela bermatu beharko da.

2. Landa-eremutik igarotzen diren komunikazio-azpiegituretarako zubiek, argiek eta baoen banaketak 1. ataleko lehenengo paragrafoan zehaztutakoa beteko dute, eta uraren azalera libretik taularen azpialderainoko babesa 11. eranskineko taulan agertzen diren datuen artean tartekatzearen emaitzaren arabera izango da 500 urteko errepikatze-denborako uholderako. Euskarriak, estribuak eta pilareak faunarentzako iragazkortasuna bermatuz egin beharko dira, eta, ahal den neurrian, jabari publiko hidraulikoaren zortasuneko 5 metroak errespetatuz.

3. Landa-eremuan, auzo-bideetako, errepideetako eta bideetako zubien eraikuntzek, baita ibilgailuen trafikoko intentsitate baxuko beste azpiegitura batzuen (adibidez, bizikleta-bideak) eraikuntzek hustubide-ahalmen handiagoa izango dute ibaian gora eta ibaian behera ondo-ondoan dauden tarteek baino, eta horrek ez du ibilguaren zabalera modu hautemangarrian murriztuko. 30 m-ko argiraino, ibilgua bao bakarraz gaindituko da. Argi handiagoetarako, 25 m-ko bao bat eta 6 m-tik gorako argia duen beste bat edo beste bi egongo dira. Taularen behealde aldameneko lurren gainetik 25 cm-ra geratuko da, sarbidea ez bezala. Izan ere, sarbidea zubiaren inguruetaraino, lurren mailan ezarriko da, bidea zubia baino lehen urpetu dadin.

4. Uholdeek hiri-eremu bati eragiten diotenean, eremu horretako ibaian beheko edozein zubiren eraikuntza baimentzeko nahitaez egin beharko da eremuaren gaineko eraginak jasoko dituen azterlan orokor bat.

5. Irizpide orokor gisa, ez da baimenduko 0,5 km²-tik gorako arro drainatzailea duten ibai tarteetan estaldurarik egitea. Zifra horretatik beheko arro isurleko azalera duten ibilguetan, era berean, saihestu egingo dira bideratze estaliak solidoen eta flotatzaileen herrestatzeak aurreikusten direnean, horiek nabarmenki saihestezinak badira izan ezik. Halakoetan, ezin saihesti hori behar bezala justifikatu beharko da.

Salbuespen gisa, 1 km²-era bitarteko arroetan ibilguak estaltzea baimendu ahal izango da azpiegitura estrategikoen kasuetan eta oso urbanizatuta dauden eremuetako arro-buruen kasu berezietan, ingurumenaren aldetik hain erasotzailea ez den eta arrisku txikiagoa izango duen beste aukera

bideragarririk ez dagoela aurretiaz justifikatu ondoren. Halakoetan, sekzioa bisitagarria izango da, eta, gutxienez, 2 m-ko altuera eta 2 m-ko zabalera izango du.

6. Oro har, debekatuta dago 1 km²-tik gorako arro isurlea duten ibilguen trazadura aldatzea, salbu eta beharrezkoa bada jendea bizi den eremuetako uholde-arriskua murrizteko, dagokion Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean jasotzen bada edo ibilguaren naturaltasuna handitzeko egiten bada. Edonola ere, 1 km baino gutxiagoko arroa duten uraren ibilguen alterazioak exijitu egingo du ekintza justifikatzen duten alternatiben azterlanak egitea, baita prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurri egokiak hartzea ere.

7. Salbuespen gisa, 2 km²-rainoko arro isurleko ur-ibilguak aldatzea baimendu ahal izango da, azpiegitura estrategikoetarako eta udalaz gaindiko interesa duten hirigintza-jardueretarako; baldin eta Administrazio Hidraulikoaren aldeko txostena izan duten lurralde-antolamenduko tresnetan halakotzat jasota badaude. Aurreko kasuetan, jarduera justifikatuko duen eta esku-hartzeak ingurumenean, esparru hidraulikoan eta hirigintza-arloan dituen eraginak ebaluatuko dituen alternatiben azterlan bat egitea eskatu ahal izango da. Alternatiben azterlan horretan, kasuan kasu ematen den baimenean jaso beharreko nahitaezko prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatu beharko dira.

48. artikulua. *Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikabideak drainatzea*

1. Hirigintza-garapen berriek zoladuraren edo okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa murriztu beharko dute behar-beharrezkoa den azaleretara, eta drainatze jasangarriko sistemak sartu beharko dituzte (zoladura iragazkorren, tankeen edo ekaitzetarako gailuen erabilera, etab.), aurreko egoerari dagokion balioarekiko balizko jariatze-ura konpentsatu daitekeela edo garrantzirik gabea dela bermatzeko; halaber, sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusitako beharko dute. Oro har, espaloietan, gainazal iragazkorraren gutxieneko ehunekoa % 20koa izango da, eta hiriguneetako plazetan eta berdeguneetan, berriz, % 35koa. Edonola ere, urbanizazio-proiektuek urbanizatzeke dagoen lurzoruko espazio libreen akabera iragazkorren ehunekoa adierazi beharko dute.

2. Arroaren ezaugarriak direla-eta beharrezkotzat jotzen bada, gainazal bat iragazgaitzak/urbanizatzeak jariatze batean eragin lezakeen areagotzea ez dela garrantzizkoa justifikatuko duen azterlan hidrologiko-hidraulikoa egitea eskatu ahal izango da. Azterlan hori eskatu ahal izango da, betiere, jarduera berriaren azalera arroaren guztizko azalaren % 25 hartzen duenean, gutxienez.

3. Ibilgailuen zirkulazio-plataformak garbitzeko urak Jabari Publiko Hidraulikoaren edo Itsasoko Jabari Publikoaren (HJDP) gainetik husten dituzten garraio-azpiegituren drainatze-lerroetan, isuri aurretiko kutsadura minimizatzeke sistemak aurreikusitako dira.

49. artikulua. *Lehorteetan aplikatu beharreko neurriak eta jarduerak*

Administrazio eskudunak luzaroko lehorte-agertokia diagnostikatzen badu, dagokion Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian jasotako "Luzaroko lehorte-agertokian aplikatu beharreko jarduerak" gauzatuko dira.

Era berean, behin-behineko eskasia-egoerei aurre egiteko, plan berezi horretan bertan jasotako neurriak aplikatuko dira, finkatzen diren agertokien arabera.

VI. atala. Ur-masen egoera babesteari buruzko neurriak

50. artikulua. Jabari publiko hidraulikoan isurtzeko baimenak

1. JPHEren 245.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, isurketa baimentzearen xedea izango da ezarritako ingurumen-helburuak lortzea. Isurtze-baimenak emateko, aintzat hartuko dira momentuan merkatuan dauden teknologia onenak, baita ingurumen-arloko kalitate-arauak eta uren inguruko araudian ezarritako isurtze-mugak ere. Isurtzeko baldintza zorrotzagoak ezarriko dira ingurumen-helburuak lortzeko beharrezkoak direnean.

2. Eskatutako isurketaren ibaian beheko inguru hartzailean, 12. eranskinean jasotako erreferentziako balioen eta IKAen betearazpenaren aurreikuspena egiteko, dagoen teknologia onenari lotutako substantzien kontzentrazioak eta urteko zama kutsatzailerik handienean astean isuritako eguneko batez besteko bolumena erabiliko dira. Inguru hartzaileari dagokionez, ondorengo kasu hauek bereizten dira:

a) *Ibaira isurtzea*: ur txikien aldiko gutxieneko emari ekologikoa erabiliko da, normaltasun hidrologikoko baldintzetakoa. Aurrekoa betearazteko, 817/2015 Errege Dekretuak ezarritako balioak eta 12. eranskinean adierazitako erreferentziako balioak erabiliko dira. Era berean, ur-masa ez narriatzeko printzipioa kontuan hartuko da bere egoera “oso ona” bada, eta aintzat hartuko da, era berean, isuriak isuritik ibaian behera kokatutako eremu babestuetan baldintza osagarrien betearazpenean izan lezakeen eragina.

Ur-masatzat jotzen ez diren azaleko uretan egindako eta 400/2013 EDa indarrean sartu zenean existitzen ziren jardueretatik datozen isurketak baimendu ahal izango dira (edo berrikusi, hala badagokie), baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badira:

- Arazteko azpiegitura berriak izatea, dauden teknika onenak aplikatuta zama kutsatzailea murrizten dutenak.
- Isurketek bat egiten duten ur-masan ingurumen-helburuak eta IKAk betetzen dituztela bermatzen duten baldintzetan egitea.
- Ur-masatzat jotzen ez diren kostaldeko ibaien kasuan, bermatu behar da kostaldeko zein tarteko ur-masarekin bat egiten duten puntuan IKAk betetzen direla, baita masa horretarako ezarritako ingurumen-helburuak betetzen direla ere.

Era berean, baimendu ahalko dira (edo berrikusi, hala badagokie), 400/2013 EDa indarrean sartu zenean existitzen ziren jardueretatik datozen isurketak ibai-kategoriako ur-masetan, 12. eranskinean jasotako erreferentzia-balioak gainditzea sor dezaketenak, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Substantzia arriskutsuen IKAk (817/2015 Errege Dekretua) betetzea isurketaren ibaian beheko inguru hartzailean.

- Arazketa-instalazioek erabilgarri dauden teknikarik onenak aplikatuz zama kutsatzailea murriztea eta isurketa kudeatzeko beste aukerak kaltegarriagoak izatea Administrazio Hidraulikoaren iritzian.
 - Isurtze-gunetik ibaian behera dagoen eta ur-masaren egoera islatzen duen jarraipen-estazioan 12. eranskinean adierazitako erreferentziatzko balioak betetzea.
- b) *Aintzira edo urtegiatara isurtzea*: eskatzaileari exijituko zaio isuria jasoko duen ur-masan ingurumen-helburuak betetzen direla justifikatzen duen azterlan bat aurkezteko, eta zehazki, 817/2015 Errege Dekretuan substantzia jakin batzuetarako ezarritako balioak eta 12. eranskinean ezarritako erreferentziatzko balioak betetzen direla, baita lakurako edo urtegirako ezarritako baldintza osagarriak betetzen direla ere, eremu babestu izendatu badute.
- c) *Lurpeko uretara isurtzea*: isurketetan dauden substantzia arriskutsuen kontzentrazioak IKAk eta 3.2 eranskinean ezarritako atalase-balioak baino baxuagoak izan behar dira, bai lurpeko uretara zuzenean isurtzen diren isurketetan, bai lurzoruko iragazketen bidez egiten diren zeharkako isurketetan. Era berean, babes-eremu izendatu badute, ur-masarako ezarritako baldintza osagarriak ere exijituko dira. Lehentasunezko substantzia arriskutsuei dagokienez, debekatuta dago substantzia horiek lurpeko uretara zuzenean isurtzea.
3. Administrazio Hidraulikoak jabari publiko hidraulikoko isurtze-emia erregulatzeko betebeharra ezarri ahalko du, ingurumen-helburuak eta IKAk uneoro beteko direla ziurtatzeko.
4. Isuriaren eremu hartzailerako ezarritako ingurumen-helburuak eta IKAk betetzen direla egiaztatzerakoan, isuria banaka nahiz gainerako isuriekin batera izan beharko da kontuan.
5. Isurtze-baimena berrikusteko beharra baloratzeko, ur-masa batean baimendutako isurketa guztien multzoa hartuko da aintzat, baita horretan kalitate-helburuen betetze-maila ere.
6. Drainatzeko hiri- edo industria-azpiegituren bidez jasotzen diren eta jabari publiko hidraulikoa kutsa lezaketen eurien jariatze-urak hondakin-urak dira, eta Administrazio Hidraulikoaren aurrean isurtze-baimenaren prozedura aplikatu beharko zaie. Bertan, kontuan hartuko dira jasotako uren bolumena eta, ondorioz, inguru hartzailera isurtzen den zama kutsatzailea jatorrian murrizteko prebentzio-neurriak.
7. ULTBren 104.1 artikuluan eta JPHEren 261. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenak berrikusi ahal izango ditu, isurketek Plan Hidrologiko honetan ezarritako ingurumen-helburuak bete ditzatela exijitzeko. Horren harira, isurtze-baimena berrikusteko prozeduran, merkatuan eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea kontuan hartuko da, baita uraren erabilera eraginkorrena ere.

51. artikulua. *Hiriko isurketak*

1. Familia bakarreko etxebizitzetan sortutako etxeke urek, baldin eta ezin badira estolda-sare publikora batu eta etxebizitza dagoen partzelako lurzorura iragazten badira hirugarrenei eragin gabe eta dekantazio-digestio prozesu baten ostean, ez dute ULTBren 100. artikulua aipatzen duen

isurtze-baimenik beharko. Etxebizitzako titularrak Administrazio Hidraulikoari jakinarazi beharko dio dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, eta horrek ez dio kentzen beharrezko edozein baimen lortzeko aukera, kasuan kasuko jardueraren edo instalazioaren beste lege batzuen arabera.

2. Oro har, 2.000 bizilagun baliokide baino gutxiagoko hiriko hondakin-uren edo antzekoen arazketarako azpiegiturak diseinatzeko, aintzat hartuko dira 13. eranskineko irizpideak, zeinak eskuragarri dagoen teknologia onentzat hartuko diren.

52. artikulua. *Hiri-saneamenduko sistema orokorrak*

1. Orokorrean, hiri-eremuetako isurketak (isolatuta dauden hiriguneetakoak, industria-eremuetakoak, industrietakoak edo hiri-hondakinen biltegietakoak barne) autonomia erkidegoetako, tokiko edo horien mendeko entitateek kudeatutako arazketa-sistemen instalazioekin konektatu beharko dira, salbu beren ezaugarri biodegradagarrien ondorioz ezin badira onartu edo modu egokian justifikatzen bada ezin direla konektatu.

2. Eskatzaileak bere isurketak existitzen den saneamendu-sare batera isuri nahi baditu, saneamenduaren kudeatzailearen txosten bat beharko du, non egiaztatu beharko den proposatutako konexioa eremuan dagoen saneamendu-irtenbidearekin bateragarria dela, eta konexiorako puntu egokia zehaztu beharko da.

3. Industria-isuriaren aurreko tratamenduari dagokionez, substantzia arriskutsuekin egiten bada eta isuriak saneamendu-sistema orokorrera zuzenean edo zeharka sartzen badira, azkenean HUAren bitartez inguru hartzaileira iristen den masa-zama ezin izango da izan industriak isuri araztua erabilgarri dauden teknikarik onenak erabiliz zuzenean jabari publiko hidraulikora isuri izan balu iritsiko zatekeena baino handiagoa.

4. Hondakin-uren araztegiaren (HUA) akats baten ondorioz ibaian kalte handiak sor litezkeela aurreikusten bada, arazketa-lineen kopurua areagotzeko baldintza ezarri ahal izango da. Baldintza hori aplikatuko da, era berean, bilketa-sistemako hondakin-uren ponpaketetarako. Nolanahi ere, 10.000 biztanle baliokide baino gehiagoko hiri-aglomerazioen kasuan eta isurtze-emia normaltasun hidrologikoko baldintzetan ur txikien aldiko gutxieneko emari ekologikoaren % 20koa baino gehiagokoa denean, dagokionaren arabera, bi arazketa- edo ponpaketa-linea instalatu beharko dira gutxienez.

5. 2.000 biztanle baliokide baino gehiagoko hiri-aglomerazioen hondakin-uren araztegiaren kasuan, Administrazio Hidraulikoak instalazioen funtzionamendua eta efluentearen kalitatea etengabe kontrolatzeko sistemak ezar daitezela exijitu ahalko du. Halaber, trataerako efluentearen jabari publiko hidraulikorako isurketen emariari eta kalitateari eta garrantzitsutzat jotzen dituen saneamendu sistemaren gainezkatze-puntuei buruzko datuen seinale digitala urrutitik jasotzeko ere exijitu ahalko du.

6. Isurtze-baimenaren eskaera baino lehen, sustatzaileak Administrazio Hidraulikoaren aurrean aurreproiektu bat aurkeztu ahalko du saneamendu- eta arazte-azpiegitura orokorren xehetasunekin. Dokumentazio horretan oinarrituta, Administrazio Hidraulikoak hasierako ebaluazioa egingo du aurreproiektuak inguru hartzailearen ingurumen-helburuak eta IKAk eta isuriaren jario-mailak betetzen dituen azalduz, eta, hala badagokio, eskatzaileari eskatuko zaio isurtzeko baimen-eskaerari eransteko prestatzen duen proiektuan aldaketa egokiak egin ditzala.

7. Eurialdietatik datozen gainezkatzeei dagokienez, isurketaren deklarazioak JPHEren 246.2.e') eta 246.3.c) artikuluetan ezarritakoa jaso behar du, baita 259.ter.1 artikuluan jasotako irizpideak kontuan izan ere. Era berean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 259.ter.3 artikuluan aipatzen diren arau teknikoak garatzen ez dituen bitartean, honako irizpide hau beteko da: berariazko azterlanik ezean, saneamendu-sistema bateratzaileetako huste-gailuetatik ibaian behera kokatutako hodi biltzaileen edukiera 20 litro/segundokoa izango da gutxienez, 1.000 biztanleko.

8. Dauden gainezka bideei dagokienez, JPHEren 251.1.j artikuluan zehaztutakoa aplikatuko da. Horretarako, titularrak kutsadura murrizteko programa bat aurkeztu beharko du gainezkatzeak pixkanaka indarreko araudira molda daitezen, exijitutako dokumentazioa aurkeztuz eta betearazpen-epeak adierazita.

53. artikulua. *Industrietatik eta industria-eremuetatik datozen isurketak*

1. Industria baten isurtze-espeditentean beste industria baten hondakin-uren fluxua sar daiteke, lehenengoaren azpiegituretan biak batera arazteko, baldin eta fluxu hori bere gain hartu eta isurtze-aitorpenean jaso badu.

2. Bi industriaren edo gehiagoren isurketak efluente araztuak husteko eroanbide komunean bateratu daitezke, ingurune hartzailerako azken isurtze-puntu bakarra izanez. Kasu horretan, Administrazioak isurtze-elkartzeak eratzea behartu dezake, JPHEren 253. artikulua araberan, edo industria bakoitzari isurtze-baimen bat eman ahal dio, bere arazketa-azpiegitura propioekin eta gainerako industrietatik aparte dagoen isurketen kontrol puntu batekin. Elementu horiek aipatutako hustuketako eroanbide komunaren isurketa isurtzen den puntutik ibaian gora kokatuko dira, Administrazio Hidraulikoko langileek oro har eskura izan ditzaten.

3. Irekitako zirkuituan hoztutako ur-isuriaren tenperatura 30 °C-ra mugatzen da. Zirkuitu itxiko hozte uren purgatzeak JPHEren IV. eranskinaren a) apartatuan sartutakotzat jotzen dira.

4. Sistema irekiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamendu-sistemek isurtze-baimena izan beharko dute, eragin lezaketen kutsadura termikoagatik eta lurpeko uretan izan litzaketen bestelako eragin fisiko-kimikoengatik. Gainera, 35. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira.

5. Arrain-haztegien eta ur hoztuen isuriek industria-jardueraren bereizgarritzat jotzen ez diren kutsadura-parametroak izan ahalko dituzte, baldin eta titularrak egiaztatzen badu parametro horiek dagoeneko hartunean badaudela eta isurian ez dela horien kontzentrazioa nabarmenki areagotzen.

Beren hartunea duten instalazio industrialek aurreko baldintza aplikatu ahalko dute, baldin eta titularrak txosten espezifiko batean justifikatzen badu.

6. Xukatze-uren eta lurren mugimendurako isuriak dagokien bezala tratatu beharko dira inguru hartzailearen IKAk eta erreferentziako balioak bete ditzaten, substantzia kutsatzaileak isuria eragiten duen jarduera baino lehenagokoak diren edo ez alde batera utzita. Tratamendu bera emango zaie meatzea ustiatzeko fasea bukatu ondoren meatze-zuloak urez betetzearen ondoriozko isurketei, baita itxitako hondakinen biltegietatik eta itxiera-fasearen ondorengo industria-eremuetatik datozenei ere.

7. Eurien jariatze-urak, 50.6. artikuluan aipatzen direnak, industria-jarduera baten ondorioz nabarmenki kutsatzen badute, industriako hondakin-urtzat joko dira, JPHEren IV. eranskinaren arabera dagokion industria-jarduerarenak, hain zuzen.

8. Inguru hartzailean ezusteko jarioak eragin litzaketen substantzia kutsatzaileak biltegitratzen dituzten industrietan jabari publiko hidraulikoa kutsatzea galarazteko biltegi egokiak edo oztopo fisikoak izan beharko dituzte. Biltegi horiek ezin izango dute hondoko hustubiderik izan.

9. Lehentasunezko konponbidetzat joko da hondakin-ur mota bakoitzeko segregazioa eta kontrol independentea, isurketak diluitzea ekiditeko, JPHEren 251.1.b.3 artikulua arabera.

54. artikulua. *Isurketen inguruko neurri osagarriak aplikatzea*

1. Eremu sentikorretan eta horien arro isurleetan ingurumen-helburuak bete ahal izateko, Administrazio Hidraulikoak 10.000 biztanle baliokidetik beherako populazioak zerbitzatzen dituzten hondakin-uren araztegien isurtze-baimenaren titularrei exijitu ahal izango die mantenugaiak (nitrogenoa edo fosforoa edo biak) araztu eta ezabatzeko neurri gehigarriak har ditzatela.

2. Ingurune hartzaileko ingurumen-helburuak lortzea arriskuan jar litekeen kasuetan, Administrazio Hidraulikoak, aldi batean, oro har eskatutakoak baino arazketa-errendimendu handiagoak edo mantenugaien ezabatze gehigarria (nitrogenoa, fosforoa edo biak) edota bata eta bestea eskatu ahal izango ditu.

3. Ur-masa batean egoera ona lortzea arriskuan jartzen bada isurketen ondorioz, legez kanpoko isurketen kasuan egin behar dena gorabehera, Administrazio Hidraulikoak honako neurri osagarri hauek aplikatu ahal izango ditu:

a) JPHEren 247.2 artikuluan eta lehorretik itsasorako isurketen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, isurtze-baimen berriak ukatzea, bai eraginpeko masarako, bai ibaian gora kokatutako kasuan kasuko masetarako.

b) JPHEren 261. artikuluan eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren arabera, isurtze-baimena berrikustea edota, hala badagokio, isurtze-baimenaren titularrari ohartaraztea Administrazioak berori baliogabetzeko alde bakarreko erabakia hartuko duela (inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe), baimen hori plangintza hidrologikoaren helburuekin bateraezina bada, baimenean emandako epea amaitu ondoren.

c) Isurtze-elkarteak eratzeko errekerimendua egitea, ULTBren 90. artikuluan eta JPHEren 253.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Ingurune hartzailean presio esanguratsua egin dezaketen isurketetan, efluentearen ezaugarri kuantitatiboak eta kualitatiboak buruzko etengabeko informazioa izateko eta ibaian behera ingurune hartzailearen kalitateak izan dezakeen arriskua minimizatzeke, titularrari eskatu ahal izango zaio kalitate-parametro eta emari jakin batzuk etengabe kontrolatzeko, eta lortutako datuak administrazio hidraulikora denbora errealean transmititzeko, bai tratamenduaren efluentearenak, bai gainezkatze-puntu eta bypass adierazgarrienak. Oro har, ingurune hartzailean presio esanguratsua egin dezaketen isurketetzat hartuko dira 2.000 h-tik gorako karga kutsatzailea duten hiri-izaerakoak eta ingurumen-baimen integratua behar

duten industria izaerakoak. Nolanahi ere, ur-masa hartzailearen egoeraren eta haren babes-helburuen arabera, kontrol hori jabari publiko hidraulikoan eragin nabarmena izan dezaketen beste isurketa batzuetarako beharrezkoa izango da.

55. artikulua. *Industria-jardueretako hondakin edo produktuen biltegiak, erauzketa-aprobetxamenduetakoak eta aire zabaleko beste biltegi batzuk*

1. Industria-jardueretatik eta erauzketa-aprobetxamenduetatik eratorritako hondakinak edo produktuak aire zabalean biltegiratzeagatik sortutako lixibiatuak isurtzeko baimenak ustiapen-faseari ez ezik, instalazioa itxi osteko lixibiatuak sortzen diren aldi osoari ere egin beharko die erreferentzia.
2. Uren legeriaren arabera substantzia arriskutsuak dituzten materialak edukiko dituen biltegi orotan ziurtatu beharko da, Administrazio Hidraulikoaren aurrean, ez dela inoiz ere inolako kutsadurarik eragingo eta jabari publiko hidraulikoan ez dela bestelako eraginik izango.

56. artikulua. *Hiri-hondakinen biltegiak*

Sortzen diren aldi osoan zehar eta kasuan kasuko tratamenduak egin ondoren saneamendu publikoko sistemara sartzen diren hiri-hondakinen biltegi-tako lixibiatuek 52.3 artikuluan xedatutakoa beteko dute. Bestela, 55. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

57. artikulua. *Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak. Jabari Publiko Hidraulikoa.*

1. Plangintzari buruz Administrazio Hidraulikoak eman beharreko txostenetarako, ULTBren 25.4 artikulua arabera (ur kontinentalen araubideari eta aprobetxamenduari, eta jabari publiko hidraulikoko lurretan eta horien zortasun- eta zaintza-eremuetan baimendutako erabilerei buruzkoa da), sustatzaileak hornikuntza, saneamendu eta arazketarako proposatutako irtenbidea barne hartuko du, sare orokorraren mailan egiturazko antolamenduaren plangintzan, eta tokiko sistemaren mailan antolamendu xehatua.
2. Lehendik dagoen saneamendu-sare batera konektatzea aurreikusten bada, 52. artikuluan xedatutakoa baliozkoa izango da, bideragarria bada zein ez.

58. artikulua. *Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikora isurtzeko baimenak*

1. Tarteko eta kostaldeko uretako isurketei dagokienez, Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen III. tituluko IV. kapituluko 2. sekzioan xedatutakoa beteko da, baita martxoaren 10eko 258/1989 Errege Dekretuan haren garapen araudian xedatutakoa ere (lehorretik itsasora substantzia arriskutsuen isurketei buruzko araudi orokorra ezartzen duena). Halaber, lehorretik itsasora isurtzeari buruzko abenduaren 10eko 459/2013 Errege Dekretuan xedatutakoari ere jarraituko zaio.

2. Kostaldean Araudi Nagusiko 117. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenen baldintzak berrikusi edo, hala badagokio, aldatu ahal izango ditu, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta baimena ematea eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira. Era berean, baldintzak berrikusi edo aldatu ahal izango dira beharrezkoa bada Plan Hidrologiko honetan ezartzen diren ingurumen-helburuak betetzeko.

3. Halaber, itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoan isurtzeko baimenetan, jabari publiko hidraulikoari buruzko 50.1, 50.3, 50.4, 52.1, 52.2 eta 50.6 ataletan jasotakoa aplikatuko da. Hiri-eremuetan jatorria duten isurien kasuan, 52.4 ataleko lehenengo paragrafoan eta 52.5, 54.1 eta 54.2 ataletan jasotakoa hartuko da aintzat.

4. Drainatzeko hiri- edo industria-azpiegituren bidez jasotzen diren eta inguru hartzailea kutsa lezaketan eurien jariatze-urak, industrietan eta industrialdeetan jatorria dutenak, eta zirkuitu itxiko ur hoztuen hustuketak industriako hondakin-urtzat joko dira, eta Administrazio Hidraulikoaren aurrean isurtze-baimenaren prozedura aplikatu beharko zaie. Baimenean, aintzat hartuko dira jasotako uren bolumena eta inguru hartzailean isurtzen den zama kutsatzailea jatorrian murrizteko prebentzio-neurriak.

5. Saneamendu-sistema orokorretako gainezkabideen harira, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenaren titularrari exijitu ahalko dio jariatze-urek gainezka egitearen ondoriozko kutsadura murrizteko programa bat aurkez dezala, baita abenduaren 10eko 459/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa betearaz dezala ere. Programa horretan hainbat neurri hartuko dira barne, hala nola azterlan tekniko xehatuak, hondakin-uren eta jariatze-uren bolumenak araztegiatarantz garraiatzea optimizatzeko eta euriteetan saneamendu-sistemetako gainezkatzeen eragina murrizteko.

6. Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoko isurketen kasuan, isurketen jatorria saneamendu-sistema orokorretan badatza, jabari publiko hidraulikoaren inguruko 52.6 eta 52.3 ataletan jasotakoa aplikatuko da, eta isurketen jatorria industriak eta industrialdeak badira, 53.1, 53.2, 53.5 eta 53.8 ataletan jasotakoa aplikatuko da. Halaber, itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoan egiten diren isurketen kasuan, isurketen jatorria hondakin-biltegiak edo industria- edo erauzketa-jardueretako produktuak badira, 55. eta 56. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

7. Itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikora egindako isurketen ondorioz ur-masak egoera onean izatea arriskuan jartzen bada, legez kanpoko isurketen kasuan egin behar dena gorabehera, Administrazio Hidraulikoak Isurketaren Erabiltzaile Batzarrak eratzeko exijitu ahalko du, Kostaldean 22/1988 Legearen 58.6. artikuluan eta Kostaldean Araudi Nagusiko 121. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita 54.3. artikuluko a eta b ataletan ezarritakoa aplikatu dadila ere.

59. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileak

1. Espezie exotiko inbaditzaileak dauden edota sartzeko arriskua duten zaintza-eremuetan edo jabari publiko hidraulikoan egindako jardueretan, bermatu behar da espezie horiek ez sartzeko eta ez hedatzeko jarduerak, prebentzio neurriak eta jardunbide egokiak egingo direla, arlo horretako autonomia arloko eskumenak kaltetu gabe.

2. Espezie exotiko inbaditzaileak daudela hautematen bada, autonomia-erkidegoekin batera, plan berezi bat sortuko da, espezie horiek hedatzea eta errotik kentzea lortzeko. Zehazki, zebra-muskuiluaren hedapena kontrolatzeko ekintza-plan bat idatziko da, eta amaituta egon beharko du plan hidrologiko hau onetsi eta sei hilabeteko epean.

60. artikulua. *Zuhaitzak landatu eta moztea*

Zuhaitzak landatzean eta moztean, jabari publiko hidraulikoa eta zortasun-eremuko ibaiertzeko landaredi-zerrenda autoktonoa errespetatuko dira, jabari horren eta inguruko eremuen egoera babesteko, baita ibai-ekosistema hondatzea ekiditeko eta hura hobetzen laguntzeko ere. Baso-aprobetxamendurako beharrezkoa bada ibilguak etengabe gurutzatzea eta zeharkatzea, urak uhertzea saihesten duten elementuak erabiltzea sustatuko da, esaterako baso-zubi eramangarriak.

61. artikulua. *Azaleko ur-masen baldintza morfologikoak*

1. Azaleko ur-masen berezko baldintza morfologikoak, luzetarako jarraitutasuna eta alboetako konektagarritasuna VII. kapituluan eta ondorio horretarako gainontzeko xedapenetan ezarritakoaren bidez babestu beharreko balioak dira.

2. JPHEren 126.bis artikulua eta araudi honen 24. artikulua arabera, ibilguaren gaineko edozein aprobetxamenduk, helburua edozein izanik ere (presa txikiak, hartuneak, deribazioak, neurketa-instalazioak, zein beste edozein jarduketa izan), bere iragangarritasuna bermatu beharko du, goranzko norabidean zein beheranzkoan, eragindako tartean dagoen iktiofauna autoktonoaren bidez edo potentzialki bertan egon daitekeenaren bidez.

3. Azpiegitura berrien iragangarritasuna emakida berrien baldintzen artean sartuko da, baita berrikusten edo aldatzen direnen artean ere. Ibilguaren gainean 10 metrotik beherako altuera duten gainerako azpiegiturak, iragangarriak ez badira, egokitu egin beharko dira ibilguk jarraitutasuna izango dutela bermatzeko. Administrazio hidraulikoek ingurumenean duten eragina baloratu eta azpiegitura horien titularrei *errekerimendua egin ahal izango diete* azpiegiturak egokitu ditzaten, oztopoek eragindako kalteen garrantziaren arabera.

4. Administrazio hidraulikoek, Plan Hidrologiko Nazionalaren 28. artikulua eta JPHEren 126.bis.4 artikulua arabera eta kasu bakoitzaren ingurumen- eta ekonomia-eragina baloratuta, uren aprobetxamenduari lotutako funtziorik betetzen ez duten azpiegiturak eraistea bultzatuko dute, baldin eta horretarako baimena edo emakida badute, eta, hortaz, abandonatuta badaude. Horretarako, baldintzak aldatzeko edo iraungitzeko ofizioz abiarazitako espedientea izapidetu beharko da aurretik.

5. Jabari publiko hidraulikoko eta itsas-lehorreko jabari publikoko hezeguneak eta horien ertzak lehengoratzeko eta berriztapenerako, natura-ingeniaritzako teknikak eta naturan oinarritutako konponbideak lehenetsiko dira.

62. artikulua. Emari solidoa

1. Ibaien emari naturalaren partetzat jotzen da material sedimentario solidoa esekiduraren, jauzien edo errodatzearen bidez garraiatzea; izan ere, funtsezkoa da haren bilakaera eta garapen morfologikoarentzat.
2. Ibilguen zeharkako obren inpaktuaren ebaluazioak, JPHEren 126.bis.5 artikuluan aurreikusiak, bermatu egingo du obra horiek ez dutela emari solidoaren pasabidea oztopatuko egoera arruntetan eta alerten aurreko egoeretan. Azken egoera hori Lehorteen Plan Berezian jasotako adierazle-sistemaren arabera definitu da.

*VII. atala. Araztutako urak berrerabiltzeari buruzko neurriak***63. artikulua. Hondakin-urak berrerabiltzea**

1. ULTBren 59.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera, administrazio-emakida behar da aprobetxamendu batetik datozen hondakin-urak berrerabili ahal izateko, isurketaren titularrak emakida hori eskatzen badu salbu. Halakoetan, administrazio-baimena beharko da soilik. Araztutako urak berrerabiltzeko, betiere, Araztutako urak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duen abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko da.
2. Industrien barruko berrerabilpena sustatuko da iturri alternatiboen erabilpenean, eta, bideragarria denean, hiri-ura baino kalitate txikiagoko baliabideak erabiltzea ere bultzatuko da. Horretarako:
 - a) Ibilguan egiten diren emari-erazketek edo hondakin-uren isurketek aurreikusita dauden epeetan ur-masaren egoera ona lortzea arriskuan jartzen badute, Administrazio Hidraulikoak, ofizioz, isurtzeko emakidaren edo baimenaren titularrari eskatu ahal izango dio araztutako urak berrerabiltzeko aukera azter dezan.
 - b) Era berean, emakida-eskaera berrien kasuan, Administrazio Hidraulikoak kasuan kasuko eskaera leheneratutako uretarako emakidara bideratzeko aukera izango du, baldin eta emakida-erabilerek onartzen badute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

VIII. atala. Jabari publiko hidraulikoaren erabileraren erregimen ekonomiko-finantzarioa

64. artikulua. *Uraren zerbitzuak kudeatzeko orientazio-printzipioak eta sustapen-neurriak*

1. Administrazio eskudunek hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa integratua bultzatuko dute, eta ondorengo helburu hauek erdiestea bermatzeko gai diren udalez gaindiko kudeaketa-egiturak sor eta manten daitezela sustatuko dute: sareen errendimendurik onena ziurtatzea, kudeaketa profesionalizatu izango duen zerbitzua eskaintzea eta ur-zerbitzuen kostuak ahal besteko eraginkortasunarekin leheneratzeko joera izatea. Isurketak kontrolatu eta bereizteko mekanismoak areagotuko dira, batik bat saneamendu-sistema publikoetara konektatutako industrialdeen barruan.
2. PHEren 46. artikuluekin bat etorritik, sareen eraginkortasuna handitzeko hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak sortu eta berritzea uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzeko neurritzat joko da, barne hartuta haietarako laguntzak. Laguntza horiek, ULTBren 110. artikulua arabera, soil-soilik esleituko zaizkie hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatu dutela justifikatu duten erakundeei.
3. Administrazio-arteko koordinazioa bultzatuko da Uholde Arriskuaren Kudeaketa Planen betearazpena arintzeko, baita gainerako plangintza garrantzitsuan barne har dadila errazteko ere.

65. artikulua. *Uraren zerbitzuen kostuak (hiri-zikloa)*

Uraren ziklo integralaren kostuak identifikatzeko, gutxienez, hura eskaintzeko beharrezko kostu guztiak hartu behar dira kontuan, kostu horiek dituen erakundea edozein izanik ere. Honela sailka daitezke:

- a) Altan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak, edateko uren araztegiak (EUA) eta HUAK barne.
- b) Altan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa, EUAk eta HUAK barne (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia barne hartu beharko dute gutxienez).
- c) Bajan dagoen sarea mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak.
- d) Bajan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia barne hartu beharko dute gutxienez).
- e) Abonatuen kudeaketarekin eta bezeroarentzako arretarekin lotutako kostuak.
- f) Hornidura- eta saneamendu-zerbitzua eskaintzearen ondoriozko ingurumen-kostuak. Uraren erabilerek ingurumenarentzat, ekosistemarentzat eta ingurumenaren erabiltzaileentzat eragiten duten kaltearen kostuak dira.
- g) Baliabidearen kostuak.

66. artikulua. *Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko jarraibideak*

1. ULTBren 111.bis.2 artikulua arabera, kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzearen, ur-horniduraren arloan eskumena duen Administrazioak kontsumo-tarteen arabeko tarifa-egitura ezarriko du. Horren helburua da oinarritzko beharrei arrazoizko prezioan erantzutea eta gehiegizko kontsumoak sustatzeari uztea, besteak beste gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren gaineko ondorioak kontuan izanik, baita baldintza geografikoak eta klimatikoak ere. Nolanahi ere, neurri horiek ez ditu arriskuan jarri behar ingurumen-helburuak.

2. Hiri- eta industria-erabileretarako uraren zerbitzuen tarifak ezartzeko jarraibideak:

- a) Tarifek, kuota finko bat ez ezik, ur-kontsumoaren arabeko nahitaezko kuota aldakor eta mailakatu bat ere izatea gomendatzen da.
- b) Kuota finkoan gutxienerako ur-kontsumorik ez sartzea proposatzen da.
- c) Mailakako tarifak ezartzeko, zenbait kontsumo-tarte proposatzen dira, mailakakotasun-eskala egokiarekin; kostuak berreskuratzeko, baliabideak aurrezteko eta kontsumo ez-eraginkorra eta ez-iraunkorra zigortzeko.
- d) Tarifetan hiri-erabiltzaileen motak bereiztea gomendatzen da, zehazki honako hauek, gutxienez: etxeak, industriakoak eta merkataritzakoak.
- e) Industria-tarifen egiturak diseinatzean, erabilera horri lotutako kostuak kontuan hartu beharko lirateke.
- f) Industria-erabileretarako, hobariak ematea aintzat hartu ahal izango da, eskuragarri dauden teknika onenak erabiliz uraren erabilera iraunkorrean eta aurrezpenean egiten duten ekarpenaren arabera.

VIII. kapitulua. Neurrien programa**67. artikulua.** *Neurrien programaren definizioa*

Plan Hidrologiko honetako neurrien programa Memoriaren 12. kapitulan adierazitako neurriek osatzen dute. Denbora-epe desberdinetarako aurreikusitako inbertsioak 14. eranskin gisa jasotako tauletan adierazitakoak dira. Bertan, neurriak motaren, helburuaren eta administrazio finantzatzailearen arabera sailkatuta laburbiltzen dira.

68. artikulua. *Neurrien programaren finantzaketa*

1. Ingurumen-helburuak gauzatzeko jardura guzti-guztiak eta horiei lotutako inbertsioak Plan Hidrologikoaren Neurrien programan zerrendatu dira. Hainbat arrazoiren ondorioz (esaterako, neurrien programa finantzatzeko identifikatutako erakundeek aurrekontu-eskuragarritasunik ez izatea) ezinezkoa bada jardura hauetako bat edo bat baino gehiago gauzatea, Erakunde eskudunak jardura hori edo horiek geroko kudeaketa-planetarako atzeratu ahalko ditu, baldin eta horrela jotzea Plan Hidrologiko honetan ezarri diren helburuak betetzearekin koherentea bada eta neurrien programaren jarraipen egokiarekin egiten bada.

2. Neurrien programa derrigorrez bete behar denez eta loteslea denez, neurri horiek antzeko beste neurri batzuek bakarrik ordezkatu ahal izango dituzte, eta nolana ere, Plan Hidrologiko honetan ezarritako ingurumen-helburu berberak betetzea bermatu beharko dute.

IX. kapitulua: Partaidetza publikoa gauzatzeko antolaketa eta prozedura

69. artikulua. *Partaidetza publikoa gauzatzeko antolaketa eta prozedura*

1. Planaren Memoriaren 14. kapituluan jasotzen dira partaidetza publikoa gauzatzeko prozedurak.
2. Administrazio Hidraulikoek Plan Hidrologiko honen jarraipena eta berrikuspena egiteko informazio publikoko, kontsulta publikoko eta partaidetza aktiboko prozeduren garapenarekin erlazionatutako antolamendu-sistema eta esparru-kronograma ezarriko dituzte.
3. Administrazio Hidraulikoek informazio publikoko, kontsulta publikoko eta partaidetza aktiboko prozedurak koordinatuko dituzte, baita Plan Hidrologikoa berrikusteko ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokiona ere.
4. Prozesuaren faseetan erabiliko diren partaidetza metodoak eta teknikak honakoak izango dira, besteak beste: elkarrizketak, ate irekietako jardunaldiak, aldebiko bilerak, tailerrak, partaidetza interaktiboa, sektore-mahaiak eta sektore anitzekoak, hitzaldiak eta mahai-inguruak.
5. Informazio publikoko, kontsulta publikoko eta partaidetza aktiboko prozesuen garaian Plan Hidrologikoaren inguruko dokumentazioa eta informazioa kontsultatu eta eskuratzeko kontaktuko guneak honako hauek izango dira, beste zerbait xedatzen bada izan ezik:
 - a) Administrazio Hidraulikoen egoitzak eta haien ordezkariak eta lurralde-bulegoak.
 - b) Administrazio Hidraulikoaren webgunea.
 - c) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunea.

70. artikulua. *Agintari eskudunak*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan izendatutako agintari eskudunak Planaren Memoriako 1. kapituluan eta horren XII. eranskinean jasotzen dira.

71. artikulua. *Gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko jarraibideak*

1. Gardentasuna nahitaezko baldintza da, eta uraren zerbitzuetan eskumena duten administrazio guztiek bete behar dute. Gardentasuna sustatzeko, kudeatzaile guztiek ezarri beharreko jarraibide hauek zehaztu dira:

- a) Informazio-sistema integratua sortzea, uraren zerbitzugintzan esku hartzen duten eragileek sortutako datu interesgarri guztiak bilduko dituen; adibidez, ondoko hauek: azpiegiturak; erabiltzaile motaren arabera ur-eskaerak; zerbitzuen kostuak eta diru-sarrerak; eta eskualdean, Estatuan eta Europan zerbitzugintzan inplikaturako erakunde publikoen inbertsioek eta dirulaguntzek izandako bilakaera.
- b) Uraren tarifa ezartzeko politikak gardena eta ulertteraza izan behar du, pizgarri-eragina izan dezan eta erabiltzaileek baliabideak eraginkortasunez balia ditzaten. Erabiltzaileen artean gai hauei buruzko informazioa hedatzea bultzatu beharko da: uraren ziklo integralari dagozkion tarifen kontzeptuak, eta baliabidearen erabilera eraginkorrak eta iraunkorrak ingurumenean, gizartean eta ekonomian dakartzan onurak.
- c) Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta ofizialekin lotutako informazioaren edukiak egokitu eta prozesatzea.
- d) Espezializatutako erakunde autonomiko arautzaile bat sortzea, zerbitzuen baldintzak eta estandarrak ezar eta ikuska ditzan, baita tarifak finkatzeko irizpideak bateratu ere.
- e) Herritarrekin etengabe komunikazioa izateko eta informazioa emateko kanalak irekitzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bitartez.

2. Herritarren kontzientziazioak, era berean, baliabideak modu iraunkorragoan erabiltzea lortzen lagundu behar du. Ildo honetatik, hau proposatzen da:

- a) Ura aurrezteari buruzko gizarte-kontzientziazioa sustatzea eta herritarren, enpresen eta erakundeen portaeran eragina izaten saiatzea, ura egokiago erabil dezaten.
- b) Herritarrak kontzientziatu eta sensibilizatzeko kanpainak ezartzea. Horiek ondoko baliabideen bitartez antola litezke: heziketa- eta prestakuntza-programak, komunikazio-kanpainak eta jarduerak, administrazio publikoen edo partikularren arteko lankidetzak-hitzarmenak nahiz komenigarritzat eta egokitzat hartzen diren bestelakoak.
- c) Ura modu arduratsuan kontsumitzeko kultura arduratsua sustatu eta ezagutzera ematea, baita urarekiko jarrera iraunkorra ere, ura aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea sustatzeko.
- d) Uraren balioak ezagutzera ematearekin eta interpretatzearekin erlazionatutako ekipamenduak bultzatzea.

72. artikulua. *Eskaera kudeatzeko planak prestatzeko jarraibideak*

1. Uraren zerbitzuak kudeatzeko eskumena duten agintariak eskaera kudeatzeko planak egin ditzatela gomendatzen da, planek demarkazio hidrografikoan uraren kudeaketa integrala, arrazionala eta iraunkorra lortzen lagun dezaten.

2. Honako jarraibide hauek proposatzen dira planak prestatzeko:

- a) Uraren erabilerari buruzko informazio-sistemak ezartzea, uraren erabileren eskaerak dituen ezaugarrien eta joeren inguruko informazioa lortzeko eta ura aurrezteko eta arrazoiz erabiltzeko politikak garatzeko.
- b) Banakako kontagailuak instalatuz kontrola ziurtatzea.
- c) Ura aurrezteko teknologien erabilpena sustatzea.

- d) Sarearen eraginkortasun-mailak hobetzeko neurriak: hodiak berrituz joatea, ihesak azkar antzeman eta minimizatzeko kanpainak egitea.
- e) Tarifak eguneratzea, kostuak berreskuratzeko eta ura aurrezteko sustatzeko irizpideei jarraituz.
- f) Erabiltzaileak kontzientziatzeko eta informatzeko kanpainak sustatzea. Kontsumitzaileek beren ur-kontsumoak eta eraginkortasun-maila zein diren jakin dezatela bultzatu behar da, fakturaren bidez eta aurrezteko sustatzeko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez.
- g) Uraren kultura berri baterako partaidetza-eremuak sustatzea.

3. Uraren zerbitzuen kudeaketan eskumena duten agintariek demarkazio hidrografikoko saneamendu-eta estolderia-sareetarako hobekuntza-planak egitea gomendatzen da.

X. kapitulua: Plan hidrologikoaren jarraipena

73. artikulua. *Plan Hidrologikoaren jarraipena*

1. PHEren 88. artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian adierazten diren alderdiei berariazko jarraipena egingo zaie:

- a) Eskuragarri dauden baliabide hidriko naturalen eta horien kalitatearen bilakaera. Azterlanean kontuan hartuko dira klima-aldaketak baliabide naturalen kantitatean, ingurumen-helburuetan eta ur-eskarietan dituen eraginak.
- b) Ur-eskariaren bilakaera.
- c) Emari ekologikoen erregimenaren betetze-maila.
- d) Azaleko eta lurpeko ur-masen egoera.
- e) Ur-masen gaineko neurrien eta eraginen programen aplikazioa. Jarraipen horren inguruko datuetan, informazio hau jasoko da behinik behin:
 - 1. Jarduera zer egunetan jarri zen zerbitzuan edo, kudeaketa-tresnen kasuan, zer egunetan sartu zen indarrean.
 - 2. Benetako inbertsioa eta mantentze-kostuak.
 - 3. Neurriaren eraginkortasunaren zenbatespena.

2. Plan Hidrologikoari buruzko informazioa eta jarraipen-lanetarako beharrezko datuak biltzeko, koordinazio-mekanismoak ezarriko dira Agintari Eskudunen Batzordearen esparruan, PHEren 87. artikuluaaren arabera.

3. Neurrien programak abian jarri eta aplikatzeko arduraren duten agintaritzak eta administrazio eskudunek Administrazio Hidrauliko eskudunari aurreko urtean gauzatutako jardueren garapenari buruzko informazioa eman beharko diote urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, PHEren 87.4 artikuluan jasotako informazio-betebeharra bete ahal izateko.

4. Gainera, Demarkazioko Uraren Kontseiluak aintzakotzat hartzeko, PHEren 87.4 artikuluaaren arabera, entregatu behar diren dokumentuekin batera, jarraipen-adierazleen taula bat jaso beharko da.

74. artikulua. *Plan Hidrologikoaren berrikuspena*

1. PHEren 89. artikulua arabera, Plan Hidrologikoa berrikusi egin beharko da, Demarkazioko Uraren Kontseiluak nahiz Erabiltzaileen Batzarrak proposatuta (bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan), baldin eta haien datuetan, hipotesietan edo emaitzetan antzemandako aldaketen edo desbideratzeen ondorioz gomendagarria bada.
2. Nolanahi ere, ULTBren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera, Plan Hidrologikoaren berrikuspen osoa eta aldizkakoa egingo da 2027ko abenduaren 31 baino lehen, eta 6 urtean behin data horretatik aurrera.

75. artikulua. *Beste berrikuspen batzuk**1. Lehorteen Plan Bereziaren berrikuspena*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Bereziak (azaroaren 28ko TEC/1399/2018 Aginduaren bidez onetsia), Plan Hidrologikoaren berrikuspen-ziklora egokituko du bere berrikuspen-zikloa. Hartara, adierazleen sistema eta lehorteetarako prebentzio- eta arintze-neurriak plangintza hidrologikoaren helburu zehatzekin bat datozela egiaztatu ahal izango da, plan hidrologikoaren geroagoko aurreikuspenetan eguneratuz doazen heinean.

2. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren berrikuspena

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako eremuaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (urtarrilaren 15eko 20/2016 Errege Dekretuaren bidez onetsia) bere berrikuspen-zikloa Plan Hidrologikora egokituko du, uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 14. artikulua arabera. Hartara, egiaztatuko da Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren helburuak bat datozela Plan Hidrologikoan jasotako ingurumen-helburuak betetzearekin, eta azken hori hurrengo ziklorako berrikusi beharko da.

3. Plan Hidrologikoaren ondoren izendatutako eremu babestuak

1. PHEren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, Babestutako Eremuen Erregistroa aldizka eta berariaz berrikusi eta eguneratu beharko da Plan Hidrologikoa eguneratzearekin batera.
2. Aurreko atala oinarri hartuta, agintaritza eskudunak, gaia dela eta, plangintza hidrologikoaren ondorioetarako beste eremu babestu bat izendatzen badu plan hidrologiko hau egin ondoren, eremu hori plan hidrologiko honetako Babestutako Eremuen Erregistroan sartuko da, erregistro horretan sartutako eremu babestuetarako ondorio berberekin; eta ez dira beharrezkoak izango PHEren 80. eta 83. artikuluetan zehaztuta dauden Plan Hidrologikoa kontsultatu eta onesteko prozedurak.

XI. kapitulua: Ingurumen-ebaluazio estrategikoa

76. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

Plan hidrologiko honek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arrunta bete du Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren eskumen-mugapearen zatirako, eta horren emaitza Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren zuzendari nagusiak 2022ko azaroan egindako Ingurumen Adierazpen Estrategikoan islatzen da. Araudi horren 17. gehigarrian azaltzen da nola integratu diren plan hidrologikoan egindako ebaluazioaren ondoriozko azken zehaztapenak, neurriak eta baldintzak, eta, era berean, bete egiten dira Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazitako publikitate-betebeharrak.

Araudiaren eranskinak:

1. Ustiapen-sistemak.
2. Azaleko ur-masak.
3. Lurpeko ur-masak.
4. Emari ekologikoak.
5. Baliabideen esleipena.
6. Erabileren arabera ur-zuzkidurak.
7. Eremu Babestuen Erregistroa.
8. Ingurumen-helburuak.
9. Olgeta erabileren inguruko jardunbide egokien gida.
10. Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak.
11. Zubiak diseinatzeko babesak.
12. Jabari publiko hidraulikoan aplikatu beharreko erreferentziako balioak isurketetatik uretan behera ingurumen-helburuak betetzeko.
13. 2.000 biztanletik beherako herriguneetan arazketa-instalazioak diseinatzeko irizpideak.
14. Neurrien Programaren laburpena.
15. Uraren unitate kostuak, legez kanpoko erauzketek eragindako kalteak baloratzeko.
16. 13-IX-2017 Jarraibidea, Uraren Zuzendaritza Nagusiarena.
17. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak demarkazioaren Estatuaren eskumeneko zatirako emandako ingurumen-adierazpen estrategikoa integratzea

1. ERANSKINA. USTIAPEN-SISTEMAK

1.1. Eranskina. Ustiapen-sistema bakoitzaren azalera eta ur ekarpena

Ustiapen-sistema		Azalera (km ²)	Batez besteko ur ekarpena 1980/81-2017/18 aldian (hm ³ /urte)
ES017SEXP01	Barbadun	134	80,90
ES017SEXP02	Nervi3n/Nerbioi – Ibaizabal	1.820	1.051,40
ES017SEXP03	Butroe	236	163,80
ES017SEXP04	Oka	219	134,20
ES017SEXP05	Lea	128	88,20
ES017SEXP06	Artibai	110	87,80
ES017SEXP07	Deba	554	421,50
ES017SEXP08	Urola	349	248,90
ES017SEXP09	Oria	908	760,90
ES017SEXP10	Urumea	302	416,80
ES017SEXP11	Oiartzun	93	102,90
ES017SEXP12	Bidasoa	751	894,90
ES017SEXP13	Pirinioetako ibaiak	186	232,10

1.2. Eranskina. Ustiapen-sistema bakoitzaren lurralde-eremua

Ustiapen-sistema		Lurralde-eremua		
		Ibai arroak	Itsasertzeko arroak	Aintziren arroak
ES017SEXP01	Barbadun	Barbadun ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Tresmoral, Pikon edo Kotorrio, Galdames eta Bezi ibaien arroak barne direla.	Sopuerta eta Zierbena udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP02	Nervi3n / Nerbioi – Ibaizabal	Nerbioi, Cadagua, Ibaizabal, Altube, Zeberio, Ordunte, Asua, Galindo eta Gobelas ibaien arroak. Altubeko urmaelen gunea ere barne hartzen du.	Zierbena eta Barrika udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP03	Butroe	Butroe ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Oleta, Arretabarri, Atxispe, Zuzentze, Maruri eta Larrauri ibaien arroak kontuan hartuz. Era berean Andrakas, Estepona, Bakio eta Infierno ibaien aldameneko arroak ere barne hartzen ditu.	Barrika eta Bermeo udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP04	Oka	Oka ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Mape, Muxika, Kanpantxu, Golako eta Oma ibaien arroak kontuan hartuz. Era berean Artigas eta Laga ibaien aldameneko arroak ere barne hartzen ditu.	Bermeo eta Ibarrangelu udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP05	Lea	Lea ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Oiz eta Arbina ibaien arroak barne direla. Era berean, Ea ibaiaren aldameneko arroa ere barne hartzen du.	Ibarrangelu eta Mendexa udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP06	Artibai	Artibai ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Bolibar, Urko eta Amailoa ibaien arroak barne direla.	Berriatua eta Ondarroa udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	
ES017SEXP07	Deba	Deba ibaiaren arro osoa barne hartzen du, Ego, Aramaio, Oinati, Urkulu, Arantzazu, Ubera, Angiozar, Lastur, Kilimoi, San Lorentzo eta Antzuola ibaien arroak barne direla.	Mutriku eta Deba udalerrien arteko itsasertzeko arro guztiak.	

Ustiapen-sistema		Lurralde-eremua		
		Ibai arroak	Itsasertzeko arroak	Aintziren arroak
		Era berean, Saturraran eta Mijoa ibaien aldameneko arroak ere barne hartzen ditu.		
Oketako burdinola eta errota	Ustezko arkeologia-eremua	506756	4770555
Usuluze de Arribako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	508584	4772175
Las Rivas errota	Ustezko arkeologia-eremua	505305	4776030

Ondarearen izena	Babesa	X	Y
Ibarrako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	511161	4771372
Burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	504050	4805709
Portua	Ustezko arkeologia-eremua	504169	4805648
Gazteluondo errota	Ustezko arkeologia-eremua	504443	4805563
Mosuetarrotta errota	Ustezko arkeologia-eremua	520824	4797576
Errekalde errota	Ustezko arkeologia-eremua	522013	4796721
Larragun teileria	Ustezko arkeologia-eremua	521818	4798172
Kauso errota	Ustezko arkeologia-eremua	496737	4794792
Errotabarri errota	Ustezko arkeologia-eremua	513346	4792464
Olazarra errota	Ustezko arkeologia-eremua	512665	4792494
Bekoerrota errota	Ustezko arkeologia-eremua	514532	4792179
Bajo La Otera de Elguero errota	Ustezko arkeologia-eremua	499189	4794676
Llantadako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	487665	4789927
Viejo de Olabarieta errota	Ustezko arkeologia-eremua	484499	4789764
Olabarrietako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	483942	4789001
La Presako errota	Ustezko arkeologia-eremua	485590	4787990
Arenao burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	488093	4791507
La Mimbrera errota	Ustezko arkeologia-eremua	484585	4782846
Higar errota	Ustezko arkeologia-eremua	483983	4782133
Baeales errota	Ustezko arkeologia-eremua	483693	4781776
Laiseca burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	483647	4781640
Pr.Xima A La Ermita de San Roque burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	534855	4771219
Olazarra burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	533711	4773834
Ibarrako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	516505	4783821
Utxaraingoleako burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	514962	4783491
Lekueko burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	514212	4784551
Ugunagako burdinola eta errota	Ustezko arkeologia-eremua	519119	4773416
Ubirixaga burdinola eta errota	Ustezko arkeologia-eremua	518364	4779198
Olarreaga burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	541332	4780762
Olaetxea burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	540537	4780617
Calcibango errota	Ustezko arkeologia-eremua	490177	4785900
Bolunburuko burdinola eta errota	Ustezko arkeologia-eremua	487470	4782973
Goikortako errota	Ustezko arkeologia-eremua	503324	4798095
Errotabarria errota	Ustezko arkeologia-eremua	503615	4798522
Sangronizko errota	Ustezko arkeologia-eremua	505154	4793066
Errotabarri errota	Ustezko arkeologia-eremua	525121	4797324
Asparroaga-li errota	Ustezko arkeologia-eremua	524597	4797539
Asparroaga-lII errota	Ustezko arkeologia-eremua	524609	4797498
Bolinzulo-I errota	Ustezko arkeologia-eremua	531111	4798268
Bolinzulo-II errota	Ustezko arkeologia-eremua	531126	4798240
Olakoerrota burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	531543	4797729
Errotabarriko errota	Ustezko arkeologia-eremua	531384	4797799
Mallukitza errota	Ustezko arkeologia-eremua	526157	4800063
Olatxu burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	524836	4801621
Bateltokiko teileria	Ustezko arkeologia-eremua	525645	4801095
Goikoleaerrota errota	Ustezko arkeologia-eremua	531817	4797594
Olabarri burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	527213	4783952
Bekolea burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	529803	4780440
Goikolea burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	529775	4780582
Arandiako burdinola eta errota	Ustezko arkeologia-eremua	528473	4780701
Erdikola burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	527009	4783229
Etxebarria burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	526232	4782104
Goikoerrota burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	527026	4793415
Erreketako errota	Ustezko arkeologia-eremua	500959	4787776
Puertoko errota	Ustezko arkeologia-eremua	493313	4799696
Zubiaur burdinola	Ustezko arkeologia-eremua	527189	4796526
Bekoerrota errota	Ustezko arkeologia-eremua	528969	4796343
Goikoerrota errota	Ustezko arkeologia-eremua	529098	4796452
Bekoerrota errota	Ustezko arkeologia-eremua	528962	4794570
Errotatxu errota	Ustezko arkeologia-eremua	529054	4794806
Koba Errota	Babes Integrala (Arau subsidiarioak Gautegiz-Arteaga)	527236	4800260

8. ERANSKINA. INGURUMEN-HELBURUAK

8.1. Eranskina. Azaleko ur-masa naturaletarako ingurumen-helburuak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
			Ekologikoa	Kimikoa	UEZeko art.
Ibaia	ES052MAR002710	Izoria ibaia	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES059MAR002760	Akelkorta ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES008MAR002410	Latsa ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES016MAR002440	Ollin ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES069MAR002880	Cadagua ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES069MAR002870	Ordunte ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES026MAR002610	Berastegi ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES056MAR002730	Zeberio ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES065MAR002810	Ibaizabal ibaia II	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES067MAR002790	Arratia ibaia	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES073MAR002910	Cadagua ibaia III	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES002MAR002340	Bidasoa ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES001MAR002320	Olabidea ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES052MAR002690	Nerbioi ibaia I	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES020MAR002520	Estanda ibaia	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES020MAR002540	Agauntza ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES023MAR002591	Araxes ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES018MAR002491	Urumea ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES069MAR002850	Ordunte ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES026MAR002670	Asteasu ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES021MAR002581	Amezketeta ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES018MAR002480	Landarbaso ibaia	2021 edo lehenago	2027	4.4
	ES064MAR002820	Maguna ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES018MAR002492	Urumea ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES010MAR002420	Bidasoa ibaia III	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES010MAR002431	Endara ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES028MAR002661	Oria ibaia V	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES008MAR002402	Tximista ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES022MAR002650	Salubita ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES021MAR002582	Amezketeta ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES027MAR002620	Leitzaran ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES066MAR002800	Indusi ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES020MAR002642	Oria ibaia IV	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES017MAR002450	Añarbe ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES002MAR002380	Bidasoa ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES020MAR002501	Oria ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES023MAR002601	Araxes ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES018MAR002470	Urumea ibaia III	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES020MAR002560	Agauntza ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES055MAR002721	Altube ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES020MAR002570	Zaldibia ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES067MAR002830	Amorebieta-Aretxabalgane ibaia	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES059MAR002750	Elorrio ibaia II	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES055MAR002722	Altube ibaia II	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES020MAR002502	Oria ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES065MAR002770	San Migel ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES008MAR002401	Tximista ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES002MAR002350	Bearzun ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES002MAR002360	Artesiaga ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES002MAR002370	Marin eta Zeberi ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES005MAR002390	Ezkurra eta Ezpelura ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES027MAR002630	Leitzaran ibaia I	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES518MAR002930	Luzaide ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES001MAR002330	Urrizate-Aritzakun ibaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES073MAR002890	Herrerias ibaia	2027	2021 edo lehenago	4.4	
ES111R032020	Ibaieder-B	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES111R036020	Aramaio-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	
ES111R014010	Oiartzun-A	2027	2021 edo lehenago	4.4	
ES111R046030	Golako-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-	

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
			Ekologikoa	Kimikoa	UEZeko art.
	ES111R048010	Butroe-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R040050	Oinati-B	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R030030	Urola-C	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R029010	Iñurritza-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R034040	Larraondo-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R045020	Ea-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R012010	Jaizubia-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R048030	Estepona-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R040060	Arantzazu-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R036010	Deba-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R044010	Artibai-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R074040	Larrainazubi-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R046010	Oka-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R030010	Urola-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R040040	Oinati-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R046020	Mape-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R075010	Barbadun-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R034010	Urola-E	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R034020	Urola-F	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R040020	Angiozar-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R042030	Kilimoi-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R040030	Ubera-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R045010	Lea-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R075021	Barbadun-B	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R040080	Antzuola-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R044020	Saturran-A	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111R034030	Altzolaratz-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R031020	Ibaieder-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111R048020	Butroe-B	2027	2021 edo lehenago	4.4
Aintzira	ES053MAL000070	Altubeko urmaelen gunea – Monrealgo putzua	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
Tartekoa	ES111T028010	Oria tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111T075010	Barbadun tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111T048010	Butroe tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111T046020	Oka kanpoaldea tartekoa	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111T046010	Oka barrualdea tartekoa	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111T044010	Artibai tartekoa	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111T034010	Urola tartekoa	2027	2021 edo lehenago	4.4
	ES111T042010	Deba tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111T045010	Lea tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111T012010	Bidasoa tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
Kostaldekoka	ES111C000015	Mompas-Pasaia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111C000010	Getaria-Higer	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111C000020	Matxitxako-Getaria	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
	ES111C000030	Kantabria-Matxitxako	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-

8.2. Eranskina. Azaleko ur-masa oso eraldatuertarako ingurumen-helburuak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
			Ekologikoa	Kimikoa	UEZeko art.
Ibai oso eraldatua (urtegiak izan ezik)	ES059MAR002780	Ibaizabal ibaia I	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES073MAR002920	Cadagua ibaia IV	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES026MAR002680	Asteasu ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES068MAR002860	Nerbioi ibaia II	2027	2027	4.3 4.4
	ES020MAR002510	Oria ibaia III	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES068MAR002842	Ibaizabal ibaia III	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES028MAR002662	Oria ibaia VI	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES060MAR002740	Elorrio ibaia I	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES073MAR002900	Cadagua ibaia II	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES068MAR002850	Ibaizabal ibaia IV	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R018011	Igara-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R042020	Deba-D	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES111R074030	Gobelas-A	2027	2027	4.3 4.4

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
			Ekologikoa	Kimikoa	UEZeko art.
	ES111R074021	Asua-A	2027	2027	4.3 4.4
	ES111R042010	Deba-C	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R074010	Galindo-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R041020	Ego-A	2027	2027	4.3 4.4 4.6
	ES111R040010	Deba-B	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R046040	Artigas-A	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R032010	Urola-D	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES111R030020	Urola-B	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
Aintzira edo ibai oso eraldatua (urtegiak)	ES051MAR002700	Maroño urtegia	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES020MAR002641	Ibiur urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES020MAR002530	Arriaran urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R030040	Barrendiola urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES017MAR002460	Añarbe urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R041010	Aixola urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES010MAR002440	San Anton urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES111R031010	Ibaieder urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES069MAR002860	Ordunte urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
ES111R040070	Urkulu urtegia	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3	
Tartekoa	ES111T068010	Nerbioi / Nervión barrualdea tartekoa	2027	2033	4.3 4.4
	ES111T068020	Nerbioi / Nervión kanpoaldea tartekoa	2027	2033	4.3 4.4
	ES111T014010	Oiartzun tartekoa	2027	2021 edo lehenago	4.3 4.4
	ES111T018010	Urumea tartekoa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3

8.3. Eranskina. Azaleko ur-masa artifizialeko ingurumen-helburuak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
			Ekologikoa	Kimikoa	UEZeko art.
Aintzira	ES011MAL000070	Domiko	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3
	ES020MAL000060	Lareo	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	4.3

8.4. Eranskina. Lurpeko ur-masetarako ingurumen-helburuak

Masaren kodea	Masaren izena	Betetze-horizontea		Salbuespena
		Kuantitatiboa	Kimikoa	Art. DMA
ES017MSBT013-007	Salvada	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-006	Mena-Orduña	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-006	Hegoaldeko antiklinorioa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-005	Itxina	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-004	Aramotz	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBTES111S000041	Arantzazu	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-007	Troya	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-005	Bizkaiko sinklinorioa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-002	Oiz	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBTES111S000042	Gernika	2021 edo lehenago	2033	4.4
ES017MSBT017-009	Iparraldeko antiklinorioa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBTES111S000008	Ereñozar	2027	2021 edo lehenago	4.4
ES017MSBTES111S000007	Izarraitz	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-014	Aralar	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT013-012	Basaburua-Ulzama	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-008	Gatzume-Tolosa	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBTES111S000015	Zumaia-Irun	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-002	Andoain-Oiartzun	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBTES111S000014	Jaizkibel	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-
ES017MSBT017-001	Mendigune paleozoikoak	2021 edo lehenago	2021 edo lehenago	-

9. ERANSKINA. OLGETA ERABILEREN INGURUKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA

Olgeta erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak egitea sustatuko da, bereziki kontsumorako ez den ura erabiltzen duten aisialdiko jardueri buruzkoak; hala nola, ur lasaietako kirolak (bela, windsurfa, arraunketa, motordun ontziak, urretako eskia, etab.), ur-amiletako kirolak (piraguismoa, raftinga, etab.) eta kirol-arrantza.

10. ERANSKINA. AZTERKETA HIDRAULIKOAK EGITEKO IRIZPIDE TEKNIKOAK

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Dokumentu honen helburua hirugarren batek uholde-arriskuen kartografia egiteko gutxieneko irizpide teknikoak ezartzea da, kartografia hori Administrazio Hidraulikoak zehazten ez badu.

Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60 Zuzentarauaren printzipioei jarraituz, abian jarri du Uholde-eremuen Kartografiaren Sistema Nazionala (SNCZI). SNCZi ibai-eremua kudeatzen laguntzeko, arriskuei aurrea hartzeko, lurraldearen plangintzarako eta administrazioaren gardentasuna lortzeko tresna bat da.

Uholde-eremuen Kartografiaren Sistema Nazionalaren (SNCZI) ardatz nagusia uholde-eremuen bisore kartografikoa da. Horrek interesa duen orori Jabari Publiko Hidraulikoaren (JPH) mugaketa-azterketak eta uholde-eremuen kartografia-azterketak bistaratzeko aukera ematen dio, bai Ministerioak, bai autonomia erkidegoek eginak.

Bestalde, Uholdeen Prebentziorako Plan Orokorraren (1992) esparruan, uholdeak gertatzeko arriskua aztertu zen EAEko sare hidrografikoaren zati handi batean; besteak beste, profil bakoitzeko ur-mailaren balioak lortu ziren, errepikatze-denbora desberdinentzat (10, 20, 50, 100, 500 eta 1000 urte), baita horiei zegokien uholde-eremuen azalera ere. Azterketa hori 2000-2005 urteen bitartean berrikusi zen, eta lan horiek osatzen dute lurraldeko uholde-arriskuaren oinarritzko kartografia. Informazio hori Uraren Euskal Agentziaren Informazio Geografikoaren Bisorearen bitartez (IDE-URA-WEB) eskura daiteke. Oro har, 500 biztanletik gora duten biztanle-gune guztietako uholde-arriskuaren kartografia dugu une honetan.

2. AZTERKETA HIDRAULIKOAK EGITEKO IRIZPIDEAK

Jarraian deskribatzen diren irizpideak erregimen hidraulikoa mantsoa duten ibai-tarteei aplika dakizkieke, fluxu unidimentsional egonkorraren eta ibai-ohere finkoaren hipotesiak baliozkoak badira. Ibaiak erregimen hidrauliko mistoa badu (azkarra-mantsoa), beste irizpide batzuk aplikatu beharko dira, eta irizpide horiek Administrazio Hidraulikoak eta azterlanaren zuzendaritzak adostutakoak izango dira. Erregimen hidraulikoa azkarra bada, berriz, aukera sinplifikatu batera joko da. Dena dela, dokumentu honen asmoa ez da ibaien portaerari buruzko kasuistika guztia jasotzea, eta horrenbestez, kasuan kasuko azterketa zehazki baloratuko da.

Gida honetan jaso diren atalak azterketa hidraulikoak egiteko jarraitzen den prozesuaren ohiko faseen arabera egituratu dira:

- a) Informazioa biltzea: aurretik egindako azterketak, informazio historikoa, etab.
- b) Landa-lanak: argazkiak, tokiko biztanle eta erakundeek emandako informazioa biltzea, jasotako informazioa egiaztatzea, etab.
- c) Modelazio hidraulikoa eta uholde-eremuak mugatzea errepikatze-denbora desberdinentzat: azterketa-mota, geometria, gehieneko emarien azterketak, inguruko baldintzak, zimurtasun-koefizientea, egiturak, uholde-eremuen mugaketa, lehenetsuneko fluxu-gunea, etab.
- d) Lanaren aurkezpena: txostena, mapak eta kalkulu-eranskinak.

Dokumentu hau egiteko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak gaur egun erabiltzen dituzten dokumentu tekniko eta metodologikoak hartu dira oinarri gisa; dena den, aldaketa batzuk egin dira ondorengo hauen eraginez:

- Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duen urtarrilaren 11ko 9/2008 Erre Dekretuaren onarpena. Bertan, lehen aldiz jasotzen da *Lehentasunezko Fluxu-gunea*-ren kontzeptua, eta gainera, dekretu horrek Uholde-eremuen Kartografiaren Sistema Nazionala eratzen du.
- Uholde-arriskuen Ebaluazioari eta Kudeaketari buruzko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren onarpena. Errege dekretu horrek 2007/60/EE Zuzentaraua Espainiako legerian txertatzen du, eta aurreko puntuan jasotakoaz gain, Administrazio Hidraulikoak uholde-arriskuaren kartografian moldaketak egin behar izatea eragin du, bai kartografia horren luzerari dagokionez, baita jaso behar duen informazioari dagokionez ere.
- Datu hidrometeorologiko berriak eskuragarri daude, baita erresoluzio altuko lurrazalaren eredu digitalak ere, eta horrek lehen aipatu diren lanak errazten ditu.
- Zenbakizko simulaziorako tresna berriak daude, zehaztasun handiagoko azterketak egitea ahalbidetzen dutenak eta arlo horretan diharduten profesionalen eskura daudenak.
- Beste administrazio batzuek egindako azterketak eskuragarri egongo direla aurreikusten da, bereziki, Kostaldean Zuzendaritza Nagusiarenak (MARM).

3. ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA BILTzea

Fase honetako lehen urratsean, azterketaren xede den eremuan izandako uholdeei buruzko datu historikoak bilduko dira, arrisku-maila ebaluatzeko. Informazio hori baliagarria izan daiteke aurrerago egingo diren ikerketen emaitzak balioesteko.

Ondoren, aurretik egindako azterketa hidraulikoak bilduko dira; zehazki, Uholde-eremuen Kartografiaren Sistema Nazionalak (SNCZI) eta URAK IDE-URA-WEB bitartez zabaldu duten kartografiarekin erlazionatutakoak. Bestalde, 2007/60/CE Zuzentaruaren harira egindako lanek azterketa hidrauliko horiek eguneratu eta osatuko dituzte.

Aurreikuspen horien arabera, honako egoerak aurki ditzakegu:

- a) Uholde-arriskuari buruzko azterketa eguneratua (URArena edo SNCZlarena) duten eremuak: azterketa hidrauliko berriak onartuko dira baldin eta aurretik daudenak zalantzarik gabe okerrak direla frogatzea lortzen bada.
- b) Uholde-arriskuari buruzko azterketa eguneraturik (URArena edo SNCZlarena) ez duten eremuak: kasu bakoitza banan-banan baloratuko da.
- c) Uholde-arriskuari buruzko Administrazio Hidraulikoaren azterketa sinplifikatuak dituzten eremuak: azterketa berri bat egingo da dokumentu honetan jaso diren argibide guztiak beren horretan aplikatuz.
- d) Uholde-arriskuari buruzko Administrazio Hidraulikoaren azterketarik ez duten eremuak, hau da, erreferentziako sare hidrografikotik kanpo daudenak: azterketa berri bat egingo da dokumentu honetan jaso diren argibide guztiak beren horretan aplikatuz.
- e) Aldaketa topografikoak eragingo dituztela-eta uholde-arriskua alda lezaketan jarduerak izango dituzten eremuak: kasu horietan, uneko egoera eta etorkizuneko aztertzeaz gain, zehaztasunez ikertu eta dokumentatu beharko dira ingurunearen uholde-arriskuan aldaketak eragin ditzaketen arrazoiak.

4. LANDA-LANAK

Hasteko, bildutako informazioa indarrean dagoela egiaztatu beharko da. Datu topografiko eta batimetriko berriak lortzerakoan, kontuan hartu beharko da Administrazio Hidraulikoak erreferentziako sare hidrografikoaren zati handi batean kartografia berrituta daukala, LIDAR hegaldiekin lortutako informazioarekin, 2007/60/EE Zuzentaruaren harira egindako lanen testuinguruan. Informazio hori gehitzeko, batetik, ibilguaren egituren altxamendu takimetrikoak egingo dira, eta bestetik, jatorrizko LEDa (lurrazalaren eredu digitala) berrezartzeko beharrezkoak diren batimetriak egin beharko dira. Egingo diren azterketa hidraulikoetan informazio hori baliatu ahal izango da, edo lan topografiko berriak egin ahaliko dira, baldin eta zehaztasun handiagokoak badira.

Irizpide orokor gisa, honako hauek dira karakterizazio geometrikorako bete beharreko baldintza topografikoak:

- a) Profilek fluxu-lerroekiko elkarzutak izan beharko dute.
- b) Profilaren zabalera uholde-eremuaren zabalera osoa hartu behar du, eta ibai hondoa baino 10 m gorago iritsi behar du gutxienez.
- c) Hiri-eremuetan, profilaren artean gehienez 50 metroko distantzia gorde behar da.
- d) Gainerako eremuetan, profilen arteko distantzia gehienez 175 eta 125 metro artekoa izango da.
- e) Ibairekiko elkarzutak edota paraleloak diren egiturak behar bezala irudikatu behar dira, baita bat-bateko sekzio-aldaketa guztiak ere.
- f) Aztergai den tartearen kartografia gutxienez 1:500 eskalako izango da, eta ibaiertz-marra zehatz mehatz definitu beharko da.
- g) Zeharkako profilek UTM (ETRS89 erreferentzia sistema) proiektzio sistemaren arabera egon behar dute geoerreferentziaturik.
- h) Laguntzeko, eskala egokiko ortoargazkiak erabili bieharko dira.

Azkenik, landa-lana egin bitartean, aztergai den tartearen zimurtasun-koefizienteak kalkulatu dira eta prozesua argazki-erreportaje batekin dokumentatu da.

5. MODELAZIO HIDRAULIKOA ETA UHOLDE-EREMUAK MUGATZEA ERREPIKATZE-DENBORA DESBERDINETARAKO

Modelazio hidraulikoari dagokionez, gutxienezko zenbait baldintza bete behar dira honako alderdi hauek direla-eta:

- a) Azterketa hidraulikoaren metodologia: dimentsio bakarrekoa egonkorra, dimentsio bakarrekoa ezegonkorra, ia bi dimentsiokoa, bi dimentsiokoa eta hiru dimentsiokoa.
- b) Ibilguaren, ertzen eta egituren eredu geometrikoa.
- c) Kalkulu-emariak zehaztea.
- d) Inguru-baldintzak: sarrera-emariak eta ibaian beherako baldintzak.
- e) Zimurtasun-koefizienteen zenbatespena, fuxuarekiko erresistentziaren balorazioa egiteko.
- f) Erregimen azkarra.
- g) Lehentasunezko fluxu-gunea.

5.1 Azterketa hidraulikoaren metodologia

Ondorengo irudi hau Iber eredu hidraulikoari buruzko dokumentaziotik aterata dago, eta bertan argi eta garbi adierazten dira azterketa hidraulikorako metodologia nagusiak eta horien aplikagarritasun-esparrua.

1D	1a 2D	2D	3D
Ibai-tarte luzeak	Gainezkatze lokalizatuak dituzten ibaiak	Estuarioak	Tokiko fluxua
Ubideak		Ibai-tarte laburrak	Isurtegiak
		Uholde-lautadak	Zubi-pilareak
		Ibilguz kanpoko fluxua	
		Obra hidraulikoak	

EKONOMIKOAGOA	←————→	KOSTU HANDIAGOA
SINPLIFIKATUAGOA	←————→	ZEHATZAGOA (oro har)

1D ereduaren kasuan, sekzioekiko perpendikularrak diren fluxu-lerroen hipotesitik eta sekzioko maila konstante batetik abiatzen da.

1a-2D ereduaren kasuan, ibaitik kanpoko gelaxketan, masaren kontserbazioaren ekuazioa baino ez da erabiltzen; eta beraz, gelaxka bakoitzean, ur-mailak soilik kalkulatzen dira, eta ez abiadurak.

2D ereduaren kasuan, kalkuluen eremua gelaxketan banatzen da, eta horietako bakoitzean, abiadura eta sakonera kalkulatzen dira. Momentuz ezin dira era orokorrean erabili, ibilguaren errepresentazio geometriko zehatza (dimentsio bakarreko ereduaren antzekoa) egin nahi izanez gero, oso gelaxka txikiak hautatu beharko liratekeelako, eta horrek kalkulu-denborak oso handiak izatea ekarriko lukeelako.

3D ereduak arazo puntualen kalkulurako baino ez dira erabiltzen; normalean, egiturak aztertu eta optimizatzeke, baina hori ez da agiri honen xedea.

Lortutako esperientziaren arabera, dimentsio bakarreko fluxuaren hipotesia demarkazioan egiten diren uholde-arriskuaren azterketa gehienetan aplikatu daiteke. Horrenbestez, oro har, HEC-RAS dimentsio bakarreko ereduaren proposatzen da dimentsio bakarreko modelizazio hidraulikorako, frogatutako sendotasuna duela, munduan oso hedatuta dagoelako, doako delako, hari buruzko eskuliburuak oso kalitate onekoak direlako eta bibliografia ugaria dagoelako. Hala ere, kontuan izan behar da azterketa hidraulikoa egiten duenaren erantzunkizuna dela kasu bakoitzean egiaztatzea dimentsio bakarreko ereduaren aplikatu daitekeela.

CEDEX aktiboki ari da eredu hidrodinamiko bat sustatzen, Iber izenekoa, UPC-ko eta UB-ko Flumen taldearekin, UDC-ko Grupo de Ingeniería del Agua y del Medio Ambiente (GEAMA) taldearekin eta Centro Internacional de Métodos Numéricos en Ingeniería (CIMNE) zentroarekin batera. Bi dimentsioko eredu hidrodinamiko horrek oso ezaugarri positiboak ditu; besteak beste: doakoa dela, interfaze grafiko indartsu eta intuitiboa duela, zenbakizko teknika modernoak dituzten kalkulu-moduluak dauzkala, oinarriko dokumentazioa eta dokumentazio aurreratuak dauzkala (bai ereduarenak, bai erabilitako zenbakizko teknikenak), profesionalentzako prestakuntza-ikastaroak daukela, etab.

Ezaugarri horiek direla eta, ondorioztatu daiteke eredu horren erabilera eta azterketa-metodologia hori etorkizun hurbilean orokortu egingo direla.

5.2 Ibilguaren eredu geometrikoa

Eredu geometrikoan, zuzen irudikatu beharko dira aztertutako ibai-tartearen ezaugarriak, alderdi hauek zehaztuz: ibilguaren eta ertzen topografia, dauden egiturak (zubiak, presa txikiak, etab.) eta zimurtasun-koefizienteak.

Zubien eta presa txikien azterketa hidraulikoari buruzko oinarrizko informazioa zein informazio aurreratu erreferentziako testuetan eta HEC-RASen dokumentazioan kontsulta daitezke. Dokumentu horietan azpimarratzen da garrantzitsua dela xehetasun handiko informazio topografikoa edukitzea eta, zubien kalkulu hidraulikoaren metodologia hautatzean, zubiaren funtzionamendua ongien islatzen duena aukeratzea.


Estalkiei eta hodie dagokienez, HEC-RAS ereduak oso kalkulu-algoritmo sinplifikatuak ditu, eta oso kasu sinpleetan baino ezin dira aplikatu. Gainerako kasuetan, beste metodo egokiago batzuk erabiltzea komeni da, hala nola, eredu hauetan aurki daitezkeenak: HY8 Culvert Analysis, Mouse, etab.

5.3 Kalkulu-emariak

Uholde-eremuaren mugaketa kartografikorako, uholdeak eragiten dituzten kausak zehazteko eta hobekuntza hidraulikoak eta ingurumen-hobekuntzak proposatzeko, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborei dagozkien emariak kalkulatu behar dira, gutxienez.

Administrazio Hidraulikoak emari maximoen mapak erabiltzaileen eskura jarriko ditu kartografiarekin erabiltzen duen sistema bera baliatuz, 2007/60/EE Zuzentarauaren harira egiten ari diren lanak amaitu ahala.

Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako bestelakorik ezean, 1664/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan jasotako balioak erabiliko dira.



5.4 Inguru-baldintzak

Apurka-apurka aldatzen den ibai-erregimen mantsoaren hipotesian oinarrituta aztertutako ibai-tarte baterako, bi inguru-baldintza behar dira: sarrera-sekzioko emaria eta ibaian beheko sekzioko kota bat.

Finkatzen den inguru-baldintzak azterketaren xede den ibai-tartetik behar bezain urrun egon beharko du, egon litezkeen zirugabetasunek kalkuluaren emaitzetan eraginik izan ez dezaten.

Oro har, 300-2.000 metro arteko distantzia bat hautatu beharko da, baldin eta kontrol-sekzioren bat (sakonera kritikoa) ez badago azterketaren tartetik gertuago. Nolanahi ere, uholde-lautadaren zabaleraren pareko luzera bat hartzea gomendatzen da.

Azterketa itsasoaren bokalean hasten bada, inguru-baldintzak uholde-arriskugarritasun eta -arriskuaren mapak prestatzeko erabilitakoak izango dira, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasuneko Zuzendaritza Nagusiak eta Adnistrazio Hidraulikoak egin dituzten lanei jarraiki.

5.5 Zimurtasun-koefizientearen kalkulua

Landa-bisitetan jasotako informazio zehatza, lurzorua erabilerei buruzko informazio orokorra eta aireko argazkiak dira ibilguaren eta ertzen zimurtasun-koefizienteak kalkulatzeko oinarria.

Literatura zientifikoa, metodo ugari proposatu dira ibaien ibilguaren eta uholde-lautaden zimurtasun-koefizienteak zenbatesteko.

Gaukler-Manning-Stricker-ek proposatutako formulazioa maiz erabiltzen den hurbilketa bat da, eta zehaztasunez dokumentatuta dago oinarri hidraulikoei buruzko HEC-RASen eskuliburuan. Bertan aipatzen dira Chow-en (1959) "Open-channel hydraulics" lan klasikoan material mota desberdinetarako jasotzen diren balio-tarte bereizgarri batzuk. Gaukler-Manning-Stricker-en zimurtasun-koefizienteetarako balioak honako lan hauetan daude dokumentatuta, besteak beste: Chow (1959), Henderson (1966), Barnes (1967), Streeter (1971) eta USGS, "Guía para seleccionar los coeficientes de rugosidad de Manning en ríos y llanuras de inundación" (1989).

Aipatu beharra dago Gaukler-Manning-Stricker-en koefizientea faktore ugariaren menpe dagoela; esaterako, gainazalaren zimurtasuna, landaredia, sekzioaren irregulartasunak, meandroen existentzia, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, sakonera eta emaria, eta hondoko jalkinen eta jalkin esekien garria.

HEC-RAS hidraulikako erreferentziako eskuliburuan, Gaukler-Manning-Stricker-en koefizienteen zenbait balio-tarte daude gainazal desberdinetarako: segurtasun handiagoa izateko, balio-tarte horien balio ertain-maximoak erabiltzea komeni da. USGSk, bere web-orrian¹, ibilguen zimurtasunaren erreferentzia-balio batzuk argitaratu ditu, argazkiekin batera, eta argazki horiek lagungarriak izan daitezke zimurtasun-koefizienteak zenbatesteko.

Bestalde, lehen aipatutako literaturan, Cawen-en metodoa deskribatzen da. Metodo horrek, zimurtasun-koefizientea zenbatestean, beste faktore batzuk ere kontuan hartzen ditu; esaterako, zeharkako sekzioaren aldaketak, ibilguaren irregulartasunak, oztopoak, landaredia eta meandroak. Metodo horrek aukera ematen du xehetasun gehiago sartzeko zimurtasun-koefizienteak zenbatestean; beraz, horixe erabiltzea komeni da, balio minimoak erabili direla justifikatu behar bada.

5.6 Erregimen azkarra

Orain arte deskribatutako metodoa erabilgarria izan daiteke erregimen azkarra eta mistoa definitzeko eta kalkulatzeko. Horretarako, inguru-baldintzak behar bezala aldatuko dira, eta eredutik ibaian gora kokatutako sekzioan baldintza bat finkatuko da. Arazoak erregimen azkarreko uholde-eremuak eta sakonera definitzerakoan sortzen dira; izan ere, erregimen azkarrari dagokion sakonera oso ezegonkorra da, eta uraldiak sortutako edozein oztopok (iraunkorra nahiz aldi baterakoa izan) goragune bat sor dezake eta horrela erregimen azkarretik erregimen mantsora pasatzea ibai-tartearen edozein puntutan.

Bada, azterketa hidraulikoaren emaitzek ez dutenez egoki adierazten zenbateko arriskua dagoen, erregimen azkarreko profil bakoitzarekin lotzen den sakonera dagokion sakonera konjugatua izatea proposatzen da. Sakonera hori automatikoki kalkulatzeko zaila denez, sakonera konjugatutzat honako hau hartzea proposatzen da: profil horretarako energia-kota ken 2,5 m/s-ko abiadurari dagokion energia zinetikoa. Hortaz, energia-kota ken 0,30 metro gisa defini daiteke sakonera, betiere kota hori erregimen azkarrean kalkulaturako ur-laminaren azpitik ez badago.

¹ <http://www.camnl.wr.usgs.gov/sws/fieldmethods/Indirects/nvalues/index.htm>

5.7 Lehentasunezko fluxu-gunea

Lehentasunezko fluxu-gunea mugatzeko, lehenik eta behin, zehaztu egingo da zer eremutan eragin ahal zaizkien kalte larriak pertsoneri eta ondasunei; hau da, zein diren baldintza hidrauliko hauetako bat edo gehiago betetzen dituzten eremuak:

- Sakonera 1m-tik gorakoa izatea.
- Abiadura 1 m/s baino handiagoa izatea.
- Bi aldagai horien biderkadura $0,5 \text{ m}^2/\text{s}$ baino handiagoa izatea.

Eremu horiek mugatu ondoren, hustutze biziko bidea zehaztuko da, eta, azkenik, lehentasunezko fluxu-gunea ere zehaztuko da, aurreko bien ingurutzaila gisa.

Metodologia horri buruzko informazio zehatza “Guía Metodológica para el desarrollo del Sistema Nacional de Cartografía de Zonas Inundables” argitalpeneko 8.2 kapituluari aurki daiteke.

6. LANAREN AURKEZPENA

Atal honetan azterketa hidrauliko batekin jaso behar den gutxieneko dokumentazioa adierazten da.

Memorian honako alderdi hauek sartu behar dira, gutxienez:

Azterketa hidraulikoa egiteko hipotesiak eta haien justifikazioa: hautatutako analisi-metodologia, inguru-baldintzak, egituren kalkulu hidraulikoa, zimurtasun-koefizienteen zenbatespena eta erabilitako kalkulu-emariak.

Hasierako datuak: dauden egituren deskribapena, topografia, eredu digitala, airetikako argazkiak eta zeharkako profilak.

Emaitzak: korrontearen ur-mailaren altuera, uholde-eremuen mugak aztertutako errepikapen-denbora desberdinetarako, lehentasunezko fluxu-gunea barne eta zubietatik zein presetatik gertu lortutako emaitzak.

Eranskinak:

- Topografia: topografia-lanak egin dituen empresa, profilak, egiturak, zeharkako profilak (erlazio konstantea izan behar dute eskala horizontalaren eta eskala bertikalaren artean), etab.
- Zimurtasunak: lurzorua erabileraren mapak, argazki-dokumentazioa, hautatutako balioak, etab.
- Korrontearen luzetarako profilak.
- Zeharkako sekzioak, ur-mailarekin (eskala horizontalaren eta bertikalaren arteko erlazioak konstante izan behar du).
- Uraldiak hartutako eremuen oinplanoa, aztertutako errepikatze-denboretarako, eta profil bakoitzaren ur-mailaren kota adierazi behar da, kolore hauek erabiliz:
 - a) 10 urteko errepikatze-denbora: Kolore gorria
 - b) Lehentasunezko fluxu-gunea: More koloreko marra jarraia
 - c) 100 urteko errepikatze-denbora: Kolore laranja
 - d) 500 urteko errepikatze-denbora: Kolore urdina
- Emaitza orokorren eta zubien modelizazioen taulak.
- Lurrazalaren eredu digitala.

Dimentsio bakarreko azterketen kasuetan, eredu hidraulikoen fitxategiak, profil georreferentziatuekin eta kalkulu-emaitza guztiekin.

Dato geografiko guztiak entregatu behar dira Administrazio Hidraulikoak informazio geografikoa entregatzeari buruz ezartzen dituen zehazpenen arabera.

11. ERANSKINA. ZUBIAK DISEINATZEKO BABESAK

Arroa (km ²)	Babesa (m)
5	0,15
10	0,25
25	0,40
50	0,50
100	0,75
1.000	1,00
2.000	1,50

12. ERANSKINA. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN APLIKATU BEHARREKO ERREFERENTZIAZKO BALIOAK ISURKETETATIK URETAN BEHERA INGURUMEN-HELBURUAK BETETZEKO

43.2 artikuluan adierazitako aurreikuspenaren ondorioetarako, honako erreferentzia-balio hauek erabiliko dira:

Substantzia edo adierazlea	Unitatea	Erreferentziako balioa
Nitratoak	mg NO ₃ /l	15
Amonioa	mg NH ₄ /l	0,5
Oxigeno-eskaera biologikoa (5 egun)	mg/l	5
Dikromatorako oxigeno-eskaera kimikoa	mg/l	17
Solido esekiak	mg/l	25
Uraren tenperatura (ibaian behera dagoen igoera, ibaian gorakoarekin alderatuta)	°C	< 1,5
Elektrizitate-eroaletasuna 20 °C-tan (ibaian behera dagoen igoera, ibaian gorakoarekin alderatuta)	μS/cm (%)	< 20

13. ERANSKINA. 2.000 BIZTANLETIK BEHERAKO HERRIGUNEETAN ARAZKETA-INSTALAZIOAK DISEINATZEKO IRIZPIDEAK

1. Oro har, 2.000 biztanletik beherako biztanle baliokideak arazteko instalazioen artean saneamendu orokorrerako hartunea egitea ezinezkoa denean, hurrengo taulako irizpideak erabiliko dira erreferentzia gisa, ingurumen-helburuak betetzeko hala behar denean isurketa-baldintza zorrotzagoak ezartzeari kalterik egin gabe.

Biztanle baliokideak	Arazketa mota (edo errendimendu baliokidea duten prozesuak)	Kutsadura murrizteko gutxieneko errendimenduak
< 25	Putzu septikoa edo dekantazio- eta digestio-putzua. Ahal izanez gero, hustuketa lurretik iragazita.	Solido esekiak: % 60 DBO5: % 35 DQO: % 35
25 – 250	Putzu septikoa edo dekantazio-digestio putzua gehi iragazki biologiko perkolatzailea.	Solido esekiak: % 80 DBO5: % 75 DQO: % 70
250 – 2.000	Oxidazio osoa (biodiskoak, lohi aktiboak aireztapen luzean edo antzeko errendimenduko prozesuak).	Solido esekiak: % 85 DBO5: % 90 DQO: % 80
250 – 2.000, eta eremu sentikorrera isurketa	Mantenugaiak murrizteko instalazio osagarriak	Solido esekiak: % 85 DBO5: % 90 DQO: % 80 Fosoforoa, guztira: % 80

2. Aurreko ataleko instalazioetarako ematen diren isurketa-baimenetan, arazketa motaren araberrako emisioaren gehieneko balioak (kutsatzaile bakoitzaren mg/l, JPHEaren 251.1.b).2.a artikulua) eta kutsaduraren murrizketa-errendimendu minimoak ezarriko dira.

14. ERANSKINA. NEURRIEN PROGRAMAREN LABURPENA

14.1 gehigarria. Neurrien programaren laburpena, jarduketa motaren arabera.

GAKOA	NEURRI-MOTAREN DESKRIBAPENA	NEURRI KOPURUA	ZENBATEKOA GUZTIRA (M€)	ZENBATEKOA 22-27 (M€)
1	Unean uneko kutsadura murriztea	90	714,391	507,895
2	Kutsadura lausoa murriztea	14	27,234	18,339
3	Ur erazketen ondorioz sortutako presioa murriztea	2	6,500	6,500
4	Baldintza morfologikoak hobetzea	12	17,487	14,648
5	Baldintza hidrologikoak hobetzea	6	0,740	0,615
6	Ur-ekosistemen egitura eta funtzionamendua kontserbatzeko eta hobetzeko neurriak	10	14,843	10,244
7	Beste neurri batzuk: inpaktuei lotutako neurriak	1	0,005	0,005
9	Beste neurri batzuk (presioei eta inpaktuei zuzenean lotuta ez daudenak): edateko ura babesteko berariazko neurriak	4	0,840	0,740
11	Beste neurri (batzuk presioei eta inpaktuei zuzenean lotuta ez daudenak): Gobernantza	63	62,841	46,137
12	Eskuragarri dauden baliabideak handitzea	33	584,580	218,418
13	Uholdeei aurrean hartzeko neurriak	23	32,523	18,688
14	Uholdeetatik babesteko neurriak	26	86,350	86,338
15	Uholdeen aurrean prestatzeko neurriak	14	8,760	7,910
19	Urarekin lotutako beste erabilera batzuei erantzuteko neurriak	1	2,500	2,500
GUZTIRA		299	1.559,593	938,976

14.2 gehigarria. Neurrien programaren laburpena, jarduketaren helburuaren arabera.

GAKOA	HELBURUAREN IZENA (3. taula, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 6. Eranskina)	NEURRI KOPURUA	ZENBATEKOA GUZTIRA (M€)	ZENBATEKOA 22-27 (M€)
1	Azterlan orokorrak eta plangintza hidrologikoari buruzkoak	35	17,560	12,951
2	Jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa eta administrazioa	25	22,446	19,566
3	Jarraipen eta informazio hidrologikoko sareak	27	33,139	22,849
4	Jabari publiko hidraulikoa lehengoratztea eta kontserbatzea	26	44,901	29,893
5	Uholde-arriskuaren kudeaketa	50	115,639	101,792
6.2	Ureztatze-azpiegiturak	1	6,500	6,500
6.3	Saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak	80	691,900	486,074
6.4	Hornidura-azpiegiturak	2	44,041	34,999
6.6	Berrerabiltzeko azpiegiturak	1	0,550	0,550
6.7	Beste azpiegitura batzuk	27	545,734	188,614
6.8	Azpiegiturak mantentzea eta kontserbatzea	1	0,301	0,225
7	Azpiegituren segurtasuna	3	0,215	0,215
8	Akuiferoak berreskuratzea	1	2,123	1,623
9	Bestelako inbertsioak	20	34,544	33,125
GUZTIRA		299	1.559,593	938,976

14.3 gehigarria. Neurrien programaren laburpena, administrazio eskudunaren arabera.

GAKOA	Helburuaren izena (4. taula, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 6. Eranskina)	ZENBATEKOA GUZTIRA (M€)	ZENBATEKOA 22-27 (M€)	Administrazio eskudun bakoitzak finantzatzen duen ehunekoa			
				EAO	AEA	TA	GAINERA KOAK
1	Azterlan orokorrak eta plangintza hidrologikoari buruzkoak	17,560	12,951	7,0	54,8	2,6	35,5
2	Jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa eta administrazioa	22,446	19,566	9,3	90,7	0,0	0,0
3	Jarraipen eta informazio hidrologikoko	33,139	22,849	18,6	60,9	20,5	0,0
4	Jabari publiko hidraulikoa lehengoratzea eta kontserbatzea	44,901	29,893	16,1	73,5	10,4	0,0
5	Uholde-arriskuaren kudeaketa	115,639	101,792	5,7	89,0	1,3	4,0
6.2	Ureztatze-azpiegiturak	6,500	6,500	0,0	0,0	50,0	50,0
6.3	Saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak	691,900	486,074	41,3	18,4	24,3	16,0
6.4	Hornidura-azpiegiturak	44,041	34,999	42,9	0,0	0,0	57,1
6.6	Berrerabiltzeko azpiegiturak	0,550	0,550	0,0	50,0	0,0	50,0
6.7	Beste azpiegitura batzuk	545,734	188,614	21,3	11,3	38,7	28,7
6.8	Azpiegiturak mantentzea eta kontserbatzea	0,301	0,225	0,0	100,0	0,0	0,0
7	Azpiegituren segurtasuna	0,215	0,215	93,0	7,0	0,0	0,0
8	Akuiferoak berreskuratzea	2,123	1,623	0,0	100,0	0,0	0,0
9	Bestelako inbertsioak	34,544	33,125	65,2	33,8	0,0	1,0
TOTAL		1.559,593	938,976	31,4	29,3	21,7	17,5

EAO: Estatuko Administrazio Orokorra konfederazio hidrografikoak, AEA: Autonomia-erkidegoetako administrazioa, TA: Toki-administrazioak, GAINERAKOAK: Gainerako agente finantzatzaileak .

15. ERANSKINA. URAREN UNITATE KOSTUAK, LEGEZ KANPOKO ERAUZKETEK ERAGINDAKO KALTEAK BALORATZEKO.

Uraren erabilera	Biztanleriaren hornidura	Ureztatzea	Abeltzaintza	Erabilera industrialia
Unitate kostua (€/m ³)	1,68	0,63	0,63	2,02

16. ERANSKINA. 13-IX-2017 JARRAIBIDEA, URAREN ZUZENDARITZA NAGUSIARENA

2017ko irailaren 13ko Jarraibidea, Uraren Zuzendari Nagusiarena, IBAI-JATORRIKO UHOLDE-ARRISKUKO EREMUETAN LURZORUAREN ERABILERA MUGATZEN DUEN JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN ERREGELAMENDUAREN ARAUDIA APLIKATZEN LAGUNTZEKO GIDA TEKNIKOA onartzen duena.

https://www.miteco.gob.es/es/agua/temas/gestion-de-los-riesgos-de-inundacion/guia-tecnica-rdph-usos-suelo-zonas-inundables_tcm30-425866.pdf

17. ERANSKINA. TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOAK DEMARKAZIOAREN ESTATU-ESKUMENEKO ALDERDIARENTZAT EGINDAKO INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA TXERTATZEA

I. Sarrera:

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoaren ingurumen-ebaluazioa ebazten duen Ingurumen Adierazpen Estrategikoa Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta, ondoren, 2022ko azaroaren 22ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.1 artikulua ezartzen duenez, sustatzaileak, kasu honetan Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, ingurumen-adierazpen estrategikoaren edukia planean sartu behar du, eta, TRLAn eta aplikatu beharreko gainerako legeria sektorialean aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak onartu behar du.

Gainera, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.2 artikulua honako hau xedatzen du:

Plana edo programa onartu eta hamabost egun balioduneko epean, organo substantiboak agiri hauek bidaliko ditu, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldezkarri ofizialean argitara daitezten:

- a) *Plana edo programa onartzeko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jendearen eskura jartzeko erabiliko duen helbide elektronikoen erreferentzia.*
- b) *Laburpen bat, honako alderdi hauek jasotzen dituena:*
 - 1. *Nola integratu diren planean edo programan ingurumen-alderdiak.*
 - 2. *Nola hartu diren kontuan planean edo programan ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-adierazpen estrategikoa barne, bai eta, hala dagokionean, prozesuan sortu diren desadostasunak ere.*
 - 3. *Hautatutako aukera aukeratzeko arrazoiak, kontuan hartutako alternatibei dagokienez.*
- c) *Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean duen eraginaren jarraipena egiteko hartutako neurriak.*

Aipatutako betekizunen a) idatz-zatia osatzeko, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da errege-dekretu onargarri hau, zeinaren bigarren xedapen gehigarriak adierazten baitu zein helbide elektronikoren bidez eskura daitekeen plan hidrologikoaren eduki osoa.

Hurrengo orrialdeetan, aipatutako aginduaren b) eta c) idatz-zatietan adierazitako edukia azaltzen da, bereziki azpimarratuz ingurumen-adierazpen estrategikoa eta plan hidrologikoak hura kontuan hartuta hartzen dituen konpromiso berriak nola hartu diren kontuan.

Bestalde, eranskin hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den plan hidrologikoaren arau-zatian txertatuta dago, eta ingurumen-adierazpen estrategikotik eratorritako betebeharrak lotesleak ere jasotzen ditu, eta, beraz, dagokion ondorioak eragiten dituzte.

II. Plan hidrologikoa edo plan horretan jasotako neurrien programan ingurumen-alderdiak integratzearen emaitza.

Jarraian, laburbilduta identifikatzen dira plan hidrologiko honek 2022-2027 aldirako egindako berrikuspenean ingurumen-adierazpen estrategikoan arreta espezifiko merezi izan duten edukiak, eta adierazpen horretan ezarritako zehaztapenak plan hidrologikoa nola txertatu diren azaltzen da. Horretarako, kontuan hartu da, ingurumen-adierazpenaren arabera, “zehaztapen horiek edukiei buruzko iradokizun zehatz gisa formulatzen direla, eta, hala badagokio, iradokizun gisa, ahal den neurrian eta lehenetsitako araudiari kalterik egin gabe, ingurumen-alderdiak horiek kokatzen dituzten arauetan integratzea hobetzeko”.

Adierazpenean, ingurumen-zehaztapenak honako alderdi hauei buruzkoak dira:

- a) Ur-masa oso eraldatuak izendatzeari eta potentzial ekologiko onaren erreferentzia-baldintzei buruz.
- b) Baliabideak esleitzeari eta erreserbatzeari buruz.
- c) Emari ekologikoen erregimena ezartzeari buruz.
- d) Ingurumen-helburuak lortzera bideratutako neurrien programako jardueri buruz.
- e) Eskariei erantzuteko neurrien programako jardueri buruz.
- f) Natura 2000 Sarean eragiteko gaitasuna duten jarduketei buruz.
- g) Ingurumen-jarraipenari buruz.

Horrekin guztiarekin, jarraian azaltzen da plan hidrologiko honek nola integratzen dituen adierazitako gai ei buruzko ingurumen-adierazpenean zehaztutako azken zehaztapenak, neurriak eta baldintzak.

- a) Ur-masa oso aldatuen izendapenari eta potentzial ekologiko onaren erreferentzia-baldintzei buruz: Ingurumen-adierazpenak azpimarratzen du garrantzitsua dela azterketak egitea Uraren Esparru Zuzentaruak ur-masa horien potentzial ekologikoa ebaluatzeko eskatzen dituen adierazleak osatzeko. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da adierazlearen garapena, eta, oro har, azaleko ur-masen egoera edo potentziala ebaluatzeko sistema, ez dela modu independentean egiten plangintza-eremu bakoitzeko eta plan hidrologiko bakoitzeko, baizik eta modu komun, koordinatu eta zentralizatuan, erregelamenduzko arauen bidez araututa. Emaitzak arau orokorretan zehazten dira, hala nola irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan, azaleko ur-masen egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzen dituen, eta ingurumen-kalitatearen arauak. Arau horrek ahalmena ematen dio Ingurumeneko estatu-idazkariari protokoloak, jarraibideak eta gida-dokumentuak onartitzean, ur-masen ebaluazioaren betekizunen xehetasuna osatzeko. Dokumentu horien artean, honako hauek aipa daitezke SEMAren Instrukzioa, 2019ko apirilaren 22koa, Ibai kategoriako ur-masen karakterizazio hidromorfologikorako protokoloaren berrikuspene eta ibai kategoriako ur-masen adierazle hidromorfologikoen metrikak kalkulatzeko protokoloa onartzen dituen; edo SEMAren Instrukzioa, 2020ko urriaren 14koa, Plangintza Hidrologikoaren hirugarren zikloko Ur Masen Egoera Ebaluatzeko Gutxieneko Baldintzak ezartzen dituen.

Azken jarraibide horrekin batera, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak azaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gida onartu eta argitaratu zuen, eta, bereziki, kasu honetan Ibai kategoriako ur-masa oso eraldatuak eta artifizialak identifikatzeko eta izendatzeko prozesuaren gida kontuan hartzeko. Dokumentu hori Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduekin, Plangintza Hidrologikoaren Jarraibidearekin eta CIS 37. gidarekin bat etorri zuten. Ez dirudi egokia plan hidrologikoak erregelamendu bidez ezarritako prozedura orokorretik bereziki aldentzea. Nolanahi ere, Demarkazioaren Azterketa Orokorra eguneratzeko unean (Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduen 78. artikulua) ur-masa horien karakterizazioaren hurrengo berrikuspenera begira, ingurumen-adierazpen estrategikoan nabarmentzen diren jarraitutasun- eta frankeagarritasun-arazoak aztertuko dira.

Bestalde, ingurumen-adierazpena kontuan hartuta, zenbait ur-masaren karakterizazioa justifikatzen duten fitxak berrikusi dira, eta oso aldatutzat edo artifizialtzat sailkatu dira, bai eta prozesu osoan zehar sortutako dokumentazioa ere. Halaber, aurrez ezarritako alderdiak egiaztatu dira, eta, beraz, definizioari eutsi zaio.

Aurrekoari kalterik egin gabe, karakterizazio horren beste berrikuspen bat egingo da Demarkazioaren Azterlan Orokorraren berrikuspenaren esparruan, eta, adierazi den bezala, plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspena formalizatu aurretik egin behar da. Berrikuspen horretan, lehentasunez hartuko dira kontuan ingurumen-adierazpenean jasotako kasu zehatzak eta oharrak, baldin eta ez badira Europako Batzordeak zuzendutako UEZ Ezartzeko Estrategia Bateratuaren barruan ur-masak sailkatzeko metodologia horiei buruz zehazten diren lehentasunezko arauen edo akordioen aurkakoak.

Neurrien programak ibai-eremua eta ibaiertzekoa lehengoratzeko eta hobetzeko hainbat jardura biltzen ditu, Gobernuak bultzatzen duen eta Biodibertsitatearen Europako Estrategiarekin bat egiten duen Ibaiak Leheneratzeko Estrategia Nazionalaren barruan. Lan-ildo horretan, oso aldatuta dauden ur-masak lehengoratzeko gaitasunak baloratu dira, eta, azkenik, egoera berriz ebaluatu ondoren, plan hidrologikoan adierazitakoak halakotzat jo dira.

Etorkizunari begira, karakterizazio horren eta, ondorioz, oso aldatutako ur-masen izendapena eguneratzearen hurrengo berrikuspenean, aztertuko da, ingurumen-adierazpenak gomendatzen duen bezala, aldaketa eragin duten jardura sozioekonomikoen amaiera posiblea, eta, ondorioz, aldaketaren aurreko baldintza naturalak berreskuratzeari uko egitea.

- b) Baliabideen esleipenari eta erreserbari buruz: demarkazioko baliabide hidrikoen esleipenen eta erreserben kalkulua berrikusi da, ingurumen-adierazpenaren gomendioak kontuan hartuta, baldin eta ez badira lehenetsitako araudiaren aurkakoak.

Erauzketa bidezko presio esanguratsuekin identifikatutako ur-masen kasu zehatzean, Plan Hidrologikoak ES017_2_1218 neurria jasotzen du, Busturialdeko hornidurarako LEParen obrak garatzekoa, lehentasunezko jarduerak. Neurri horren bidez, eskualde horretako hornidura-sistemen esku jarriko dira Nerbioi-Ibaizabal Sistematik datozen baliabide arautuak, eta, ondorioz, murriztu egingo dira gaur egun presio horien mende dauden ur-masetako erauzketak.

- c) Emari ekologikoen erregimena ezartzeari buruz: Plan hidrologiko hau onartzerakoan indarrean dagoen esparru juridikoarekin, emari ekologikoen erregimenak plan hidrologikoetan finkatu behar dira, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan adierazitakoaren arabera, eta, zehatzago, Plangintza Hidrologikoaren Jarraibidearen 3.4 atalean adierazitako baldintzei jarraituz. Gainera, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak emari ekologikoen erregimen horien galdagarritasunari, kontrolari eta aplikazioari buruzko irizpideak ezartzen ditu. Arauzko betekizunen multzo horrek, besteak beste, honako hauek finkatzen ditu: ezarri beharreko emari ekologikoen erregimenaren osagaiak, normaltasun hidrikoko eta lehorte luzeko egoeretan aplikatzea, Natura 2000 Sareko espazioetan lehorteagatik hain zorrotzak ez diren erregimenak ez aplikatzea, etab. Gainera, oinarri horien gainean ezarritako jurisprudentzia garrantzitsua dago.

Arau-multzo hori eguneratze-prozesuan dago; Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua aldatu zen, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua erreformatzeko prozesuan dago, eta uren legearen testu bateginaren hurrengo erreforma bat aurreikusten da, eta, ziurrenik, horren ondorioz beste erregelamendu-eguneratze bat egingo da etorkizunean. Emari ekologikoen araubide juridikoa da, ziurrenik, berrikusi beharreko gaitako bat. Esparru horretan, eta ez beste esparru batean, balioetsi ahal izango dira ingurumen-adierazpen estrategikoan osagai berriei buruz edo indarreko araudian jasotakoez bestelako betebeharrei buruz jasotako oharrak.

Une honetan, eta oso kasu berezietan izan ezik, ezin da aldatu plan hidrologikoan zehaztutako emari ekologikoen erregimena, ingurumen-adierazpenean adierazitako helburu bereziei erantzuteko. Horri kalterik egin gabe, plan hidrologikoan adierazitako irizpide orientatzaile asko hartu dira kontuan, hala nola ur-masa gehienetan emari ekologikoen erregimenaren osagaiak berrikustea edo osatzea, edo demarkazioko laku kategoriako ur-masa bakarrerako ur-beharren estimazioa, nahiz eta oraingoz ezinezkoa izan den araudian eska daitezkeen emaitzak lortzea, horien betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko. Plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspenari begira, aurrera egingo da horrelako espazioen behar hidrikoen definizioan, ahal den neurrian, ingurumen-adierazpenean adierazitako orientabideak kontuan hartuta.

Emari ekologikoen erregimena ezartzea erauzketa-presioen eta aldaketa hidrologikoen aurrean arintzeko neurri bat da, ez ingurumen-helburu bat. Testuinguru horretan, ez du funtzionaltasunik hileko batez besteko emarien osagai bat finkatzeak, ingurumen-adierazpenak iradokitzen duen bezala.

Bestalde, ez da ahaztu behar plan hidrologikoak finkatzen dituela emari ekologikoak; ondorioz, ezin da banakako zehaztapenik egin emakida-eskaera bakoitzean, eta, besterik gabe, ezarritako lehenetsuneko murrizketei egokitu beharko zaie (ikus uren legearen testu bateginaren 59.7 artikulua). Era berean, ezinezkoa da emakidak oro har ukatzea, kasuz kasu aztertu behar dira eta espezifikoki baloratu. Emakida berri bat eman aurretik, Konfederazio Hidrografikoak plan hidrologikoarekin bateragarria den aztertuko du, eta, besteak beste, planean ezarritako emari ekologikoen erregimenak errespetatzeko beharra baloratuko du. Bateragarritasun hori egiaztatzea ezinezkoa bada, emakida ez da emango. Ingurumen-adierazpenari ez dagokio emakidak emateko edo izapidetzeko prozedura zehaztea. Gai hori Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan ezarrita dago, ingurumen-adierazpenaren gaineratik dagoen erregelamendu-arauan.

Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea ez dela beharrezkoa, emakidak aldatzea emari ekologikoen erregimena ezartzeko. Alderdi horrek zerikusia du balizko kalte-ordain eskubideekin, eta Auzitegi Gorenak behin eta berriz epaitu du, jurisprudentzia esanguratsua finkatuz.

Bestalde, ingurumen-adierazpenean adierazten den bezala, neurri-programetan emari ekologikoen erregimena egokitzeko jarraipen-lanak eta gaur egun ezarritako emari ekologikoen erregimena hobetzeko azterlanak sartu dira, Plangintza Hidrologikoaren Jarraibidean adierazitako baldintzetan.

Ingurumen-adierazpenak adierazten duena gorabehera, ezin da onartu emari ekologikoen helburua aldatutako erregimen erreala erregimen naturalera hurbiltzea denik. Lortu nahi den helburua egoera ona edo potentzial ekologikoa eta egoera kimiko ona da, Uraren Esparru Zuzentarauak eta uren legearen testu bateginak adierazten duten bezala. Emari ekologikoen osagaiek arrain-fauna eta ibaiertzeko landaredia mantentzeko inpaktuak arintzen dituzte, eta ur-masen egoera onari beharrezko euskarria ematen diote.

Era berean, okerra da interpretatzea emari ekologikoen erregimenak biodibertsitatearen galeraren bat bere gain hartzen duela. Plan hidrologikoak ez du onartzen biodibertsitate-galerarik, ez eta horiek eragiten duten narriadurarik ere. Ez da zuzena balizko galera hori erlazionatzea emari ekologikoen erregimenaren osagaiak zehazteko erabiltzen den habitat potentzial erabilgarriaren ehunekoarekin. Osagai horiek, besterik gabe, afekzioak arintzea dute helburu, plan hidrologikoak nahitaez erabili behar duen zentzuzko eta arauzko maila batean.

Gai horri dagokionez, ingurumen-adierazpen estrategikoak azpimarratzen du garrantzitsua dela neurgailuak izatea emakiden eraginpeko tartetan benetan zirkulatzen duen emaria kontrolatzeko. Horri dagokionez, gogora ekarri behar da emari deribatuak eta itzulkinak kontrolatu behar direla, erregelamendu-izaerakoak, eta, bestalde, kontrol-prozedura horiei guztiei ematen zaien bultzada Ekonomiaren Berreskurapenerako eta

Eraldaketarako Proiektu Estrategikoaren bidez: Uraren zikloaren digitalizazioa, Jaurlaritzak 2022ko martxoan onartua.

Baliteke definitutako emari ekologiko batzuek, osagaietako batzuek edo plan hidrologikoan finkatutako aintziren eta hezeguneen behar hidrikoek plan hidrologikoan interesa duten alderdi guztien gehiengoaren babesa ez izatea, baita hainbat iturritatik datozen txosten kontraesankorrak egotea ere. Plan hidrologikoak ez dira adostasunez onartzen, Jaurlaritzak bere gain hartzen du plan horiek interes orokorraren arabera bidezkotzat jotzen dituen baldintzetan onartzeko erantzukizuna. Nolanahi ere, emari ekologikoekin lotutako problematika demarkazio hidrografikoaren Gai Garrantzitsutzat jo zen, eta plana egitean garatutako partaidetza-prozesuetan arreta eta ahalegin handiagoa behar izan duten alderdietako bat izan da.

Plan hidrologikoak emakiden epeak ezartzen ditu, Uren Legearen testu bateginan jasotako gaikuntzan oinarrituta horretarako duen esparruaren barruan. Hala ere, une honetan ezin dira epe horiek murriztu plan hidrologikoak berrikusteko epearen denbora-luzerara (sei urte), ingurumen-adierazpenak proposatzen duen bezala. Ez da interpretatu behar emakidak murrizteak gutxieneko emari ekologikoak handitzea erraztu dezakeenik. Kalkuluak ez du zerikusirik errealitate horrekin, eta finkatzeak, hitzarmen-prozesu baten mende, ez ditu ezarritako balioak aldatu behar.

Era berean, plan hidrologikoak ezin ditu aldatu uraren erabiltzaileei kostu jakin batzuk berreskuratzeko aplikatzen zaizkien tresna ekonomikoak. Beraz, ezin da kontuan hartu zirkulatzen duen emari-erregimena kontrolatzeko beharrari lotutako ingurumen-kostu espezifikorik. Ingurumen-adierazpenean proposatutako aldaketa horrek lurralde osorako tratamendu komuna gomendatzen du, demarkazio hidrografikoaren arabera bereizi gabea, eta, egokitzat jotzen bada, Uren Legearen testu bateginaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren erreformatik ekin beharko zaio.

- d) Ingurumen-helburuak lortzera bideratutako neurrien programako jardueri buruz: Ingurumen-adierazpen estrategikoak eskatzen du koadro bat eranstea, honako hauek laburbilduko dituen: ingurumen-helburuak oraindik betetzen ez dituen ur-masa bakoitzarentzat, helburuak ez betetzea eragiten duten presio esanguratsuak eta jarduera-sektoreak, ez-betetze horren arrakala eta arrakala hori indargabetzen duten neurri nagusiak.

Betekizun horri erantzuteko, PH-Web aplikazioa hornitu da. Aplikazio horrek Espainiako plan hidrologikoei buruzko informazio guztia biltzen du, PHEren 71.7 artikulua zehazten dituen ondorioetarako, eta aipatutako fitxak ur-masaren arabera automatikoki sortzeko ahalmena du. Zerbitzu hori jendearen eskura egongo da, sartzeko mugarik gabe, Gobernuak plan hidrologikoak onartu ondoren, Europar Batasunari jakinaraziko zaion informazio digitala sendotzen den unean.

Oro har, ingurumen-adierazpenak egoera-adierazleen edo potentzial ekologikoaren esparrua osatzea ere proposatzen du, laugarren zikloko planetan kontuan hartzeko. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, halaber, EBk sustatzen duen araudi-eguneratzea, UEZ, lurpeko uren zuzentaraua eta ingurumen-kalitatearen arauen zuzentaraua erreformatuko lituzkeen zuzentarau-proposamen berri batekin. Horrekin guztiarekin, erreferentzia-esparru berri bat marrazten da ur-masen egoera eta potentziala ebaluatzeko, eta kontuan hartu beharko da plan hidrologikoen hurrengo berrikuspenean.

Gainera, kalitate-arauak hobeto aplikatzeko, garrantzitsua da plan hidrologiko bakoitza ez izatea irizpide horiek zehazten dituen, ur-masetarako edo inguruabar oso espezifikoetarako izan ezik; aitzitik, ebaluazio- eta diagnostiko-prozedura tipologia berak hedatzen diren lurralde osoan eta, bereziki, erkidego arteko arroak dituzten demarkazioetan berdin aplikatzen diren erregelamendu-arauetan oinarritzen da. Horretarako onartu ziren 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, lurrazaleko urei buruzkoa, eta 1514/2009 Errege Dekretua,

urriaren 2koa, lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babestea arautzen duena. Ondorioz, lortu nahi den hobekuntza integrazteko, beharrezkoa izango da, gutxienez, aipatutako erregelamendu-arauak eguneratzea.

Bestalde, ingurumen-adierazpenak azpimarratzen du garrantzitsua dela uraren mende dauden eta Natura 2000 Sarearen esparruan babestu beharreko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona berreskuratzeko edo horri eusteko beharrezkoak diren baldintzak, irizpideak eta kalitate-eskakizunak kontuan hartzea. Hori gauzatu ahal izan da lurralde horiei buruzko agintaritza eskudunek emandako dokumentazioetik abiatuta behar adinako ezagutza lortu ahal izan den arte. Alderdi horretan aurrera egitea da plan hidrologikoak bere gain hartzen duen konpromisoetako bat, hurrengo berrikuspenari begira.

Horrez gain, ingurumen-adierazpenak honako neurri mota hauei buruzko zehaztapenak eta baldintzatzaileak planteatzen ditu:

- a. Unean uneko kutsadurari aurre egiteko neurriak: Arazketa-azpiegiturak (HUA) eraikitzean zehazten diren neurriei dagokienez, ingurumen-adierazpenean eskatzen da planetan dei bat egitea bermatzeko beharrezkoa dela kalte esanguratsurik ez eragitea. Plan hidrologiko guztietan aplikatu beharreko betebeharrak komuna denez, oro har, errege-dekretu onargarriari jasotzen da, zortzigarren xedapen gehigarria sartuz: «Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzea.

Hiri-isurketen tratamendurako eskakizunei dagokienez, ingurumen-adierazpenak adierazten duen bezala, arau sektorialetan indarrean dauden betekizunak ez ezik, Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentaraua, 1991ko maiatzaren 21ekoa, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa, berrikustean ezartzen diren baldintza berriak ere kontuan hartu beharko dira. Zuzentarau horri buruzko lehen zirriborroak ezagutzen dira, eta, aurreikuspenen arabera, plangintza hidrologikoaren ziklo berrian onartuko da.

- b. Kutsadura lausoari aurre egiteko neurriak: Mugape honetako plan hidrologikoak konpromiso argia du kutsadura lausoaren arazoari aurre egiteko. Horretarako, ingurumen-adierazpen estrategikoan planteatutako eskakizunekin bat etorriz, eta Plan Hidrologikoaren Erregelamendua arau nagusiei jarraiki, eta urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretua, urak nekazaritza-iturrietatik eratorritako nitratoek eragindako kutsadura lausotik babesteari buruzkoa, planak mugak ezarri dizkie gehieneko nitrogeno soberakinei, plan hidrologikoak berak ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko bideari jarraitzeko onargarriak izango liratekeenei. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek kontuan hartu behar dituzte adierazitako atalaseak, eremu kalteberetan jarduteko programak berrikuste aldera (urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretuaren 8.3 artikulua).

Era berean, plan hidrologiko honen berrikuspenaren lehen faseetan egin beharko den Demarkazioaren Azterlan Orokorraren eguneratzean, kutsadurak iturri lausoetatik sortzen dituen presioen azterketan sakonduko da, bai eremu kalteberetan, bai horietatik kanpo, eta, horretarako, mota horretako arazoak hobeto karakterizatzeke garatzen ari diren azterlan hidrokimikoak, isotopikoak eta mikrobiologikoak hartuko dira kontuan.

Bestalde, eta ingurumen-adierazpen estrategikoan planteatutakoarekin bat etorriz, edozein ur-emakida eman aurreko azterketan aztertuko da ea bateragarria den plan hidrologikoarekin, Uren Legearen testu bateginean eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan, bai eta urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretuaren 8.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ere. Bateragarritasun hori lortzea ezinezkoa bada, emakida ezin izango da eman.

- c. Erauzketa-presioari aurre egiteko neurriak: Ingurumen-adierazpenak erauzketa-presioen identifikazioa berrikustea xedatzen du. Berrikuspen hori laugarren zikloko plan hidrologikoa prestatzeko egiten den Demarkazioaren Azterketa Orokorren eguneratzearen esparruan egingo da.
- d. Bestalde, ingurumen-adierazpenak kezka adierazten du erauzketa-presioak edo kutsadura lausoagatiko presioak arintzeko urreztatzeak modernizatzeko neurrien eraginkortasunari dagokionez, eta plan hidrologikoan horri buruzko zehaztasunak sartzea proposatzen du. Horretarako, eta plan hidrologiko zehatz horretatik haratago doan problematika komuna denez, onartutako irtenbidea zazpigarren xedapen gehigarri bat onartzea da, urreztatze-azpiegituretan benetan aurrezte arautzen duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduari bat etorritik. Erregelamendu horrek nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egindako plan estrategikoei laguntzeko arauak ezartzen ditu. Xedapen gehigarri horrek, bigarren atalean, arroko erakundeek txosten bat egiteko aukera jasotzen du, urreztatze-lurra modernizatzeko jarduketara zehatz bakoitzean aplikatu beharreko aurrezkia zehaztuz. Ureztatzeekin lotutako jarduerak bakarrik Arabako Lurralde Historikoko kantauriar arroetan urreztatzeak modernizatzeko neurria da (ES017_2_N1005), Arabako Foru Aldundiak garatu behar duena, eta bigarren ziklotik eratorritako neurria da, baina ez dago horren berri.

Birsortutako hondakin-urak berrerabiltzea aukera bat da, eta, baldintza espezifikoaren arabera, erauzketa-presioak arintzen lagun dezake. Baimena emateko, kontuan hartuko dira, ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritakoaren arabera, uztailaren 14ko TED/801/2021 Aginduaren bidez onartutako Arazketa, Saneamendu, Eraginkortasun, Aurrezte eta Berrerabilpen Plan Nazionalen mota horretako jarduerak hautatzeko adierazitako irizpideak.

- e. Aldaketa hidrologikoei aurre egiteko neurriak: Emari ekologikoen erregimena ezartzeari buruz egindako kontsiderazio berberak aplikatu behar dira; izan ere, lehen azaldu bezala, aldaketa hidrologikoa arintzeko neurri bat dira, eta ez ingurumen-helburu espezifiko bat.

Ingurumen-adierazpena kezkatuta agertu da zenbait urtegi ez direlako egokitu emari ekologikoa behar bezala askatzeko, bereziki presetatik behera gune babestuek daudenean. Emari ekologikoen erregimenak baldintza egokiak bete ez ditzaketenez azpiegituretatik askatzea errazteko, epe iragankor bat gaitzen da Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduen aldaketaren bidez, eta, bitartean, aldaketa hori gauzatzen da, xedapen iragankor bakar bat txertatuz onespenerako errege-dekretuan, tresna horren bidez onartzen diren plan hidrologiko guztietarako irtenbide hori bermatzen duena.

Era berean, Urtegia Husteko Batzordeko eta arroko erakundearen Ustiapen Batzordeetako kideak aldatzea proposatzen du ingurumen-adierazpenak. Kide anitzeko organo horien osaera erregelamendu bidez ezarri da, eta, beraz, plan hidrologikoari ez dagokio horiek aldatzea, eta ez du horretarako ahalmenik. Hala ere, kontuan hartu dira ingurumen-adierazpenean jasotako proposamenak, etorkizunean Konfederazioko organo horien egitura eta osaera eguneratu ahal izateko.

- f. Aldaketa morfologikoei aurre egiteko neurriak: Ingurumen-adierazpen estrategikoaren gomendioei jarraituz, atal honetan jasotako jardueren sailkapena berriz aztertu da, tipologiaren eta xedearen arabera.

Horrelako neurriak Ibaiak Leheneratzeko Estrategia Nazional berriaren esparruan gauzatuko dira, Biodibertsitatearen Europako Estrategiarekin erabat lerrokatuta.

Bestalde, ingurumen-adierazpen estrategikoaren betekizunei jarraiki, ibaien zeharkako edo luzetarako azpiegituren inbentarioak eguneratuko dira, eta plangintza-zikloan zehar emakida edo baimena amaituko zaien aprobetxamenduei lotutakoak identifikatuko dira, jarraitutasuna berriz ebaluatzeko, sektoreko araudian eta, bereziki, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan horretarako adierazten diren irizpideen arabera.

- g. Eskaerei erantzuteko neurrien programaren jardueri buruz: Neurrien programa egitea plangintza hidrologikoaren helburuak lortzeko eskumena duten administrazio guztiak inplikatzeko dituen prozesua da (ingurumen-helburuak lortzea eta helburu horiekin bateragarriak diren eskaerei erantzutea). Baldintza horiek betetzea da, funtsean, neurri-programak egitearen funtsa, eta horretarako ere funtsezkoak dira parte-hartze publikoko prozesuak. Ingurumen-adierazpenak adierazten duen bezala, eskaerei erantzuten laguntzeko neurrien programan sartutako jarduketak berrikusi dira, horiek guztiak plan hidrologikoak demarkazioko ur-masentzat ezarritako ingurumen-helburuekin bateragarriak direla egiaztatzeko, edo, hori horrela ez denean, Uraren Esparru Zuzentarauak jatorrian eskaintzen dituen helburuak lortzeko salbuespenen erabilera justifika daitekeen kasuekin bat datozela egiaztatzeko.

Oro har, horrelako neurrien gainean, erauzketagatiko edo kutsadura lausoagatiko presioei aurre egiteko neurriei buruz aurrez adierazitako kontrol berberak aplikatzen dira, eta, beraz, ez da horretan tematzen.

Nolanahi ere, ingurumen-adierazpenak aurreikusten duen bezala, emakida bat ematea edo alde aurreko emakida bat berrikustea arroko erakundeak aztertu behar du alde aurretik, plan hidrologiko honekin bateragarria den egiaztatzeko, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan, dela aldi baterako ur-deribazioei dagokienez (77. art.), emakidak oro har eta egoera eta helburu desberdinetan (art. 108, 119, 130), eskubide pribatuak emakida bihurtzeari dagokionez (138 bis), ureztaketarako edo hornidurarako emakidak berritzeari dagokionez (art.141) emakiden funtsezko ezaugarrien aldaketa (art. 144) edo eskubideak eskuratzeko eskaintza publikoko egoeretan (art. 355).

- e) Natura 2000 Sarean eragina izan dezaketen jardueri buruz: Plan hidrologiko honek Natura 2000 Europako sarea kontserbatzen eta indartzen laguntzen du, eta sare horren kontserbazio-betekizun espezifikoak plan hidrologikoak lortu nahi dituen ingurumen-helburuen artean daude.

Planak berrikusteko prozesuan zehar, Natura 2000 Sareari buruzko eskumena duten autonomia-erkidegoetako agintariei informazioa eskatu zaie, haien egoera ona ezaugarritzen duten eta eremu babestuetan egoera onean dauden baldintza orokorreari aplikatzen zaizkien balizko baldintza gehigarriei buruz. Horri buruz lortutako informazioa plan hidrologikoan jasota dago. Batzuetan ez dago eskuragarri, dagokion agintaritzak eskudunak ez duelako halakorik, eta lan-ildo horretan eragingo du plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspenean, planeko neurrien programan adierazten den bezala.

Nolanahi ere, Europako kontserbazio-sare garrantzitsu horretako espazioetan ondorio kaltegarriak eragin ditzakeen edozein jarduerak eraginaren ebaluazioa beharko du administrazio substantiboak baimena eman aurretik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, eta, horretarako, eremua kudeatzeko plana hartuko da kontuan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritako betekizunekin bat etorritik.

- f) Ingurumen-jarraipenari buruz: ingurumen-adierazpen estrategikoak berariazko atal bat eskaintzen dio plan hidrologikoaren ingurumen-jarraipenari. Atal hori nabarmen bereizten da aurreko zikloetan lantzen ziren adierazle estrategikoen multzotik, planaren beraren adierazle operatiboetan fokalizatzeko. Adierazle operatibo horiek, neurri handi batean, nahastu egiten dira plan hidrologikoaren jarraipenerako eta jarraipen orokorrerako arauekin, eta arau sektorialetan zehazten dira, funtsean irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan eta Plan Hidrologikoaren Erregelamenduan.

Eranskin honen V. atalean, ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondoriozko plan hidrologikoaren ingurumen-jarraipeneko alderdi horien integrazioa azaltzen eta gauzatzen da.

III. Ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsultak planean edo programan kontuan hartzeko jarraitutako prozedura, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-adierazpen estrategikoa barne, bai eta, hala badagokio, plangintza-prozesuan zehar izandako desadostasunak ere.

Plan hidrologiko horren berrikuspen-prozesua 2018an hasi zen, eta, hasiera-hasieratik, egindako lanaren buru izan da planaren aurreko bertsioekiko eraginkortasuna handitzeko beharra, lortu nahi diren ingurumen-helburuak lortzeko; gainera, jakitun izan da 2027ko mugak, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarriak, dakarren erronka eta Europako Itun Berdeak lan horretarako guztirako duen aukera.

Berrikuspen-lanaren lehen faseetatik aurrera, parte-hartze publikoak eskaintzen dituen aukerak garatu eta aprobeztatu dira, gai horri buruz araututako betekizunen arabera, eta, era berean, kontuan hartu dira Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak berrikuspen-prozesuaren tarteko fase batean emandako irismen-dokumentuaren ekarpenak. Horrela, plan hidrologikoa berrikusteko proiektua prestatzearekin batera egin zen Ingurumen Azterlan Estrategikoa idazteak ingurumen-alderdi estrategikoak hobeto kontuan hartzen lagundu zuen, baita egindako kontsulta- eta partaidetza-prozesuen eraginkortasuna osatzen eta indartzen ere.

Era berean, plan hidrologikoa eta uholde-arriskua kudeatzeko plana berrikusteko ingurumen-ebaluazio bateratuko prozesu bat garatzeak lagundu du ibaiak kontserbatzeko eta leheneratzeko interesak eta uholde-arriskuak kudeatzeko interesak biltzen dituzten irtenbide sinergikoak sortzen, ahal izan den guztietan naturan oinarritutako irtenbideak bilatuz. Horri esker, sinergiaz jardun ahal izan da ingurumen-helburuak lortzeko, uholde-arriskuetatik babesteko eta klima-aldaketara egokitzeko.

Prozesuan zehar hainbat eta hainbat eragilek egindako ekarpenak jaso dira. Horren guztiaren emaitzak dokumentu espezifiko batean deskribatzen dira. Dokumentu hori planaren parte da, eta plan hidrologikoaren eduki osoa eskuratzeko aukera ematen duen helbide elektronikoaren bidez eskura daiteke, errege-dekretu onarlearen bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Bestalde, ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondoriozko azken baldintzak bi multzo handitan bil daitezke: plana onartu aurretik kontuan hartu beharrekoak eta eta plangintza-zikloan zehar garatu beharreko ekintzak dakartzatenak, hau da, 2027a amaitu baino lehen.

Gainera, hainbat hobekuntza-ohar onartzen dira, eta horiek kontuan hartuko dira plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspenean, 2028-2033 zikloari aurre egiteko. Etorkizuneko berrikuspen hori 2027. urtea amaitu baino lehen onartu beharko da.

Orain sartu diren aldagietako batzuk, plan hidrologiko honen partikularra gainditzen duen zeharkako izaera dutelako, plan hidrologiko hau onartzeko errege-dekretuan sartutako xedapen gehigarrien edo azken xedapenen bidez gauzatzen dira, eta hori erkidegoarteko arroak dituzten Espainiako gainerako demarkazio hidrografikoetako gainerako plan hidrologikoekin batera egiten da. Hori da, adibidez, presetako hustubide-organoak emari ekologikoen erregimenak askatu ahal izateko egokitzeari buruzko xedapenen kasua, azpiegitura-jarduera jakin

batzuei buruzko «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzkoa, ureztatze-azpiegituretan benetako ur-aurrezpen batzuk lortzea komeni dela nabarmentzeko txertatzen dena, edo partekatutako akuiferoetako jarduketak koordinatzeari buruzkoa.

Beste alde batetik, ingurumen-adierazpen estrategikoaren gomendioei jarraituz, eta lehentasuneko araudi-dokumentuei kalterik egin gabe, ur-masen karakterizazio-lanak berrikusi dira, eta, bereziki, eragin handia izan dute azaleko ur-masa oso eraldatuetan, emari ekologikoen erregimenetan, baliabideak esleitzeko eta erreserbatzeko irizpideetan eta abarretan. Era berean, ingurumen-adierazpenean adierazitakoari jarraiki, hainbat neurri-motaren tipologiak eta helburuak berrikusi eta egokitu dira, arreta berezia jarriz, baina ez soilik, ibaiak lehengoratzeko jarduketetan, ureztatze-azpiegituretan eta baliabideen eskuragarritasuna handitzeko jarduketetan.

Halaber, neurrien programan jarduketa berri batzuk gehitu dira, Konfederazio Hidrografikoak ingurumen-adierazpenean adierazitako analisi eta azterlan jakin batzuk garatu ahal izan ditzan. Bereziki, plan hidrologikoa berraztertu aurretik egin beharreko azterlan eta lanak eskatzen dituzten alderdietan ingurumen-adierazpen estrategikoari arreta emateko konpromisoa hartzeko eta bermatzeko, neurrien programa aldatu da, 2022ko azaroko ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondoriozko lanak eta azterlanak izeneko jarduketa orokorra txertatzeko, plan hidrologikoa indartzeko. Plan horren garapenaren ardura Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak du.

Neurri-programako beste jarduketa batzuk, hala nola emari ekologikoen egokitzapen-jarraipena edo plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspena orokorki bideratutakoak, edo PH-Web informazio-sistema egokitzekoak, ingurumen-adierazpen estrategikoan adierazitako argibideen arabera informazioa eta ur-masaren arabera fitxak eman ahal izateko.

Azkenik, azpimarratzekoa da eranskin hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den plan hidrologikoaren arau-zatian sartu dela. Horren bidez, bete egiten dira abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikuluan aipatzen diren publikitate-betebeharrak, eta, bestetik, ingurumen-adierazpenetik eratorritako zenbait arau-konpromiso gehitzen zaizkio plan hidrologikoari, prozedura-unea dela eta ezin izan baitira bestela sartu, eta gehigarri honen II. apartatuan zehazten dira.

Bestalde, ingurumen-adierazpenak beste alderdi batzuk azpimarratzen ditu, eta horiei dagokienez, kontuan hartu behar da ingurumen-adierazpen horren izaera subsidiarioa, lehentasuneko legeriari dagokionez. Arau horiek, funtsean, Uren Legearen testu bateginaren eta hura garatzen duten erregelamendu-xedapenen bidez hedatzen dira. Horrela, ingurumen-adierazpenean jasotako baldintza guztiak, kostuak berreskuratzearekin lotutako zerga-araubidea aldatzeari edo doitzeari buruzkoak, edo horri buruzko salbuespenei buruzkoak, ezin dira demarkazioko plan hidrologikoetatik heldu, eduki horiei dagokienez lege-erreserba baitago. Gainera, jarduera-irizpide gehienak gure legerian jasota daude, ingurumen-adierazpenean adierazitako jarraibideekin bat etorritik.

Ingurumen-adierazpenak behin eta berriz adierazten duen beste gogoeta bat da baimen jakin batzuk, eta, bereziki, jabari publiko hidraulikotik egindako emakidak, plan hidrologikoaren helburuak betetzeari buruzko aurreikuspenak betetzera baldintzatzea. Aldez aurreko bateragarritasun horren eskakizuna argi eta garbi jasota dago araudi sektorialean, bereziki Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan, hainbat egoerari dagokienez. Arroko erakundeek, oro har, eta Konfederazio Hidrografiko honek, bereziki, aspaldidanik aztertzen dute mugapearen plan hidrologikoarekin aldez aurretik bateragarria ote den eragile publikoek eta pribatuek ura erabiltzeko dituzten asmoak. Bateragarritasun-txosten hori funtsezko elementuetako bat bihurtu da izapideetan, eta oso modu garrantzitsuan baldintzatu ditu emakidak. Bateragarritasun hori egiaztatu ezin denean, eskaerak ezesteko arrazoi nagusietako bat da.

Azkenik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Europar Batasuna uraren arloan egiten ari diren eguneratze-lan garrantzitsuaz jabetu behar gara. Eremu nazionalean egindako aldaketak gogoratu

gabe, Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduaren erreforma esanguratsu bat amaitzen ari da, plan hidrologiko honen ingurumen-adierazpen estrategikoan aipatzen diren ibai-espazioaren eta lurpeko uren ingurumen-babesari buruzko alderdietako batzuk jorratzen dituena. Era berean, erkidego arteko arrotan aplikatu beharreko eremu sentikorren beste deklarazio bat prestatzen ari dira, eta, gainera, aurreikusita dago epe laburrean Uren Legearen testu bateginari berari buruzko eztabaida-prozesu bat abiaraztea. Prozesu horretan, ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako hainbat ohar eta iradokizun eztabaidagai izan daitezke.

EBren esparruan ere badira zenbait proiektu handi ingurumen-adierazpenean zenbait zehaztapen finkatu diren alderdietan eragiten dutenak, eta argi eta garbi baldintzatuko dute plan hidrologiko honen hurrengo berrikuspenean. Horien artean aipatzekoak dira Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentaraua, 1991ko maiatzaren 21ekoa, Hiriko Hondakin-Uren Tratamenduari buruzkoa, eguneratzea, ur horien tratamendu-eskakizunetan eta tratamendu-planten neutraltasun energetikoan sakontzeko, eta, bestalde, Uraren Esparru Zuzentaraua eta hari lotutako beste batzuk aldatzea, lurrazaleko uren egoera edo potentzial ekologikoa eta kimikoa ebaluatzeko irizpideak eta lurpeko uren egoera kimikoa hobetzeko.

IV. Hautatutako aukera hautatzeko arrazoi erabakigarriak, kontuan hartutako alternatibei dagokienez

Alternatibarik egokiena aukeratzeko, hartu da abiapuntutzat 0 aukera edo joera, egin diren neurriak aplikatu ondoren arazoek izan duten joera-bilakaerarekin bat datorrena. Horrez gain, 1. aukera kontuan hartzen da, ingurumen-helburuak 2027rako ahalik eta gehien betetzeko; jarduketa osagarrien bidez, arazo bakoitza konpondu nahi da, eta alderdi sozioekonomiko garrantzitsuen kontsiderazioa integratzen da, horiek ere plangintzaren helburu baitira.

Ikusita plangintza hidrologikoaren ingurumen-helburuak eta helburu sozioekonomikoak bete diren, eta ingurumen-adierazleen erantzun aurreikusgarria kontuan hartuta egindako azterketaren emaitzak, proposatutako alternatiba bakoitzak honako abantaila eta eragozpenak eskaintzen ditu:

Alternatiba	Abantailak	Eragozpenak
Alt. 0	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontu-premia txikiagoak eta testuinguru ekonomikora hobeto egokitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen-helburuen betetze-maila, lurrazaleko zein lurpeko ur-masetan, 1^o alternatiba baino txikiagoa da. 1. Uholde-arriskuaren aurrean elkarrekin lan egiteko aukera galtzen da eta Europako araudia urratuko litzateke.
Alt. 1	<ul style="list-style-type: none"> Azaleko ur-masen ingurumen-helburuen betetze-maila % 100eraino igotzen da. Lurpeko ur-masen ingurumen-helburuen betetze-maila % 100eraino igotzen da. Uholde-arriskua ahalik eta gehien murrizten saiatzen da, eta horrek etorkizuneko kalteak minimizatzen ditu.. 	<ul style="list-style-type: none"> Inbertsio-premia handiak eta testuinguru ekonomikora okerrago doitzea. Prozesuan parte hartzen duten eragileen gaitzespena, bereziki uraren erabiltzaileen aldetik. Helburuak eskatutako epeetan lortzeko muga tekniko posibleak

Aurreko atalean lortutako emaitzak ikusita, 1. hautabideak portaera hobea erakusten du ingurumen-helburuak betetzearen aurrean, 0 alternatibak baino. Gainera, gai garrantzitsu batzuetan, aurrekoaren aurrekontu-mugak hobetzen dituzten beste neurri batzuekin osatzen da, ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko.

Horregatik guztiagatik, 1. alternatiba da hautatutako aukera eta Plan Hidrologikoaren berrikuspenean garatutakoa.

V. Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean duen eraginaren jarraipena egiteko hartutako neurriak.

Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren III. titulua, uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, plan hidrologikoen jarraipenari eta berrikuspenari buruzkoa da. Zehazki, 87. eta 88. artikuluek jarraipenerako irizpide orokorrak ezartzen dituzte, eta jarraipen espezifikoak egin behar zaien alderdiak zehazten dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, egiten ari garen bezala, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak plan hidrologikoaren jarraipenaren berri ematen die, gehienez ere urtean behin, Mugapeko Uraren Kontseiluari eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari. Era berean, 2024a amaitu baino lehen, EBko araudian ezarritako betekizunen arabera, tarteko txosten bat aurkeztuko da, plan hidrologiko honekin batera doan neurri-programaren aplikazio-maila zehazteko.

Era berean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak plan hidrologikoen aplikazioari buruzko txosten bat argitaratu behar du urtero, herritarrei egindako aurrerapenen berri emateko eta, horrela, herritarren parte-hartzea errazteko.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak plan hidrologikoaren jarraipena egiteko urtero prestatzen dituen txostenak helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri: <https://www.chcantabrico.es/parte-espaniola-de-la-dhc-oriental>. Era berean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak prestatutako urteko txostenak hemen aurki daitezke: <https://www.miteco.gob.es/es/agua/temas/planificacion-hidrologica/planificacion-hidrologica/seguimientoplanes.aspx>.

Bistakoa denez, 2022-2027 plangintza-zikloan aldeztu aurretik ezarritako eta praktikak jada finkatutako jarraipen-betebeharrei eutsi zaie.

Bestalde, ingurumen-adierazpenak zenbait gomendio ematen ditu jarraipen hori indartzeko. Gomendio horiek dokumentu honetako III. atalean adierazitako alderdi berberetarako zehazten dira.

Adierazpenean zehazten diren jarraipen-xehetasunetako batzuk urtero egin beharrekoak dira, hala nola ur-masen egoeraren edo potentzialaren ebaluazioa, edo erauzketengatik presioak. Horiek guztiak arako erakundeak egin beharreko txostenetan dokumentatuko dira, ingurumen-adierazpenean adierazten diren baldintzak eta gomendioak kontuan hartuta, ahal den guztietan.

Ingurumen-adierazpenean jasotako beste jarraipen-xehetasun batzuk plan hidrologikoaren berrikuspenarekin bakarrik eguneratzen dira, hala nola ur-masen karakterizazioa, baliabideen esleipena eta erreserba, emari ekologikoen erregimene osagaien doikuntza, etab.; alderdi horietarako guztietarako, ahal den neurrian, ingurumen-adierazpen estrategikoan jasotako irizpide informatzaileak hartuko dira kontuan.

VI. Ondorioa

Azaldutako guziaren ondorioz, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak 2022ko azaroan emandako ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako azken zehaztapen, neurri eta baldintza egokiak behar bezala integratuta geratu dira Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoaren proiektuan, Estatuaren eskumenen esparruan, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar bezala garatu eta aintzat hartu dela egiaztatu da, Gobernuak onartu aurretik, abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitako ingurumen-babesaren maila handia ziurtatzeko.